

**Bizkaiko Foru Aldundiaren 125/2019 FORU DEKRETUA, abuztuaren 21ekoa. Honen bidez, batetik, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-bilketari buruzko Erregelamendua onesten da; bestetik, UEFA Euro 2020 txapelketaren azken fasearen araubide fiskala garatzen da, eta, azkenik, aldatu egiten dira Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorra administrazio bideko berrikuspenaren arloan garatzeko Erregelamendua, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-ikuskapenaren Erregelamendua eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren erregelamenduak.
(BAO Abuztuaren 23koa)**

Foru-dekretu honek Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-bilketari buruzko Erregelamendua onesten du, UEFA Euro 2020ren azken fasearen araubide fiskala garatzen du eta, azkenik, aldaketak egiten ditu lau erregelamendu hauetan: Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorra administrazio bideko berrikuspenaren arloan garatzeko Erregelamenduan (abenduaren 27ko 228/2005 Foru Dekretuaren bidez onetsia), Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-ikuskapenaren Erregelamenduan (Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 24ko 5/2012 Foru Dekretuaren bidez onetsia) eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren erregelamenduetan (Bizkaiko Foru Aldundiaren apirilaren 8ko 47/2014 eta Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 23ko 203/2013 foru-dekretuen bidez onetsiak, hurrenez hurren).

Egiturari dagokionez, guztira hamahiru artikulua biltzen dituzten hiru kapitulu, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat eta azken xedapen bi ditu foru-dekretu honek.

I. kapituluaren bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoko diru-bilketaren erregelamendu berri bat onesten da. Ondoren, testu berria arautzea eragin duten helburuak adierazten dira, eta bertan sartutako berritasun nagusiak azaldu.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Araua Bizkaiko tributuzko sistemaren esparru juridikoa da, eta esparru horretan sartzen dira bai tributuzko sistemaren alderdi orokorrak arautzen dituzten manuak, bai tributuzko egoki aplikatzeko administrazio-prozedurak arautzen dituztenak.

Askotan aldatu izan da foru-arau hori, haren indarraldi luzean zehar; aldaketa nabarmenetako bat apirilaren 12ko 2/2017 Foru Aginduaren bidez gauzatu zen; izan ere, haren bidez, partez aldatu zen martxoaren 10eko 2/2005 Foru Araua, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzkoa.

2/2017 Foru Arauak aldaketa garrantzitsua ekarri zion gure tributuzko sistemaren esparru juridikoari. Besteak beste, helburu hauek lortu nahi ziren foru-arau horren bidez: zergadunei tributuzko betebeharrak betetzeko laguntza ematea; tributuzko aplikatzeko orduan administrazio-jardunaren efikazia handitzea, zergapekoen segurtasun juridikoa gutxitu gabe; iruzurraren aurkako borrokarako neurriak sendotzea, eta Foru Administrazioaren harremanetan bitarteko elektronikoen erabilera bultzatzea.

Tributu arloko aldaketa hori osatzeko, beharrezkoa zen foru-arauak bere artikuluko batzuen bidez alderdi jakin batzuetarako eskatzen zuen erregelamenduzko garapen bat; alderdion artean, diru-bilketako prozedurekin lotutakoak zeuden.

Gainera, erregelamenduak aldaketa ugari izan ditu; azkena Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 2ko 144/2014 Foru Dekretuaren bidez gauzatu zen (haren bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-bilketari buruzko araudia eta beste zerga-araudi batzuk aldatzen dira). Foru-dekretu horrek era askotako aldaketak ekarri zituen, besteak beste, erregelamendua egokitzea Zerga-bilketa Ikuskatzeko Zerbitzuari agindutako eginkizun berrietara.

Ondorioz, haren edukia lotu gabe geratu da, neurri handi batean, eta zenbait gabezia teknikorekin. Beraz, erregelamenduzko testu osotu, berri, moderno eta harmonizatu bat artikulatu behar da, genero-ikuspegiarekin bat datorren hizkuntza darabilena.

Foru-dekretu honen bidez onesten den erregelamendurako arau-gaikuntza manu hauetan aurkituko dugu: foru-arauak berak egiten dituen aipamen espezifikoei, bai eta beronen azken xedapenetako lehenean, non Foru Aldundiari ahalmena ematen baitzaio erregelamendua garatu eta aplikatzeko behar diren xedapenak eman ditzan.

Egiturari dagokionez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-bilketari buruzko Erregelamenduak 102 artikuluko —bost titulutan bilduak—, xedapen gehigarri bat eta lau xedapen iragankor ditu.

Lehenengo titulua —Xedapen orokorrak— lau kapitulu ditu, arau erkideak, zerga-bilketako organoak eta haien eskumenak arautzen dituztenak, eta, berritasun gisa, IV. kapitulu (zerga-bilketaren arloko erakunde laguntzaileei buruzkoa) eguneratu egiten da Bizkaiko Foru Aldundiarekin laguntzaile diren finantza erakundeei buruzko ekainaren 6ko 54/1995 Foru Dekretuaren II. kapitulu jasotako araudia, eta Foru Administrazioarekiko lankidetzaren sistematizazioa da.

II. tituluan, zorrari buruzkoan, aldaketa garrantzitsuak aurkituko ditugu. Hasteko, gehitu egiten dira ordaintzeko bideak; kreditu- eta zordunketa-txartelak ere onartzen dira. Halaber, aurreikusten da zorra banku-transferentzia bidez edo kontuko zordunketa bidez ordaindu ahal izateko aukera, Ogasun eta Finantza Saileko foru-diputatuak foru-agindu bidez hala baimentzen badu.

Zorren ordainketa geroratu edo zatitzeari dagokionez, eguneratu egiten da eskaeraren izapidetzea, eta ezartzen da eskaera hori Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez egin behar dela. Horri dagokionez, jarduera ekonomikorik egiten ez duten pertsona fisikoei aldi baterako araubidea aplikatuko zaie; beraz, 2021eko urtarrilaren 1era arte ez dira behartuta egongo ordainketa geroratzeko eskaera egoitza elektronikoen bidez egitera. Erregelamendu berriak, oro bat, geroratzea eskatu daitekeen kasuak gehitzen ditu, eta geroratzea onartzeko baldintzak ezartzen. Halaber, aldatu egiten ditu zorren ordainketa geroratzeko edo zatitzeko eskaerak ebazteko eskumena duten organoak, kontuan hartuta zorren zenbatekoa eta hura ordaintzeko epea.

Azkenik, zorraren bermeari dagokionez, lekupenaren arautze berri bat ezartzen du, eta zenbait aldagai berri sartzen, hala nola bermeen ustekabeko eskasia.

III. titulua, premiamendu-prozedurari buruzkoa, hiru kapitulu ordenatzen ditu jarduketak; kapitulu bakoitza prozeduraren hiru faseetako bati buruzkoa da (hasiera, garapena, amaiera). Eta berritasun nagusia hau da: ondasunak eta eskubideak —zeinen gainean berme bat eratu baita— besterentzeko prozeduren sistematizazioa.

Besterentze-prozedura bakoitza artikuluko batean arautzen da; horrek aukera ematen du haietako bakoitzaren berezitasunak hobeto artikulatzeko. Hala, bada, enkantea, zuzeneko adjudikazioa, pertsona edo entitate espezializatu bidezko besterentzea eta lehiaketa 80.etik 83.era bitarteko artikuluetan araututa daude. 5. atal berriak osatu egiten du premiamendu-prozedurari buruzkoa, adjudikazioaren ondorengo jarduketak zehazten baititu.

IV tituluak hirugarrengotzen erreklamazioari heltzen dio, eta, V. titulua konkurtso-prozedurak eta beste exekuzio-prozedura batzuk arautzen ditu.

Azken zatiari dagokionez, xedapen gehigarri bakarrean —prebentziozko idatzoharri buruzkoa— aukera ezartzen da Foru Administrazioak izapide hori egiteko betebeharretik salbuesteko kasu jakin batzuetan. Azkenik, erregelamenduak lau xedapen iragankor ditu, alderdi hauetan aplikatu beharrekoak: egoitza elektronikoa; eskudiruzko ordainketa egiteko erabili ahal izango diren bideak, foru-agindu bidez hala baimentzen denean; jarduera ekonomikorik egiten ez duten pertsona fisikoek nola aurkeztu behar duten ordainketa geroratzeko eskaera bat, eta izapidetzen ari diren prozeduren artean zeini aplikatuko zaien erregelamendu hau.

Ondoren, foru-dekretu honen II. kapituluak UEFA Euro 2020 txapelketaren azken fasearen araubide fiskala arautzen du. Bestalde, abenduaren 12ko 7/2018 Foru Arauak —zeinaren bidez Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-araudia egokitzen baita abenduaren 28ko 10/2017 Legeak Ekonomia Itunean eginiko aldaketetara— esparru egokia ezarri du, lehen xedapen gehigarriaren eta azken xedapenetako bigarrenaren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiak beharrezko diren egokitzapenak egin ditzan Bizkaiko Lurralde Historikoko erakunde eskudunek autonomia arauemailea duten zergetan, Ekonomia Itunean ezarritakoarekin bat. Egokitzapen horien bidez, Bilbo UEFA Euro 2020 txapelketaren azken fasea jokatzeko egoitzetako bat izateko Espainiako Erresumak hartu dituen konpromisoak formalizatuko dira.

Baina konpromiso horiek bete ahal izateko heldu behar zaion arautze fiskalak beste zerga batzuk hartzen ditu barne, hala nola Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga (establezimendu iraunkorrik gabe diharduten zergadunen kasuan), eta, zerga horiek direla-eta, foru-erakundeek eutsi egin behar diete Estatuan unean-unean indarrean diren arau substantiboek eta materialei. Hori kontuan hartuta, otsailaren 19ko 1/2019 Foru Dekretu Arauemaileak (haren bidez, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Araua aldatzen da, eta UEFA Euro 2020ren azken fasearen araubide fiskala osatu) gure ordenamendura ekarri zuen zerga horiek direla-eta araubide erkideko lurraldean ezarri zen edukia; ezarri ere, tributu eta katastro arloetako neurri jakin batzuk hartzen dituen abenduaren 28ko 27/2018 Errege Lege Dekretuak ezarri zuen eduki hori.

Beraz, Bizkaiko Foru Aldundiak UEFA Euro 2020ren azken fasearen araubide fiskala garatzeko ezarritako arau-gaikuntza erabiliz, foru-dekretu honen II. kapituluaren bidez, Espainiako Erresumak UEFArekin nazioarteko kirol-lehiaketa garrantzitsu hori garatzeko hartutako konpromisoak betetzeko beharrezko diren arauak ezartzen dira.

Horretarako, lehenik, zehazten da aplikazio-eremu pertsonala, zeinari onartutako neurriak aplikatuko zaizkion, eta UEFA Euro 2020 txapelketa antolatzeke errekerimenduetan sar litezkeen pertsona fisikoen eta juridikoen kasuak jasotzen dira.

Bigarrenik, aurreikusten da nazioarteko kirol-ekitaldia egitearekin lotutako errentak salbuestea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan, Sozietateen gaineko Zergan, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan (establezimendu iraunkorrik gabe diharduten zergadunen kasuan) eta tokiko tributuetan. Halaber, baimena ematen zaio Ogasuneko zuzendari nagusiari talde funtzional espezializatu bat osatu dezan; haren eginkizunak hauek izango dira: tributu-betebehar formalak kudeatzea; betebehar horiek betetzen direla egiaztatzea, eta dagozkion administrazio-likidazioak egitea. Azkenik, foru-dekretu honen bidez onesten diren neurri fiskalen indarraldiaren aldi baterakotasuna ezartzen da; 2020ko abenduaren 31n amaituko da indarraldia.

Hala, Bizkaiko Foru Aldundiak erabat eta araugintza-tresna bakarraren bidez baliatzen du aipatu diren xedapenetan ezarritako arau-gaikuntza, eta osatu egiten du UEFA Euro 2020ren azken fasea antolatzeke hartutako konpromisoen betetzea.

III. kapituluan, aldaketak egiten dira beste tributu-erregelamendu batzuetan.

Bestalde, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Araua administrazio-bideko berrikuspenaren arloan garatzeko Erregelamenduan egindako

aldaketek osatu eta garatu egiten dituzte martxoaren 10eko 2/2005 Foru Araua partez aldatzen duen 2/2017 Arauaren bidez Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauan egindako aldaketak.

Ondoren, administrazio-bideko berrikuspenaren arloko berritasun nagusiak aipatzen dira, foru-dekretu honen 10. artikuluan jasotzen direnak.

Lehenik, berrikuspen-prozedurak etenda geratzen dira nazioarteko hitzarmen eta itunetan aurreikusitako adiskidetasunezko prozedurak izapidetzearen ondorioz, eta arauak ezartzen du berrikuspen-organoa izango dela inguruabar horren berri emateko agintari eskuduna. Horrez gainera, erregela zehatzak xedatzen dira erreklamazio ekonomiko-administratiboetan zenbatekoak ezartzeko; kostuak zenbatesteko irizpideak zehazten dira, zuzenean, eta ezartzen da kostuok erreklamazioaren zenbatekoaren ehuneko biko portzentajearen zenbatetsiko direla 300 euroko gutxieneko zenbatekoarekin.

Gainera, apirilaren 12ko 2/2017 Foru Arauak zenbait hobekuntza ekarri zituen, izaera tekniko hutsekoak, deuseztatze-errekurtsoari dagokionez. Hain zuen, errekurtso horren arautzeari artikulua independente bat eskaini zitzaion, kontuan harturik haren garrantzia, eta hura ebazteko epea hiru hilabetera luzatu zen. Ondorioz, erregelamendu-testu honetan 49 bis artikulua sortzen da, atal berri batean —hirugarrenean—, IV. tituluko II. kapituluaren barruan, deuseztatze-errekurtsoa garatu ahal izateko.

Era berean, Diru-bilketari buruzko Erregelamenduan egindako aldaketekin bat etortzeko, berraztertze-errekurtsoa edo erreklamazio ekonomiko-administratiboa garaiz eta forma egokian aurkeztu badira, edo aurkaratutako egintzaren betearazpena eten bada —etendura eskatu eta bermerik eratu beharrik gabe—, ordainketaren borondatezko epearen amaieran ordaindu gabe dagoen zorraren zenbatekoa 10.000 eurotik 20.000 eurora igotzen da, betiere zerga-zorra ordaintzeko borondatezko epearen barruan badago edo premiamendu-probidentziaren aurkako errekurtsoa aurkeztu bada.

Bestalde, erregelamenduz garatzen da Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren aurreko arazo prejudizialaren izapidetzea, legezko agindua betetzeko. Orobat, betebeharrak lotuen kasurako, legezko aurreikuspen bat ezartzen da, zehazki, honako hau: zor baten likidazioaren aurkako errekurtso bat edo erreklamazio bat baiesten bada, eta horrek zergapekoaren aldeko zenbateko bat itzuli beharra ekarri badu, orduan, likidazio hori eteteko eraturako bermea atxikitzea erabakitzea da itzulketa lotuari dagokion itzultzeari.

III. kapituluko 11. artikulua, berriz, Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 24ko 5/2012 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-ikuskapenaren Erregelamenduari heldu dio. Artikuluak, zehaztasun tekniko batzuk sartzeaz gainera, zenbait aldaketa egiten ditu; haien artean, nabarmendu beharrekoak dira fabrikazioaren gaineko zerga berezien arloko kontu-hartzailetzaren jardueri buruzkoak. Berritasun gisa, fabrikazioaren gaineko zerga berezien arloko kontu-hartzaileei dagozkien eginkizunak zehazten dira, bai eta haien jarduketan hasiera, garapen eta amaierari dagozkien berezitasunak ere. Horrez gainera, artikulua bi gehitu dira, gaiari buruzkoak. Haietan, batetik, etengabeko kontu-hartzearen araubidearen pean dauden jardueren eta lokalen titularrei dagozkien betebeharrak jasotzen dira, eta, bestetik, fabrikazioaren gaineko zergen arloko ikuskapen-jardueri lotutako zehaztapenak.

12. artikulua, berriz, aldaketak egiten ditu Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergari buruzko Erregelamenduan (Bizkaiko Foru Aldundiaren apirilaren 8ko 47/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen). Haien artean, nabarmendu beharrekoa da salbuespen-kasu gehiago sartu direla. Eusko Jaurlaritzak emandako laguntza jakin batzuei aplikatutako zaizkie salbuespen-kasuok, zergari buruzko foru-arauaren 9.27 artikuluan aipatzen diren lurralde-administrazio publikoek ematen dituzten laguntza publikoen salbuespenaren esparruan. Zehazki, salbuespenak honako hauetan izango luke eragina: farmazia-koordinketa, etxebizitzarako prestazio ekonomikoak, BEINT programako nazioartekotzeko bekak, ikertzaileek atzerriko unibertsitate jakin batzuetan bisita egiteko laguntzak, eta Gaztelagun laguntza-programa (etxebizitza alokatzeko).

Amaitzeko, 13. artikulua bidez, aldatu egiten da Sozietateen gaineko Zergari buruzko Erregelamendua (Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 23ko 203/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen), funtsezko helburu bat lortzeko: zehaztapen jakin batzuk egitea erregelamendu horren edukia Kontseiluaren 2016/881 (EB) Direktiban ezarritakoarekin bateratu nahi duten enpresa multinazionalen taldeek herrialdez herrialde aurkeztu behar duten informazioa emateko betebeharrean. Direktiba horrek 2011/16/EB Direktiba aldatu zuen, fiskalitatearen esparruan informazioa automatikoki trukatzeko derrigortasunari dagokionez.

Foru-dekretu hau ematen da xedapen hauetan arauak garatzeko emandako gaikuntzak baliatuta: martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren azken xedapenetako lehenengoaren 1. zenbakian, abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren azken xedapenetako bigarrenaren, abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren azken xedapenetako bigarrenaren eta abenduaren 12ko 7/2018 Foru Arauaren azken xedapenetako bigarrenaren.

Bestalde, adierazi behar da foru-dekretu honen izapidetzea lege eta dekretu hauetan xedatutakoaren arabera egin dela: Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 2/2017 Foru Dekretua, urtarrilaren 17koa, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duena. Kontuan hartuta foru dekretu honen prestaketa eta izapidetzea Bizkaiko Lurralde Historikoko agintaldi biren arteko epearen barruan egin direla, ekonomia prozesal eta eraginkortasun printzipioek, baita ere foru dekretuan jasotako aradi-araupetze ezberdinek ere, haiek guztiak arau-xedapen bakarraren bidez onestea aholkatzen dute Bizkaiko Foru Aldundiaren 2017ko uztailaren 4ko Erabakiaren bidez onartutako araugintza-teknikoari buruzko hirugarren gidalerroaren azken paragrafoan, xedatutakoaren arabera.

Azaldutakoa dela bide, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak 2019ko abuztuaren 21eko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau,

XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO ZERGA-BILKETARI BURUZKO ERREGELAMENDUA

1. artikulua. Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-bilketari buruzko erregelamendua

2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-bilketari buruzko erregelamendua onesten da, eta foru-dekretu honi batzen zaio.

II. KAPITULUA UEFA EURO 2020REN AZKEN FASEAREN ARAUBIDE FISKALA

2. artikulua. Aplikazio-eremua

Abenduaren 12ko 7/2018 Foru Arauak —zeinaren bidez Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-araudia egokitzen baita abenduaren 28ko 10/2017 Legeak Ekonomia Itunean eginiko aldaketetara— lehen xedapen gehigarrian xedatutakoarekin bat, kapitulu honetan ezarritako araubide fiskala pertsona eta erakunde hauei aplikatuko zaie:

- a) UEFARI eta, hala badagokio, erakunde antolatzaileak UEFA Euro 2020ren azken fasea dela-eta Espainiako lurraldean eratutako pertsona juridiko egoiliarrei.
- b) UEFA Euro 2020ren azken fasean parte hartzen duten futbol-elkarteei eta, hala badagokio, elkarteek Espainiako lurraldean eratutako pertsona juridiko egoiliarrei.
- c) Aurreko a) eta b) letretan aipatutako erakundeetako edozeinek Espainiako lurraldean eratutako establezimendu iraunkorrei.

- d) Aurreko a), b) eta c) letretan aipatutako erakundeetako langileei, delegatuei, ordezkarietara eta agenteei.
- e) UEFAk UEFA Euro 2020ren azken faseko egiaztatutako komunikabideetako langileei, delegatuei eta ordezkarietara eta
- f) UEFAk UEFA Euro 2020ren azken faseko egiaztatutako gainerako pertsonetara.

Baina kapitulu honetan ezarritakoa ez zaie aplikatuko artikulu honetan adierazitako pertsonetara, baldin eta Espainiako lurraldeko egoiliar badira UEFA Euro 2020ren azken fasean parte hartu aurretik.

3. artikulua. Sozietateen gaineko Zerga

2. artikulua a) eta b) letretan adierazitako erakundeak salbuetsita egongo dira Sozietateen gaineko Zerga ordaintzetik, UEFA Euro 2020ren azken fasea egin bitartean lortu eta hartan parte hartzearekin zuzeneko lotura duten errentak direla eta.

4. artikulua. Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga

2. artikulua c) letretan adierazitako erakundeak salbuetsita egongo dira Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga ordaintzetik, UEFA Euro 2020ren azken fasea egin bitartean lortu eta hartan parte hartzearekin zuzeneko lotura duten errentak direla eta.

5. artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga

2. artikulua d), e) eta f) letretan adierazitako erakundeak salbuetsita egongo dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga ordaintzetik, UEFA Euro 2020ren azken fasea egin bitartean lortu eta hartan parte hartzearekin zuzeneko lotura duten errentak direla eta.

6. artikulua Tokiko tributuak

2. artikulua a), b) eta c) letretan adierazitako erakundeak salbuetsita egongo dira UEFA Euro 2020ren azken fasea egin bitartean sor litezkeen tokiko tributuak ordaintzetik, baldin eta tributu horiek zuzeneko lotura badute ekitaldi horretarako.

7. artikulua. Entitate ez-egoiliarren ordezkariak

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren 46. artikuluan xedatutakoa gorabehera, 2. artikulua c) letretako erakundeek Espainako lurraldean egoitza duen ordezkari bat izendatu ahal izango dute, artikulu horretan ezarritako betebeharrak betetzeko.

8. artikulua. Tributuak aplikatzeko prozedurak

Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiak funtzionario espezializatu batzuen talde bat izendatuko du, dagozkion tributuak aplikatzeko 2. artikuluan adierazitako zergadunetara.

9. artikulua. Indarraldia

Kapitulu honetan ezarritako araubide fiskala 2019ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra bitartean aplikatuko da, 2. artikulua a), b) eta c) letretako erakundeen kasuan izan ezik. Izan ere, erakunde horietara 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera hasi eta 2021eko urtarrilaren 1a baino lehen amaitzen diren zergaldietan aplikatuko zaie.

III. KAPITULUA

BESTE TRIBUTU-ERREGELAMENDU BATZUEN ALDAKETA

10. artikulua. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorra administrazio bideko berrikuspenaren arloan garatzeko erregelamenduaren aldaketa

2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, aldaketa hauek sartu dira Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorra administrazio bideko berrikuspenaren arloan garatzeko erregelamenduan, zeina 2005eko abenduaren 27ko 228/2005 Foru Dekretuaren bidez onetsi baitzen:

Bat. 2.bis artikulua gehitu da, honela idatzita:

«2.bis artikulua.—Berrikuspen prozedura etetea adiskidetasunezko prozedura denean Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko hogeita hamabigarren xedapen gehigarrian xedatutakoarekin bat etorrira, V. tituluaren araututako berrikuspen prozeduretako bat eten behar denean adiskidetasunezko prozedura bat izapidetu delako, Bizkaiko Foru Aldundiaren 2014ko maiatzaren 22ko 66/2014 Foru Dekretuaren bidez onartutako Bizkaiko Lurralde Historikoko zergapetze zuzenaren arloko adiskidetasunezko prozeduren erregelamenduko 2. artikuluan aipatzen den agintari arduradunak eskatzaileak edo adiskidetasunezko prozedura hasteko eskabidean agertzen diren inplikaturako gainerako alderdiek jarritako administrazio-errekurtsoen edo errekurtso judizialen berri emango dio organo berrikusleari, baita beste edozein errekurtsorena ere, halakoan berri duenean.

Halaber, ardura duen agintari horrek adiskidetasunezko prozeduraren amaieraren berri emango dio berrikuspen organoari, eta amaiera xedatzen duen erabakiaren kopia helaraziko dio, berrikuspen prozeduraren etetea bertan behera uzteko eta ebazpena emateko.»

Bi. Aldatu egin da 33. artikulua, eta honela geratu da idatzita:

«33. artikulua.—Erreklamazioaren zenbatekoa

1. Erreklamazioaren zenbatekoa izango da erreklamazioaren xede den egintza edo jarduketaren zenbatekoa. Kuantifikazio ekonomikorik ez duten edo halako bati buruzkoak ez diren egintzak eta zehapen ez-diruzkoak zenbateko zehaztugabekotzat joko dira. Zerga-oinarria edo balioespen-egintza bat aurkaratzen denean eta dagokion likidazioa egin ez bada, erreklamazioaren munta haien zenbatekoa izango da.

Aurrekoa gorabehera, erreklamazioaren zenbatekoa hau izango da kasu hauetan:

- a) Erreklamazioaileak eskatutako itzulketa edo konpentsazio bat gutxitu edo ukatzeko, Administrazioak emandako egintzen aurka aurkeztutako erreklamazioetan, eskatutako itzulketa edo konpentsazioaren eta Administrazioak aitortutakoaren arteko aldea, gehi sartu beharreko zenbatekoa (halakorik egonez gero).
- b) Zergapekoak aitortutako zerga-oinarri negatiboak gutxitzen dituzten egintzen aurkako erreklamazioetan, Administrazioak kendutako zerga-oinarri negatiboa. Administrazio-egintzak, gainera, sartu beharreko zerga-zor bat ezartzen badu, bi zenbateko hauetatik handiena hartuko da: aitortutako zerga-oinarri negatiboa, erregularizatutakoa, edo sartu beharreko zerga-zorra. Zerga-oinarri negatiboa aitortzeaz gainera, itzulketa eskatu bazen, bi zenbateko hauetatik handiena hartuko da: kendutako zerga-oinarri negatiboa edo zenbaki honen a) letran ezarritakoa aplikatu ondoren ateratzen den zenbatekoa.
- c) Enbargo-eginbideen aurkako erreklamazioetan, exekuzioari dagokion zenbatekoa.
- d) Erantzukizuna deribatuzko erabakien aurkako erreklamazioetan, deribazioaren xede den zenbatekoa.
- e) Zehapenen aurkako erreklamazioetan, aplikatu ahal ziren murrizketak aplikatu aurretik zehapenei zegokien zenbatekoa.
- f) Zor ez diren sarrerak itzultzeko, autolikidazio bat zuzentzeko edo konpentsazio bat eskatzeko egindako eskabide baten ondorioz hasitako prozeduren ebazpenen aurkako erreklamazioetan, eskatutakoaren eta Administrazioak aitortutakoaren arteko aldea. Eskabideak ez badu aukerarik ematen zenbateko hori zehazteko, zenbateko zehaztugabekotzat joko da erreklamazioa.
- g) Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 56. artikuluan aipatzen diren zerga-zorren osagai jakin batzuen aurkako erreklamazioetan, aurkaratutako osagaiaren zenbatekoa, edo, bat baino gehiago bada, osagaien baturarena.

2. Erreklamazioaren xede den administrazio-egintzan zor, oinarri edo balorazio bat baino gehiago edo bestelako egintzak ageri badira, jarri den erreklamazioaren muntatzat joko da aurkaratu den zenbateko handieneko zor, oinarri, balorazio edo egintzarena. Izan ere, ezin dira batu agiriari jasotzen diren guztiak. Hainbat erabaki dituzten egintzen aurkako erreklamazioen kasuan, haietako batek bakarrik

badu kuantifikazio ekonomikoa edo bat bakarrik bada kuantifikazio bati buruzkoa, zenbateko zehaztugabetzat joko dira.

3. Norbanakoen jarduketan edo ez-egiteen aurkako erreklamazioetan, erreklamatzailearen uzia hartuko da kontuan.»

Hiru. Aldatu egin da 34. artikulua, eta honela geratu da idatzita:

«34. artikulua.—Metaketa

1. Artikulu honetako hurrengo zenbakietan aurreikusten diren kasuetan jarduketak metatzea edo jarduketan metaketa baliorik gabe uztea erabaki ahal izango da egintza ofizioz edo interesdunak eskatuta amaitu baino lehenagoko edozein unetan. Dena den, ez dira inola ere atzera eramango erabakia hartzen den egunerako edo eskabidea aurkezten den egunerako eginda edo hasita dauden jarduketak.

2. Metaketa eskatu dela ulertuko da interesdunak zor, oinarri, balorazio, egintza edo jarduketa bat baino gehiago dituen erreklamazio bakarra aurkezten duenean eta interesdun batzuek idazki berean erreklamatzan dutenean. Horrelako kasuetan, jarduketak metatuko dira, erabaki espresurik hartu beharrik izan gabe, salbu eta Foru Auzitegi Ekonomiko Administrazioak banakapena jakinarazten badu gero banakako erreklamazioetan izapidetzeko.

3. Zehapen baten ondoriozko zerga-zorren aurkako erreklamazioa aurkeztu bada eta zehapena aurkaratu bada, Foru Auzitegi Ekonomiko Administrazioak erreklamazio ekonomiko-administrazioak metatuko ditu izapidetu eta ebazteko.

Halaber, erreklamazioak metatu ahal izango dira hurrengo kasuetan:

- a) Interesdun berak tributu berari buruz aurkeztutako erreklamazioak.
 - b) Hainbat interesdunek zerga berari buruz aurkeztutako erreklamazioak, denak espediente beraren haritik sortuak badira edo auzi berdin-berdinak aurkezten badituzte eta, gainera, jakinarazpenetarako egoitza bakarra ematen badute.
 - c) Prozesu-ekonomia dela-eta hala erabakitzen denean.
4. Berezita hasi diren erreklamazio bi edo gehiago metatzen direnean, amaitzeko gutxien falta zaion espedientearen izapidetzea eten egingo da harik eta gainerakoak egoera berean egon arte.
5. Metatutako erreklamazioak bereizi behar direnean, metaketa baliorik gabe utzi arte egin diren jarduketa guztien kopia alderatua jasoko da espediente berri bakoitzean.
6. Legelari-idazkariaren probidentzia bidez erabakiko da jarduketak metatzea edo metaketa baliorik gabe uztea; erabaki hori izapide-egintza bat izango da eta haren aurka ezin da errekurtsorik jarri.»

Lau. Aldatu egin da 39. artikuluko 4. zenbakia, eta honela geratu da idatzita:

«4. Jakinarazpena posta ziurtatuaren bidez egin daiteke, edo Auzitegiko langileren baten nahiz horretarako gaituta dagoen funtzionario baten bidez.

Hala ere, erreklamatzailea edo bere ordezkaria Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikora sartzen badira Ogasun eta Finantza Sailak bitarteko elektronikoak erabiliz egiten dituen jakinarazpenak eta komunikazioak arautzen direnei buruzko martxoaren 20ko Bizkaiko Foru Aldundiaren 50/2012 Foru Dekretuaren 2.5 artikulua aplikatuko da; honen bidez.»

Bost. Aldatu egin da 40. artikulua, eta honela geratu da idatzita:

«40. artikulua.—Prozeduraren kostuak

1. Foru Auzitegi Ekonomiko Administrazioak erreklamatzaileak ausarkeriaz edo fede gaiztoz jardun duela ulertuko du ageriko eskubide-abusua duten edo lege- edo prozedura-iruzurra dakarten erreklamazioak aurkezten edo eskabideak egiten dituztenean, eta prozeduraren kostuak ordaintzeko eskatu ahal izango dio.

Zehazki, nabarmen funtsik gabeak diren erreklamazioak edo errekurtsioak aurkeztea joko da ausarkeriatzat, eta prozedura luzatzeko baino egiten ez diren eskabideak egiten direnean edo intzidenteak sustatzen direnean joko da fede gaiztotzat. Inguruabar horiek behar bezala arrazoitu beharko dira.

2. Erreklamatzaileak kostuak ordaindu behar dituela xedatzen denean, kostu horien zenbatekoa erreklamazioaren zenbatekoaren %2 izango da, eta, gutxienez, 300 euro. Zenbateko zehaztugabeko erreklamazioen kasuan, kostuen zenbatekoa aipatutako gutxieneko munta hori izango da. Zenbateko horiek foru-agindu bidez eguneratu ahal izango dira.

3. Prozeduraren kostuak ordaintzeko eskatzea erabakitzen denean, Foru Auzitegi Ekonomiko Administrazioak Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 60. artikuluko 1. zenbakiko b) letran ezartzen den hilabeteko epea emango dio ordaindu behar duen pertsonari aipatu kostuak ordain ditzan. Epe hori amaitutakoan kostuak ordaindu ez badira, premiamendu-prozeduraren bidez ordainaraziko dira.

4. Ez dira prozeduraren kostuak ordaindu beharko uziak osorik edo partez baietsi badira.
5. Ebazpen ekonomiko-administratiboan kostuak ezartzea xedatzen duen erabakiaren aurka ezin izango da administrazio-errekurtsorik jarri.»

Sei. Aldatu egin da 48. artikulua hiruugarren paragrafoa, eta honela geratu da idatzita:

«Auzitegiak intzidentea amaitzeko hartzen duen ebazpenaren aurka ezin izango da errekurtsorik jarri. Erreklamazioaren ebazpena jasotzen duenean, interesdunak berriz jarri ahal izango du ezbaian arazo intzidentala, ebazpenaren aurka dagokion errekurtsoa jarritz.»

Zazpi. 48.bis artikulua gehitu da, honela idatzita:

«48 bis artikulua.—Arazo prejudiziala

1. Auzitegiak ofizios erabakitzen duenean Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 242.3 artikuluan ezarritako arazo prejudizialetakoa bat planteatzea, 15 eguneko epea emango die erreklamatzailerari eta aurkaratutako egintza eman zuen organoari, planteamendu horren bidez kotasunari buruzko alegazioak aurkez ditzaten. Alegazioak aurkezteko epea emateko idazkiarekin batera, Auzitegiak arazo hori planteatzeko dituen arrazoiei buruzko mozio arrazoitu bat bidaliko zaie. Erreklamatzailerak eskatu badu arazo prejudiziala planteatzeko, epe bera emango zaio egintza eman duen Zerga Administrazioari.

Arazo prejudiziala planteatu ondoren, Foru Auzitegi Ekonomiko Administrazioak beharrezkotzat jotzen badu alegazio osagarriak edo arazo prejudizialaren birformulazioak aurkeztea, edo planteamendu horretan atzera egitea, 10 eguneko epea emango die bai erreklamatzailerari, bai egintza eman duen Zerga Administrazioari, egokitzen dituzten alegazioak egin ditzaten. Halaber, erabakitakoari buruzko mozio arrazoitu bat helaraziko die.

2. Arazo prejudiziala planteatu eta gero, Auzitegiak inguruabar hori jakinaraziko die erreklamatzailerari eta egintza eman duen Zerga Administrazioari, baita prozedura ekonomiko-administratiboa eten dela ere. Halaber, inguruabar horien berri emango zaie erreklamatzailerari eta egintza eman duen Zerga Administrazioari beste prozedura ekonomiko-administratiboak direnean, baldin eta haiek ebazteko arazo prejudizialaren emaitza jakin behar bada, eta arazoa planteatu den prozedurakoak ez badira.

3. Organo ekonomiko-administratibo eskudunak auziaren ebazpena jaso duela ulertuko da epaiaren gaztelaniako bertsioa Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean. Erreklamatzailerari eta egintza eman duen Zerga Administrazioari etetea kendu izanaren berri emango zaie arazo prejudiziala planteatzearen ondorioz eten den prozedura bakoitzeko.»

Zortzi. IV. tituluko II. kapituluko hiruugarren atala laugarrena izatera pasatu da, eta hiruugarren atal berri bat gehitu da, honela idatzita:

«Hiruugarren Atala

Deuseztatze-Errekurtsoa

49 bis artikulua. Deuseztatze-errekurtsoa

Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 245 bis artikuluan aipatzen den deuseztatze-errekurtsoa ebazteko eskumena errekurritutako erabakia edo ebazpena eman duen organoari dagokio.»

Bederatzi. Aldatu egin da 51. artikuluko 1. zenbakiko a) letra, eta honela geratu da idatzita:

«a) Zerga-zorra borondatez ordaintzeko epean badago edo premiamendu-probidentziaren aurkako errekurtsoa jarri bada, betiere, kasu bietan, borondatezko epea amaitzen denean ordaintzeko dagoen zorraren zenbatekoa 20.000 euro edo gutxiago bada. Nolanahi ere, zenbateko hori Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren foru-agindu bidez alda daiteke.»

Hamar. Paragrafo bat gehitu zaio 53. artikuluari, amaieran, honela idatzita:

«Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 223.1 artikuluan araututako betebeharrak lotuen kasuan, aurkeztutako bermeak ondorioak izango ditu itzulketa lotua eragin duen errekurtsoa osorik edo partez baiestearen ondorioz itzuli behar diren zenbatekoetan.»

Hamaika. Letra bat —c) letra— gehitu zaio 54. artikuluko 1. zenbakiari, honela idatzita:

«c) Administrazio publikoek aintzatetsitako kredituak.»

Hamabi. Aldatu egin da 66. artikuluko 2. zenbakia, eta honela geratu da idatzita:

«2. Errekurtsio bat edo erreklamazio ekonomiko-administratibo bat betearaztearen ondoriozko egintzak hilabeteko epean jakinarazi behar dira, ebazpena bera betearazteko eskumena duen organoaren erregistroan sartzen denetik hasita.

Ofizios edo interesdunak eskaturik, hilabeteko epean, Administrazioak zergapeko berari dagokion betebeharrak lotua —errekurtsioaren edo erreklamazioaren xedearekin lotura duena— erregularizatuko du, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 232.3 eta 244.7 artikuluetan xedatutakoarekin bat etorrira.

Betearazpen-egintzak ez dira izango aurkaratutako egintza eragin duen prozeduraren parte.

Ebazpenak betearazteko, administrazio zuzenbideko xedapen orokorretan jasotako eskualdagarritasunari buruzko arauak, egintza akastunak bihurtzeari buruzkoak, egintza eta izapideen kontserbazioari buruzkoak eta baliozkotzeari buruzkoak aplikatuko dira.»

Hamairu. Aldatu egin da 68. artikulua, eta honela geratu da idatzita:

«68. artikulua.—Ebazpena betetzea

1. Interesduna ez badago ados ebazpena betearazteko emandako egintza berriarekin, errekurtsioa aurkeztu ahal izango du betearazpenaren aurka, hilabeteko epean, betearazpen-egintza jakinarazi eta biharamunetik aurrera zenbatuta. Foru Auzitegi Ekonomiko Administrazioak ebatziko du errekurtsioa.

2. Foru Auzitegi Ekonomiko Administrazioaren ebazpenak betearazi behar dituzten organoek ebazpenak argitzeko eskatu ahal izango diote Auzitegiari.»

Hamalau. Aldatu egin da 71. artikulua hiru paragrafoa, eta honela geratu da idatzita:

«Hurrengo artikuluetan ezarritako prozedura gorago aipatutako kostuak itzultzeko baino ez da aplikatuko. Hala ere, ordaindu beharra duenak, bidezkoa baderitza, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeko IV. tituluaren ezarritako ondare-erantzukizunari buruzko prozedura eskatu ahal izango du beste kostu edo kontzeptu batzuetarako, horretarako ezarritako inguruabarrak baldin badaude.»

Hamabost. Aldatu egin da 72. artikulua, eta honela geratu da idatzita:

«72. artikulua.—Eragindako kostua itzultzea dagokien bermeak

Bermeen kostua itzultzeko eskubideak barruan hartuko ditu jarraian aipatuko diren bermeak, aplikatu beharreko arautegiarekin bat etorrira eman badira eta onartuak izan badira:

- a) Kreditu-erakundeek edo elkarrekiko berme-sozietateek emandako abal edo fidantza solidarioak.
- b) Kauzio-aseguruen ziurtagiriak.
- c) Ondasun higigarrien eta higiezinen gaineko hipotekak.
- d) Bahiak, lekualdaketadunak edo lekualdaketarik gabekoak.
- e) Administrazio publikoek aintzatetsitako kredituak.
- f) Administrazioak edo auzitegiek onartutako beste edozein.»

11. artikulua. Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-ikuskapenaren erregelamenduaren aldaketa

Aldaketa hauek sartu dira Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-ikuskapenaren erregelamenduan, zeina Bizkaiko Foru Aldundiaren 2012ko urtarrilaren 24ko 5/2012 Foru Dekretuaren bidez onetsi baitzen:

Bat. Aldatu egin da 8. artikuluko 2. zenbakiko bigarren paragrafoa, eta honela geratu da idatzita:

«Zerga Administrazioak jarduketak edo prozedurak garatu ahalko ditu oinordeetako edozeinekin, eta oinordekoen izenean formalizatuko dira aktak eta egingo dira likidazioak.»

Bi. Aldatu egin dira 16. artikuluko 1. zenbakiko v) eta x) letrak eta y) letra gehitu da; honela geratu dira idatzita:

«v) Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezien, Elektrizitatearen gaineko Zerga Bereziaren eta Ikatzen gaineko Zerga Bereziaren arloko zerga-araudia betetzen dela egiaztatzeko egin diren esku hartzeen ondorioak dokumentatzeko.»

- «x) Ekonomia Itunaren 47.ter artikuluan xedatutakoa aplikatzeko, ukitutako gainerako administrazioei beharrezkotzat jotako erregularizazioaren egitatezko elementuen eta zuzenbideko oinarrien berri eman behar zaienean.
- y) Zerga-araudia aplikatzearen ondorioz beharrezkoa den beste edozein txosten.»

Hiru. Aldatu egin da 17. artikuluko 4. zenbakiko bigarren paragrafoa, eta honela geratu da idatzita:

«Halaber, zerga hauetan akta bat formalizatuko da egutegiko urte bakoitzeko, urte horri dagozkion aitorten-aldi guztiak egiaztatzen direnean: Balio Erantsiaren gaineko Zerga, Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezietan, Ikatzaren gaineko Zerga Berezian eta Elektrizitatearen gaineko Zerga Berezian. Halaber, akta egin beharko da atxikitzaileek eta konturako sarrerak egin behar dituztenek dituzten betebeharrak dagokienez. Urte naturaleko aitorten-aldi guztiak egiaztatzen ez badira, akta bat formalizatuko da egiaztatutako aitorten-aldi bakoitzeko.»

Lau. Aldatu egin da 18. artikuluko 3. zenbakiko d) letra, eta honela geratu da idatzita:

- «d) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga edo Ondarearen gaineko Zerga egiaztatzen direnean, oraindik ere egiaztatu barik badaude urte natural bereko Ondarearen gaineko Zerga edo errentaren gaineko zerga.»

Bost. Paragrafo bat gehitu zaio 18. artikuluko 4. zenbakiko c) letrari, eta honela geratu da idatzita:

«Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, alderdi lotu guztiak aldi berean egiaztatzen direnean, alderdi guztiak ados badaude, akta bakarra egin ahal izango da zerga-betebeharraren elementu guztietarako, balio-egiaztapena barne.»

Sei. Zenbaki bat —3. zenbakia— gehitu zaio 34. artikuluari, eta honela geratu da idatzita:

«3. Artikulu honetan aipatzen den prozeduraren gehieneko iraupena dela eta, jakinarazpena bitarteko elektronikoen bidez egiten denean, jakinarazpena interesdunaren eskura jartzen den unetik zenbatuko da epea, kontuan hartu gabe jakinarazpena noiz jotzen den egindakotzat.»

Zazpi. Letra bat —i) letra— gehitu zaio 35. artikuluari, eta honela geratu da idatzita:

- «i) Ekonomia Ituneko 47.ter artikuluan xedatutakoa aplikatzeko, ukitutako beste administrazioei erregelamendu honen 16.1.x) artikuluan ezarritako txostena bidaltzen zaienean. Etenaldia izango da, hain zuzen, txostena bidaltzen denetik 47.ter artikuluan ezarritako epea bete arte, oharrak egin ez bada; edo, bestela, akordioa lortu arte edo Ekonomia Ituneko 68.Bi artikuluan ezarritako epeak bete arte, Arbitraje Batzordeak ebazpenik eman ez badu.»

Zortzi. Aldatu egin da 36. artikuluko e) letra, eta honela geratu da idatzita:

- «e) Komunikazioen, likidazioen edo likidazio-proposamenen jakinarazpenetan jazotako atzerapenak, jakinarazteko saiakera egin den egunaren biharamunetik jakinarazpena egiten den egunera arte.»

Bederatzi. Zenbaki bat —4. zenbakia— gehitu zaio 40. artikuluari, eta honela geratu da idatzita:

«Eragiketa lotuak erregularizatzeari dagokionez, zerga-ikuskatzaileak aldi berean erregularizatu ahal izango du Bizkaiko Foru Ogasunaren ikuskapen-eskumenaren menpeko pertsona edo erakunde lotu guztien tributu-egoera, guztiak ados badaude.»

Hamar. Aldatu egin da 45. artikuluko 1. Atalaren bigarren paragrafoa, eta honela geratu da idatzita:

«Zergapekoak ondasunak edo eskubideak eman nahi baditu zor duena ordaintzeko, aktak sinatu aurretik egin behar du horretarako eskaria. Aktak sinatzeko unean, berriz, eskaeraren kopia eman beharko dio aktuarioari; gainerakoan, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-bilketari buruzko araudiaren 21. artikuluan ezartzen denak aginduko du.»

Hamaika. Aldatu egin da 66. artikulua, eta 66.bis eta 66.ter artikulua gehitu dira. Honela geratu dira idatzita:

«66. artikulua.—Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezien arloan esku hartzeko jarduketak

1. Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezien arloan esku-hartzerakoan eginkizun hauek bete beharko dira modu jarraituan:

- a) Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezien zergapekoei ezarritako betebeharrak formalak betetzen direla kontrolatzea, dagokion bulego kudeatzailearen lurralde-erregistroan inskribatzeari dagokionez, eta jardueraren baimenari eta zerga horien xede diren produktuak sartu, eraldatu, manipulatu, biltegiratu, merkaturatu, suntsitu, desnaturalizatu, markatu edo bidaltzen dituzten establezimenduen baimenari dagokionez.
- b) Araubide honen pean dauden establezimenduetan sartzen edo biltegiratzen diren edo haietatik irteten diren produktuak eta lehengaiak kontrolatzea, produktu eta lehengai horien laginak ateratzea barne.
- c) Fabrikazio- edo eraldaketa-eragiketak kontrolatzea, baita produktuak aitortutako erabilera eta prozesuetarako erabiltzen direla ere. Kontrol horren barruan sartzen dira lanaren aitortpenak, emaitzen parteak eta gorabehera-agiriak, produktuen desnaturalizazioa, suntsipena eta markatzea.
- d) Zerga berezietan buruzko araudian xedatutakoa betetzen dela egiaztatzea kontabilitate-sistemei dagokionez, halakoak izatea erregelamenduz ezarrita dagoenean.
- e) Araubide honen pean dauden establezimenduetan dauden lehengaiak, produktuak eta zerga-markak zenbatzea.
- f) Aplikatu beharreko baldintzak kontuan hartuta, esku-hartzearen mendeko establezimenduaren edo jardueraren titularrak zerga berezietan eragiketaren eta autolikidazioen aitortpenak aurkezteko betebeharrak bete duela egiaztatzea, eta, hala badagokio, zerga-zorra sartu duela egiaztatzea.

Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezien arloan esku-hartzeko, zenbaki honetan ezarritako eginkizunak betetzea ez da joko berriak partzialtzat Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 145. artikulua ondo onartarako.

2. Esku-hartzearen arloko jarduketari hasiera emateko, jarduketak garatzeko eta halakoei amaiera emateko eta, esku-hartze horren aurrean, establezimenduen eta jardueren titularrak dituzten eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko, erregelamendu honetan ezarritakoa beteko da oro har, berezitasun hauekin:

- a) Esku-hartzea etengabea dela kontuan hartuta, araubide honen pean dauden establezimenduen eta jardueren titularrak baimena eman beharko diete esku-hartzearen aktuarioei establezimenduan sartzeko, dagokien jarduketari hasiera emateko eta jarduketak egiteko. Une oro eman beharko da baimen hori, eta aktuarioek ez dute aurretiaz eman beharko jarduketan berri.
- b) Kontrol iraunkorra egiten den kasuen kalterik gabe, esku-hartzearen aktuarioak beren eginkizunak betetzeko behar duten beste denbora egon ahal izango dira establezimenduetan.
- c) Kanpoan daudenean, araubide honen pean dauden establezimendu eta jardueren titularrak pertsona bat izendatu beharko dute aktuarioei sartzeko ahalbidetzeko, baita aktuarioen aurrean beren ordezkari izateko, ahalorde nahikoarekin, hala eskatzen zaienean.
- d) Esku-hartzearen aktuarioen kontrolaren izaera kontuan hartuta, araubide honen pean dauden establezimendu eta jardueren titularrak esku-hartzearen aktuarioen eskura jarri beharko dituzte establezimenduan dauden egiaztapen-elementuak. Elementu horien barruan sartzen dira establezimenduaren jardueraren xede diren produktuen laginak ateratzeko baliabide egokiak eta halakoak erabiltzeko langile gaituak ere.
- e) Araubide honen pean dauden establezimendu eta jardueren titularrak esku-hartze zerbitzuek egokitzat jotzen dituzten kontrol-neurriak hartu beharko dituzte aurreko letran xedatutakoa betetzeko eta horretarako behar diren informazio-elementu guztiak emateko.

3. Araubide honen pean dauden establezimenduak eta jarduerak kontrolatzeko garrantzitsuak diren egitateak edo inguruabarrak agerrarazteko, Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezien arloan esku hartzeko jarduketak eginbide, komunikazio, txosten eta akten bidez dokumentatuko dira.

4. Esku-hartzearen berezko egiaztapen- eta ikerketa-jarduketan ondorioz agerian jartzen diren egitateak erakusten badute ez direla bete zerga berezietan araudian ezarritako betebeharrak, esku hartzeko jarduketak aurrera jarraituko dute, eta zergapekoari jakinaraziko zaio zerga-egoera erregularizatzeko jarduketak hasiko direla. Aurretiaz, ikuskatzaileburuaren oniritzia lortu beharko da. Bada, jarduketa horiek Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 146 artikuluan ezarritako epean amaitu beharko dira edo, bestela, zehapen-prozedura hasi beharko da.

5. Ikuskatzaileburuak izendatuko ditu esku-hartzearen pean dauden establezimenduetako bakoitzean esku hartzeko jarduketaz arduratuko diren aktuarioak. Izendapena urte naturalerako izango da, eta izendapenak ondorioak izango dituen aldiaren aurreko abenduan gauzatuko da.

66 bis artikulua.—Esku-hartze iraunkorraren araubidea Aurreko artikuluan xedatutakoaren ondoriozko betebeharrak gainera, kontrol-araubide honen pean dauden jardueren eta lokalen titularrak betebeharrak izango dituzte:

- a) Zentro kudeatzaileak ezarritako modalitateekin bat etorrira, kontrol etengabea ahalbidetzeko, materiala eta agiri bidezkoa, lehengaien eta gainerako produktuen sarrera, autokontsumo eta irteera guztiei dagokienez, eta, oro har, establezimenduan Fabrikazioaren gaineko Zerga

Berezien araudiarekin lotuta egiten den jarduerari dagokionez. Betebehar hau establezimenduaren titularrak ez diren pertsonak egiten dituzten jardueretan ere bete behar da.

- b) Esku-hartzearen aktuarioei esku-hartzea egiteko behar dituzten lokalak, instalazioak, laguntzeko langileak eta materiala ematea, une oro, eta esku-hartzeak eragindako gastuak ordaintzea.

66 ter artikulua.—Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezien arloko ikuskapen-jarduketak

1. Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezia egiaztatzeko, esku-hartzearen arlokoak ez diren gainerako ikuskapen-jarduketa eta -prozeduretan titulu honen aurreko kapituluetan ezarritakoa beteko da.

2. Zehazki, Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezien arloko esku-hartzearen arduradun aktuarioei berezkoak zaizkien jarduketan ondorioz agerian jartzen badira zerga-araudian ezarritako betebeharrak ez direla bete erakusten duten egitateak edo inguruabarrak, aktuarioek txosten bat egingo dute. Txosten horretan, ikusitako egitateak jasoko dituzte, hala badagokio egokitzat jotzen diren ikuskapen-jarduketak eta prozedurak izapidetzeko, erregelamendu honen arauetan ezarritako prozedurekin bat etorrita.»

12. artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren erregelamenduaren aldaketa; Bizkaiko Foru Aldundiaren 2014ko apirilaren 8ko 47/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen erregelamendu hori

2019ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, aldaketa hauek egiten dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren erregelamenduan (Bizkaiko Foru Aldundiaren 2014ko apirilaren 8ko 47/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen):

Bat. Berridatzi egin da 12. artikuluko 1. zenbakiko g) letra eta w), x) eta y) letrak gehitu dira. Honela geratu dira idatzita:

- «g) Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legeko 9. artikuluko 2. zenbakian ezarritako etxebizitzarako prestazio ekonomikoa.

Horrez gainera, salbuetsita egongo dira Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailburuaren 2018ko abenduaren 18ko Aginduan etxebizitzaren alokairurako ezarrita dauden dirulaguntzak; agindu horren bidez, etxebizitzaren alokairurako Gaztelagun programaren laguntzak arautzen dira eta deialdia egiten da.»

- «w) Eusko Jaurlaritzaren 447/2013 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko Osasun Sistemako langileek agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko laguntzak arautzekoa.

- x) Agindua, 2017ko azaroaren 8koa, Ekonomiaren Garapenerako eta Azpiegiturarako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baita nazioartekotze-beken BEINT programa, eta EBAZPENA, 2019ko apirilaren 8koa, SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziako zuzendariarena, zeinaren bidez onartzen eta argitaratzen baitira «Beint nazioartekotze-bekak» laguntza-programa arautzen duten oinarriak, eta beketerako deialdia egiten baita.

- y) Eusko Jaurlaritzak Oxford, Cambridge eta Glasgowko unibertsitateetara doazen ikertzaile bisitariarentzako ematen dituen laguntzak.»

Lau. Zenbaki bat —5. zenbakia— gehitu zaio 24. artikuluari, eta honela geratu da idatzita:

«5. 1. zenbakian ezarritakoa gorabehera, Zergari buruzko Foru Arauko 25. artikuluko 4. zenbakian ezarritako zerga-oinarrian aplikatu beharreko integrazio-portzentajeak jarduera ekonomikoen gainerako etekin garbiei aplikatu ahal izateko, jarduera orokorrean hartuta ezin berezizkoa izan behar da funtsen aplikazio eta lorpenen ziklo ondo definituetatik, bi urtetik edo bost urtetik gorako epea pasatu behar delarik etekina sortzen duen inbertsioan egiten denetik jasotzen den arte. Beraz, ezin izango zaizkie aplikatu diru-sarrerak sortzeko eragiketa jakin eta esklusiboak, modu isolatuan hartuta.»

Bost. Zenbaki bat —5. zenbakia— gehitu zaio 87. artikuluari, eta honela geratu da idatzita:

«5. Halaber, hurrengo letretan xedatutakoa aplikatu behar zaien zergadunek artikuluko honetako 1. zenbakiko a) letran xedatutakoa aplikatzeko eskatu ahal izango diote atxikipena egin behar duen pertsonari edo erakundeari, berezitasun hauekin:

- a) Zergari buruzko Foru Arauko 56.bis artikuluan xedatutakoa aplikatzea aukeratzen duten zergadunek %15eko murrizketa aplikatu beharko dute dagokion atxikipen-tasan.
- b) Zergari buruzko Foru Arauko 92.2 artikuluan xedatutakoa aplikatzea aukeratzen duten zergadunek %50eko murrizketa aplikatu beharko dute dagokion atxikipen-tasan.»

Sei. Letra bat —d) letra— gehitu zaio 107. artikuluko 1. zenbakiari, eta honela geratu da idatzita:

«d) Zergari buruzko Foru Arauko 92.2 artikuluan ezarritako nazioarteko zergapetze bikoitza saihesteko kenkaria aplikatzeko aukera.»

Zazpi. Xedapen gehigarri bat erantsi da, zortzigarrena, honela dioena:

«Zortzigarren Xedapen Gehigarria. Biziarteko errenta aseguratuen kontratuei dagozkien itzultze-mekanismoak, prestaziorako epe jakinak edo kontraaseguru-formulak

Zergari buruzko Foru Arauko laugarren xedapen gehigarrian aipatzen diren biziarteko errenta aseguratuen kontratuen gainean itzultze-mekanismoak, prestaziorako epe jakinak edo kontraaseguru-formulak badaude heriotza gertatzen denerako, betekizun hauek bete beharko dira:

- a) Aseguratua hiltzen den kasuetarako itzultze-mekanismoak daudenean, itzultzea eragin duen biziarteko errentaren onuradun potentzial bakarra egon ahal izango da.
- b) Prestaziorako epe jakinen kasuan, epe horiek 10 urtekoak izan daitezke gehienez, biziarteko errenta eratu zenetik.
- c) Kontraaseguru-formulen kasuan, aseguratua hiltzearen ondorioz guztira jaso daitekeen kopurua ez da izango ehuneko hauetatik gorakoa, biziarteko errenta eratzeko erabilitako zenbatekoa kontuan hartuta:

Urteak, biziarteko errentaren eraketatik	Portzentajea
1.a	95
2.a	90
3.a	85
4.a	80
5.a	75
6.a	70
7.a	65
8.a	60
9.a	55
10.etik aurrera	50

»

Zortzi. Zortzi. Xedapen Iragankor Bat gehitu da, zazpigarrena, hau dioena:

«Zazpigarren Xedapen Iragankorra.— 2019ko apirilaren 1a baino lehenagoko biziarteko errenta aseguratuen kontratuei dagozkien itzultze-mekanismoak, prestaziorako epe jakinak edo kontraaseguru-formulak

Erregelamendu honen zortzigarren xedapen gehigarrian xedatutakoa ez zaie aplikatuko biziarteko errenta aseguratutako gisa jasotzen diren bizi-aseguruei 2019ko apirilaren 1a baino lehen sinatu badira.»

13. artikulua. Sozietateen gaineko Zergari buruzko erregelamenduaren aldaketa; Bizkaiko Foru Aldundiaren 2013ko abenduaren 23ko 203/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen erregelamendu hori

2019ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioekin, aldaketa hauek egin dira Sozietateen gaineko Zergari buruzko Erregelamenduan (Bizkaiko Foru Aldundiaren 2013ko abenduaren 23ko 203/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen):

Bat. Aldatu egin da 21.bis artikulua, eta honela geratu da idatzita:

«21 bis artikulua.—Herrialdez herrialde eman beharreko informazioa

1. Zergari buruzko Foru Arauko 43.10. artikuluko 10. zenbakian ezarritako betebeharra aplikatu behar zaien erakundeek aitorten bat aurkeztu beharko dute, non herrialdez herrialde eman beharreko informazioa jasoko den. Aitorpena Ogasun eta Finantzen foru diputatuak onartutako ereduaren araberkoa izan behar da, eta ereduaren bertan zehaztuko da aitortzen nola aurkeztu behar den, zer

baldintza orokor bete behar dituen eta zer prozedura bete behar den bitarteko elektronikoak erabiliz aurkezteko.

2. Aurreko zenbakian adierazitako informazioa aurkezteko, talde multinazionalak taldekoa den mendeko erakunde bat izendatu duenean eta erakunde horrek ezin duenean informazio guztia eskuratu herrialdez herrialde eman beharreko txostena lege ezarritako eran aurkezteko, izendapen hori ez egindakotzat joko da. Hala ere, mendeko erakunde horrek daukan informazioa aurkeztu beharko du eta inguruabar horren berri eman beharko dio Zerga Administrazioari.

3. Zergari buruzko Foru Arauko 43.10 artikulua bigarren paragrafoan xedatutakoarekin bat etorrira Espainiako lurraldean egoiliar diren erakundeek edo Espainiako lurraldean dauden establezimendu iraunkorrek aurkeztu behar duten taldeari buruzko informazioa artikuluko horretan aipatzen den erakunde ez-egoiliarrari eskatu beharko diote erakundeek edo establezimendu iraunkorrek.

4. Herrialdez herrialde eman beharreko informazioa aurkezteko epea zergaldia amaitu eta hamabi hilabetera amaituko da.»

Bi. Aldatu egi da 49. artikulua, eta honela geratu da idatzita:

«49. artikulua.—Autolikidazioa aurkeztu gabe egotea, eta beste egoera batzuk 1. Zergaren borondatezko autolikidaziorako epean autolikidaziorik aurkeztu ez duten zergadunek ezin izango dituzte inola ere erabili Zergari buruzko Foru Arauko 128. artikuluko 2. zenbakiko bigarren lerroaldean aipatzen diren aukerak.

Zergari buruzko Foru Arauko 128. artikuluan jasotzen diren gainerako aukerak ere ezingo dituzte erabili, Zerga Administrazioak errekerimendurik egin badie.

2. Aurreko zenbakian xedatutakoa zergaren autolikidazioan zerga-oinarri positiborik aitortu ez duten zergadunei ere aplikatuko zaie, baina soilik, tributuen arloko kudeaketa- edo ikuskapen-prozedura baten ondorioz, Zerga Administrazioak zergaren zerga-oinarria positiboa dela ezarri duen kasuetan.»

XEDAPEN IRAGANKORRA

Xedapen Iragankor Bakarria. 2019. urtean Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezien arloan esku hartzeko eginkizunak egiteko aktuarioen izendapena

Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-ikuskapenaren erregelamenduko 66.5 artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira, ikuskatzaileburuak izendatuko ditu esku-hartzearen pean dauden establezimenduetako bakoitzean esku hartzeko jarduketaz arduratuko diren aktuarioak, 2019rako, foru-dekretu hau indarrean jarri eta hamar eguneko epearen barruan.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Xedapen Indargabetzaile Bakarria. Arauen indargabetzea

Foru dekretu honen artikuluen ondorioetarako dataz gero, indargabetuta geratuko dira beronetan xedatutakoari aurka egiten dioten lerrun bereko edo beheragoko xedapen guztiak eta, bereziki hauek: Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga Bilketari buruzko Erregelamendua, abenduaren 27ko 215/2005 Foru Dekretuaren bidez onetsitakoa, eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin laguntzaile diren finantza erakundeei buruzko ekainaren 6ko 54/1995 Foru Dekretuko II. kapitulua.

AZKEN XEDAPENAK

Azken Xedapenetako Lehena. Arauak emateko ahalmena

Ahalmena ematen zaio Ogasun eta Finantzen foru diputatuari, foru-dekretu hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan. Azken Xedapenetako

Bigarrena. Indarrean jartzea

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean foru-dekretu hau eta beraren artikuluetan berariaz ezarritako ondorioak izango ditu.

Bilbon, 2019ko abuztuaren 21an.

Ogasun eta Finantzen foru diputatua,
JOSÉ MARÍA IRUARRIZAGA ARTARAZ

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ

AZKEN ARAU-ALDAKETA: 2021/03/26
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO ZERGA-BILKETARI BURUZKO
ARAUDIA

ORNATUA

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN 125/2019 FORU DEKRETUA,
ABUZTUAREN 21EKOA. HONEN BIDEZ, BATETIK, BIZKAIKO LURRALDE
HISTORIKOKO ZERGA-BILKETARI BURUZKO ERREGELAMENDUA
ONESTEN DA; BESTETIK, UEFA EURO 2020 TXAPELKETAREN AZKEN
FASEAREN ARAUBIDE FISKALA GARATZEN DA, ETA, AZKENIK,
ALDATU EGITEN DIRA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO ZERGEI
BURUZKO 2005EKO MARTXOAREN 10EKO 2/2005 FORU ARAU
OROKORRA ADMINISTRAZIO BIDEKO BERRIKUSPENAREN ARLOAN
GARATZEKO ERREGELAMENDUA, BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO
ZERGA-IKUSKAPENAREN ERREGELAMENDUA ETA PERTSONA
FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGAREN ETA SOZietATEEN
GAINEKO ZERGAREN ERREGELAMENDUAK.
BAO ABUZUTAREN 23KOA

I. TITULUA
XEDAPEN OROKORRAK

I. KAPITULUA
ARAU ERKIDEAK

1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua

1. Araudi honek zergen arloko zorrak eta zehapenak eta zuzenbide publikoko gainerako baliabideak kobratzeko administrazio-eginkizunak garatzen ditu, eta foru sektore publiko administratiboari aplikatu behar zaio.

Araudi honen ondoreetarako, zerga-sarreraren eta zuzenbide publikoko gainerakoien ziozko kredituei aurrerantzean zorrak deituko zaie, eta ordaintzera behartutako pertsonak izango dira kasuan kasuko arautegiaren arabera aipatu zorrei dagokienez zenbatekoren bat ordaindu behar duten pertsonak edo erakundeak.

2. Bizkaiko Foru Aldundiak Estatuaren lurralde osoan erabiliko ditu zerga-bilketaren arloan dituen eskumenak, Ekonomia Itunean xedatutakoarekin bat etorritik.

II. KAPITULUA
ZERGA-BILKETAKO ORGANOAK

2. artikulua Zerga-bilketako organoak

1. Araudi honetan xedatutakoaren ondoreetarako, zerga-bilketako organoak dira Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 164. artikuluan aurreikusitako eginkizunetan jarduten duten administrazio-organoak. Zehazki, zerga-bilketako organotzat joko dira:
 - a) Ogasun eta Finantzen foru diputatua, Ogasuneko zuzendaritza nagusia eta Zerga-bilketako zuzendariordetza.
 - b) Zerga-bilketako zuzendariordetza osatzen duten zerbitzuetako burutzak (aurrerantzean, zerbitziburutzak).

2. Zerga-billetaren arloko eskumenak artikulu honetako aurreko zenbakian aipatzen diren Zergen arloko Foru Administrazioako organoen artean banatzeko, Ogasun eta Finantzen Sailaren Egitura Organikoari buruzko Araudian eta hura garatzen duten xedapenetan ezarritakoa aplikatuko da.
3. Zerga-billetako organoei atxikita dauden langileek identifikazioaren bat edukiko dute euren eginkizunetan aritzeko. Bulego publikoetatik kanpo aritzen direnean, langile horiek nor diren frogatu beharko dute eskatzen zaien guztietan.
4. Sailen edo foru erakunde autonomoen jarduketari dagozkien diru-sarrerak haien titularra den sailak edo erakundeak bilduko ditu, horretarako baimena ematen bada Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren foru agindu bidez, Aurrekontuei buruzko Foru Arau Orokorraren testu bateginaren 18.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz.
5. Ogasun eta Finantza Sailak bere gain hartu ahal izango du beste administrazio publiko edo erakunde publiko batzuen baliabideak biltzeko ardura, horretarako hitzarmen egokiak eginda.

Halaber, beste administrazio publiko batzuen zerga-billetan lankidetzan aritzeko jarduketak burutuko ditu, legeek edo foru arauak ezartzen dituztenak.

III. KAPITULUA ZERGA-BILKETAKO ORGANOEI AHALMENAK

3. artikulua. Informazioa eskuratzea

1. Zerga-billetako organoek euren eginkizunak burutzeko behar duten informazioa eskuratu ahal izango dute, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 92. eta 93. artikuluetan ezarritakoa betez.
2. Finantza-erakunde eta -establezimenduen betebeharra izango da informazioa ematea, zerga-billetako organoek hala eskatuz gero, zordunen kontu korrante, gordailu-kontu, aurrezki-kontu, eperako kontu eta mailegu edo kredituen kontuetako saldoei buruz eta gainerako eragiketa aktibo eta pasiboari buruz, banaka zein multzoka hartuta, bai eta hirugarren pertsonen gaineko informazioa ere, zordunekin lotura badute, eta, halaber, segurtasun-kutxen, salmenta-puntuako terminalen, kreditu- eta zordunketa-txartelen eta horiekin lotutako produktuen zerbitzu-kontratu guztiei buruzko informazioa ematea.
3. Ordainarazpen-aldian zordun direnei edo horien eragiketekin zerikusia duten hirugarren pertsonari buruzko bankuen, aurrezki kutxen, kreditu kooperatiben eta banku- edo kreditu-trafikoan aritzen diren erakundearen kontu korrante, aurrezki eta eperako gordailu, mailegu eta kreditu kontuetako mugimenduari eta gainerako eragiketa aktibo eta pasiboari (kontu iragankorretan islatzen edo txeketan eta bestelako ordainketa-aginduetan gauzatzen diren eragiketak barne) buruzko banakako errekerimenduak zerga-billetako eginkizunetan jardutean egin daitezke, Ogasuneko zuzendaritza nagusiak baimena eman ondoren. Errekerimendu horiei erantzuteko bitarteko elektronikoak erabili beharko dira.
4. Zerga-billetako organoei atxikita dauden langileek zorra kobratzeko edo zerga-erantzukizuna deklaratzeko beharrezkoak diren ikerketak eta informazioa lortzeko jarduketak burutuko dituzte, eta gai bakoitzerako adituen laguntza izan dezakete. Eginkizun horretarako, hain zuzen, zergapekoen eta horien eragiketekin zerikusia duten hirugarren pertsonen ondasun, eskubide eta erregistroei dagokienez honako hauek aztertuko dituzte: batetik agiriak, liburuak, kontabilitate orokorra eta lagungarria, fitxategiak, fakturak, egiaztagiriak, zerga-eragina duen posta, informatizatutako datu-baseak, programak, erregistroak eta jarduera ekonomikoari buruzko artxibo informatikoak, eta bestetik ondasunak, elementuak, ustiapenak eta zerga-betebeharrak galdatzeko Administrazioari eman behar zaizkion edo beharrezkoak diren aurrekari edo informazio guztiak.
5. Zerga-billetako organoek eskatutako informazioa horretarako jakinarazpena jaso bezain laster eman beharko da, agindu hori ezin dela berehala bete behar bezala frogatzen duten

arrazoiaik daudenean izan ezik; kasu horretan, gehienez hamar egun balioduneko epea eman ahal izango da eskatutakoa betetzeko.

4. artikulua. Finketan eta lokaletan sartzea

1. Zerga-bilketako jarduketak egiteko beharrezkoa denean, zerga-bilketako organoei atxikitako langileak finketara, negozio-lokaletara eta jarduera ekonomikoak egiten diren gainerako establezimendu edo tokietara sartu ahal izango dira, betiere hori komenigarritzat jotzen badute, zorra kobratzea xede duen edozein jarduketa egiteko. Bereziki, zerga-bilketan jarduteko beharrezkoak izan litezkeen ondasun eta eskubideak bertan egotearen zantzurik ageri den leku guztietara sartu ahal izango dira.
2. Pertsona interesdunek euren bulegoetara sartzen utzi beharko diete zerga-bilketako organoei atxikitako langileei, eta bulego horietan Zerga Administrazioaren eskura eduki beharko dituzte euren kontabilitatea eta euren negozioari buruzko dokumentu eta egiaztagiria, enpresa bakoitzerako onartutako lanaldian zehar.
3. Ogasuneko zuzendaritza nagusiaren baimena beharko da, baldin eta jarduera ekonomikorik egiten ez den finka edo tokiren batera sartu eta bertan azterketa egiteko asmoa badago eta pertsona interesdunak edo finkak zaintzen dituen pertsonak ez badie sartzen utzi nahi zerga-bilketako organoei atxikitako langileei. Horrez gain, betiere, bidezkoak izan litezkeen kautelazko neurriak hartu ahal izango dira.
4. Zergapekoaren egoitza Konstituzioaren babespean egonda, bertara sartu eta azterketa egin beharra dagoenean, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Arau Orokorraren 111. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da. Horretarako, pertsona interesdunari berariaz galdetuko zaio ea sartzeko baimena ematen duen, eta bere eskubideez ohartaraziko zaio. Hala ere, pertsona interesdunak edo finkak zaintzen dituen pertsonak bertara sartzeko edota azterketa egiteko baimena ematen duela pentsatuko da baldin eta eragiketa horiek burutu ahal izan daitezkeen normalean beharrezkoak izaten diren egintzak egiten baditu, bere esku daudenak betiere. Interesdunaren baimenik lortzen ez bada, Ogasuneko zuzendaritza nagusiak manamendu-eskaera helaraziko dio kasuan kasuko agintari judizialari. Zerga-bilketako organoei atxikitako langileek egindako txostena bidaliko dio eskaerarekin batera, dagokien burutzak ontzat emanda.
5. Baldin eta, aurreko 3. eta 4. zenbakietako kasuren batean, zergapekoak errebokatu egiten badu jarduketak egiten ari diren tokietan egoteko emandako baimena, zerga-bilketako organoei atxikitako langileek, jarduketak amaitu baino lehen, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 142. artikuluan eta araudi honen 5. eta 6. artikuluetan araututako kautelazko neurriak hartu ahal izango dituzte.

5. artikulua. Frogabideak bermatzeko kautelazko neurriak

1. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 166. artikuluan xedatutakoa betez, jarduketak burutu behar dituzten zerga-bilketako organoei atxikitako langileek arau horren 142. artikuluan aipatzen diren frogabideak bermatzeko kautelazko neurriak hartu ahal izango dituzte.
2. Hartzen den neurriaren eta lortu nahi diren helburuen izaeraren eta hedapenaren artean proportzionaltasuna egon beharko da, eta, betiere, interesdunaren jardueraren ohiko garapena ahalik eta gutxien eragotziko da.
3. Hartzen diren neurri horiek behar bezala dokumentatuko dira; hau da, eginbide batean labor jasoko dira neurriak hartzea eragin duten inguruabarrak, arrazoiaik eta helburua. Halaber, interesdunari ohartaraziko zaio alegazioak aurkezteko eskubidea duela, hurrengo zenbakian adierazitakoaren arabera. Kautelazko neurriak hartzen diren unean bertan egingo da eginbidea; baina interesdunaren jarreragatik edo Administrazioari ezin egotz dakizkiokeen arrazoiengatik orduan egin ezin bada, geroago egingo da. Nolanahi ere, eginbidea egin eta segidan horren kopia bat bidaliko zaio interesdunari edo horren ordezkariari.

Ondasunak gordailutzeko neurria hartzen denean, gordailuzaina nor den adierazi eta horren berriazko onarpena jaso beharko da; halaber, jasota utziko da ohartarazi zaiola gordailututako elementuak emandako modu berean gorde beharko dituela Zerga Administrazioaren esku, eta bere betebeharrak betetzen ez baditu administrazio-erantzukizunak edo zigor-erantzukizunak izango dituela.

4. Kautelazko neurria hartu den unean interesduna edo horren ordezkaria bertan izan ez bada, jakinarazi egingo zaie. Haiak, bestalde, neurri horri buruz bidezkotzat jotzen dituzten alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte kasuan kasuko zerbitzuko burutzaren aurrean, jakinarazpena egin eta biharamunetik zenbatzen hasiko den bost eguneko epe luzaezinean.

Jarduketak interesdunarekin edo horren ordezkariarekin konpontzen direnean, edo neurria hartzean horietariko bat aurrean dagoenean, aurreko zenbakian aipatutako eginbidearen kopia ematean jakinarazpena egin dela ulertuko da.

5. Zerbitzuko burutzak behar bezala arrazoitutako erabakiaren bidez berretsi, aldatu edo kenduko ditu hartutako neurriak, hartu diren egunetik hamabost eguneko epea igaro baino lehen.

6. artikulua. Zorren kobrantza bermatzeko kautelazko neurriak

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 81. artikuluan ezarritako xede eta betekizunekin hartzen diren kautelazko neurriak kasuan kasuko zerga-bilketako organoak erabakiko ditu; era berean, organo horrek hartuko du neurrien iraupena beste sei hilabetez luzatzeko erabaki arrazoitua eta neurriak kendu edo aldatzeko erabakia.

IV. KAPITULUA ZERGA-BILKETAKO ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

7. artikulua. Zerga-bilketako erakunde laguntzaileak

1. Zerga-bilketan laguntzeak esan nahi du Bizkaiko Foru Aldundiaren zerga-kredituen eta zuzenbide publikoko nahiz pribatuko gainerakoen zenbatekoa jaso ahal izatea, horretarako ezartzen diren zerga-bilketako kontuak irekita.
2. Zerga-bilketako erakunde laguntzaile gisa jardun dezakete Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko ekainaren 26ko 575/2013 (EB) Erregelamenduaren 4. artikuluko 1.1) apartatuan aipatzen diren kreditu-erakundeek, horretarako baimena jasotzen badute Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren foru agindu bidez, eta Erakunde Laguntzaileen Erregistro Berezian inskribatuta badaude.

Zerga-bilketako erakunde laguntzaile bihurtzeko ezinbesteko baldintza izango da tributuen aplikazioa modernizatzeko ezarritako prozedura elektronikoei atxikitzea, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak foru agindu bidez araututako moduan. Gainera, Bizkaiko Lurralde Historikoan bulego bat gutxienez eduki beharko dute, salbu eta sinadura elektronikoa badaukate dokumentuak bidaltzeko.

3. Zerga-bilketako laguntzaile bihurtzen diren erakundeei aldian aldiko egiaztapenak edota egiaztapen bereziak egin ahal izango zaizkie, zerga-bilketako organoek hala agintzen badute, haien jardunaren kontrola eta jarraipena bermatzeko, zerga-bilketako laguntzaileak diren aldetik. Egiaztapen horietan eragiketa jakinei buruzko dokumentazioa aztertu ahal izango da, edo erakunde horiek zerga-bilketan laguntzeko denboraldi jakin batean egin duten lana ere aztertu ahal izango da.

Egiaztapenak egiteko izendatutako funtzionarioek eskatzen dituzten dokumentu guztiak haien eskura jarri beharko dituzte erakundeek, zerga-bilketako laguntzaileak diren aldetik egindako jardura dela eta. Bereziki, kontu korronte murriztuen laburpenak, kontuetako sarreren agiriak eta sarreren frogagiriak eman beharko dizkiete. Gainera, erakundeek euren

erregistro informatikoetara sartzen utzi beharko diete, laguntzaile diren aldetik egindako eragiketei dagokienez.

Horretarako, erakundeek konpromisoa hartuko dute Bizkaiko Foru Aldundiaren kontuetako edozeini buruz aldian-aldian eskatzen zaien informazio xehakaturik emateko.

4. Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren foru agindu baten bidez ezarriko da zerga-bilketako erakunde laguntzaile izateko baimena emateko prozedura, bai eta hura aldatu, baliozkotu, ezereztu, eten edo errebokatzea ere.

8. artikulua. Argitaratzea

Erakunde laguntzaile izateko baimena eman, aldatu, baliozkotu, ezereztu, eten edo errebokatzen denean, erabakia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Erakunde laguntzaileen zerrenda eguneratuta edukiko da Bizkaiko Foru Aldundiaren web-orriaren bitartez.

9. artikulua. Laguntza zerbitzuaren edukia

1. Zerga-bilketako laguntzaile bihurtzen diren erakundeek arautegian ezarritako sarrerak jaso beharko dituzte. Erakunde laguntzaileek sarrera horiek onartuko dituzte bezeroentzat zabalik dauden eta kutxa zerbitzua ematen den bulegoetan, zerbitzu hori ematen den ordutegi osoan, eta, sarrera bide elektronikotik egiten denean, 24 orduetan.
2. Sarrerak kontu murriztuetan egingo dira; kontuen izena eta funtzionamendua Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren foru agindu bidez arautuko dira. Sarrera zein egunetan egiten den, egun horretako balorazio-datarekin aplikatuko da.
3. Sartzen diren unetik hasi eta adierazitako kontura intsuldatu arte, diru kopuruak Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasuneko kontu korrante murriztuan egongo dira. Hala ere, kontu horrek ez du inongo korriturik sortuko Foru Aldundiarentzat.

Sarrera motak bereizi ahal izan daitezken, baimena eman ahal izango da finantza-erakunde berean hainbat kontu murriztu sortzeko.

4. Erakunde laguntzaileek adierazten den kontu korrantean sartuko dituzte, hil bakoitzaren 1eko eta 15eko balorazio-datarekin eta egun horietan edo hurrengo egun baliodunetan, hil bakoitzaren 11tik 25era bitartean eta hurrengo hilaren 26tik 10era bitartean edo hurrengo egun baliodunen artean bildutako diru kopuruak, hurrenez hurren. Horretatik salbuetsiko dira abenduaren 11tik 25era bitartean edo hurrengo egun baliodunetan bildutako diru kopuruak, horiek hil beraren 31n edo hurrengo egun baliodunetan sartuko baitira, abenduaren 31ko balorazio-datarekin.

Aurreko paragrafoan ezarritakoez bestelako sarrera-epeak ezarri ahal izango dira Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren foru agindu bidez.

5. Adierazten diren kontu korranteetan ez bada sarrerarik egiten horretarako ezarritako epean, edo zati bat baino sartzen ez bada, berehala galdagarria izango da sarrera hori.

Ogasun eta Finantza Sailak ordaintzeko errekerimendua egingo dio erakunde laguntzaileari, eta bi egun balioduneko epea emango dio sarrera egiteko. Sarrera egin eta gero, ordura arte sortutako berandutze-korrituak likidatuko dira, eta likidazioa erakundeari jakinaraziko zaio.

Aurreko paragrafoan aipatutako epea igarotzen bada sarrerarik egin gabe, zor den diru kopurua premiamendu-bide administratibotik eskatuko da.

II. TITULUA ZORRA

I. KAPITULUA ORDAINKETA

1. ATALA ORDAINKETA

10. artikulua. Ordaintzeko legitimazioa

1. Edozein pertsonak egin dezake ordainketa, obligazioa betetzeko interesa duen ala ez duen alde batera utzita, ordaintzera behartua dagoenak ezagututa edo onartuta ala jakin gabe.

Zorra ordaintzen duen hirugarrena inoiz ere ez da legitimaturik egongo ordaintzera behartuta dagoenari dagozkion eskubideak Administrazioaren aurrean erabiltzeko. Hala eta guztiz ere, eskusiboki ordainketa-egintzan bere alde sortutako eskubideak erabil ditzake.

2. Ordainketak jasotzeko eskumenik ez duten organoei edo horretarako baimenik ez duten pertsonari egiten zaizkien ordainketek ez dute zorduna ordaintzeko beharretik aske utziko, behar ez den hartzaileak izan ditzakeen erantzukizunen kalterik gabe.

11. artikulua. Ordaintzeko moduak

Zorrak eskudirutan, efektu tinbredunen bidez eta gauzen bidez ordaindu ahal izango dira.

12. artikulua. Eskudirutan ordaintzeko lekua

1. Zorren eskudiruzko ordainketa zerga-bilketako erakunde laguntzaileetan egin beharko da, zuzenean edo bitarteko elektronikoen bidez, arautegi indardunean horrela aurreikusten denean.

Ordaintzeko beste leku batzuk baimendu ahalko dira Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren foru agindu bidez.

2. Edozein epe egun baliogabe batean amaitzen bada, mugaeguna hurrengo egun baliodunera igaroko da.

13. artikulua. Eskudirutan ordaintzeko bideak

1. Zorrak eskudirutan ordaintzeko behean adierazten diren bideetako bat erabili ahal izango da, betiere araudi honetan eta berau garatzen duten foru aginduetan horietariko bakoitzerako ezartzen diren betekizunak eta baldintzak betez:

- a) Legezko dirua.
- b) Banku-txekea.
- c) Banku-helbideratzea.
- d) Zordunketa kontuan.
- e) Banku-transferentzia.
- f) Kreditu- eta zorduntze-txartelak.
- g) Ogasun eta Finantzen foru diputatuak foru agindu bidez baimentzen duen beste edozein bitarteko.

Erakunde laguntzaileak onartzen duen beste edozein ordainbide ere onargarria izango da, eta erakundearen erantzukizuna izango da Zerga Administrazioan sarrera egitea.

2. Zerga arlokoak ez diren zorrak eskudirutan ordaintzeko, kasuan kasuko araudiak baimentzen dituen bideak erabili ahal izango dira. Arau berezirik ezarri ezean, aurreko 1. zenbakian aipatutako bideak erabili ahal izango dira ordaintzeko.
3. Sarrera bera egiteko ezin izango da ordainbide bat baino gehiago aldi berean erabili.

14. artikulua. Eskudirutan ordaintzeko unea

1. Zorra eskudirutan ordaindu dela ulertuko da zorrari dagokion zenbatekoa zerga-bilketan laguntzen duten erakundeetan edo ordainketa jasotzeko baimenduta dauden beste pertsona edo erakunde batzuen bidez ordaintzen denean.
2. Zerga-bilketako erakunde laguntzaileen bidez edo baimendutako beste pertsona edo erakunde batzuen bidez ordaintzen denean zorra, zordunari ordainketaren frogagiria emango zaio; horrela, zorduna frogagiria egin den egunetik bertatik zorra ordaindu beharretik aske geldituko da, bertan adierazten den zenbatekoagatik betiere. Bestalde, zordunak frogagiria jasotzen duen unetik erakundea edo finantza-bitartekaria Zerga Administrazioaren aurrean behartuta egongo da bertan adierazten den zenbatekoagatik, frogagiriaren balidazioan agertzen den data edo zenbatekoa oker dagoela modu sinesgarrian frogatzen ez bada behintzat.
3. Ordaintzera behartuta dagoen pertsonak ordainketa jasotzeko baimenduta dauden erakunde edo pertsonen emandako ordainketa-aginduek ez dute berez ondorioz izango Zerga Administrazioan; hori gorabehera, ordainketa-agindua egiten duen pertsonak dagozkion akzioak baliatu ahalko ditu ez- betetzearen erantzulea den erakundearen edo pertsonaren aurrean.
4. Ordaintzera behartuta dagoen pertsonak zor osoa edo zati bat ordaindu nahi badu, Foru Administrazioak aldeztu aurretik eman dion erreferentzia adierazi beharko du horretarako, edo Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren foru agindu bidez onetsitako zerga-eredua erabili beharko du.

15. artikulua. Txeke bidez ordaintzea

1. Kasu honetan bakarrik onartuko da txeke bidez ordaintzea: zerga-bilketako organo eskudunak baimena eman behar badu kobratzen den unean ondasunen gaineko kargak ezerezteko.
2. Txeke bidezko ordainketek baldintza hauek bete beharko dituzte, merkataritzako legerian ezarritako baldintza orokorrekin gainera:
 - a) Bizkaiko Foru Ogasunarentzako txeke izenduna eta zeharkatua izatea.
 - b) Igortzailearen izena edo sozietate-izena agertzea, sinaduraren azpian oso argi.

16. artikulua. Banku-helbideratzearen bitartez ordaintzea

1. Ordainketa banku-kontuan helbideratu ahal izango da, ordaintzera behartuta dagoen pertsonak honako betekizun hauek betetzen baditu:
 - a) Ordainketa helbideratu den kontuaren titularra izan behar du, eta kontu hori zerga-bilketan laguntzen duen entitate batean irekita eduki behar du.

Aurreko paragrafoan ezarritakoez bestelako baldintzak eta betekizunak ezarri ahal izango dira Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren foru agindu baten bidez.

- b) Helbideratzeko aginduaren berri eman behar dio Zerga Administrazioari; horretarako, Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren foru agindu bidez kasu bakoitzerako ezartzen diren prozedurak beteko ditu.
 - c) Helbideratze-kontuaren IBAN kodea adierazi behar du, eta, kontuaren titulartasuna ez badago lehendik jasota Zerga Administrazioan, justifikatu egin beharko du titulartasun hori.
2. Ordainketaren frogagiritzat joko da erakundeak berariaz egindakoa, adierazitako banku-kontuan zordunketa egin ondoren.
 3. Aldizkako epemuga duten eta taldeka jakinarazten diren sarrerak direnean, edo ordainketa geroratzen denean, hirugarren pertsona baten titulartasuneko kontu batean helbideratu ahal izango da ordainketa, hark baimena ematen badu. Hori mugaeguna baino hamabost egun lehenago, gutxienez, egin beharko da.

17. artikulua. Banku-helbideratzeak kontuan zorduntzeko datak

1. Zerga Administrazioak epe hauetan egin ahal izango du helbideratzeen zordunketa ordaintzera behartuta dagoen pertsonak emandako banku-kontuan:
 - a) Borondatez ordaintzeko epean eta baliabide elektronikoen bidez aurkeztutako autolikidazioen kasuan, zerga edo sarrera publiko bakoitza arautzen duen arautegian zehaztutako epeak amaitu eta hurrengo hiru egun balioduneko epearen barruan.
 - b) Ordainarazpen-aldian baliabide elektronikoen bidez aurkeztutako autolikidazioen kasuan eta borondatezko epean ordaintzeko data autolikidazio bakoitzerako ezarrita duten autolikidazioei dagozkien kasuan, ondoren adierazten diren bi egunetatik aurkezpen-datatik hurbilen dagoenetik hurrengo hiru egun baliodunetara bitartean:
 - Unean uneko hilaren 25a edo horren osteko lehen egun balioduna.
 - Unean uneko hilaren 10a edo horren osteko lehen egun balioduna.
 - c) Aldizkako epemuga duten eta taldeka jakinarazten ez diren zorren kasuan, hil bakoitzaren 10a edo 25a edo egun horren osteko lehenengo egun balioduna, eta hurrengo hiru egun baliodunak.
 - d) Ordainketa geroratu edo zatikatuetarako, hil bakoitzaren 25a edo horren osteko lehen egun balioduna, eta hurrengo hiru egun baliodunak.
2. Helbideratzeen izapidetzea dela-eta ezin bada zordunketa egin aurreko zenbakian adierazitako epeetan, beste egun batean zorduntzeko baimena eman ahal izango du Ogasun eta Finantzen foru diputatuak.
3. Ordaintzera behartuta dagoen pertsonak zorraren zenbatekoa besteko saldoa edo gehiago eduki behar du helbideratze-kontuan 1. zenbakian aipatzen diren epeen barruan.

Zorduntze egunean behar besteko saldorik ez badago helbideratze-kontuan, ez da zorraren sarrerarik egingo.
4. Kontuan zordunketarik egiten ez bada edo zorduntzea artikulua honetan ezarritako epetik kanpo egiten bada ordaintzera behartuta dagoen pertsonari ezin egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, berari ez zaio arrazoi horrengatik errekar gurik, berandutze- korriturik edo zehapenik ezarriko; erakunde arduradunari ordainketa atzeratzeagatik likidatu behar zaizkion berandutze-korrituen kalterik gabe, halakorik egonez gero.
5. Ez da itzulketarik onartuko zerga-bilketako erakunde laguntzaileetako helbideratzeetan, salbu eta saldo nahikorik ez egoteagatik, kontua itxita egoteagatik edo konturik ez egoteagatik.

18. artikulua. Aldizkako epemuga duten eta taldeka jakinarazten diren zorrak ordaintzea

1. Aldian behingo epemuga duten eta taldeka jakinarazten diren zorrak ordaintzeko borondatezko epea irailaren 10ean hasiko da, eta urriaren 10ean amaituko, edo, urriaren 10a baliogabea bada, horren osteko lehen egun baliodunean.
2. Aparteko inguruabarrak gertatzen direnean, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak aurreko zenbakian adierazitako epeak aldatu ahal izango ditu.
3. Zerga Administrazioak, kasuan kasuko eroldarekin edo matrikularekin batera, aldizkako epemuga duten eta taldeka jakinarazten diren zorrak ordaintzeko borondatezko epea iragarriko du, eta ohartaraziko du ezen, epe horretan zor osoa ordaindu ezean, epe hori amaitutakoan ordaindu gabeko zorraren ordainarazpen-aldia hasiko dela.

19. artikulua. Kreditu- edo zordunketa-txartelaren bidez eta kontuko zordunketaren bidez ordaintzea

1. Onartuko da kreditu- eta zordunketa-txartelaren bidez ordaintzea, Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren foru agindu bidez zehazten diren baldintzekin eta gehieneko zenbatekoekin, zehazten diren kreditu-erakundeetan. Erabiltzen den txartela, betiere, erakunde horiek une bakoitzean xede horretarako onartzen dituztenetarikoa izan beharko da.
2. Onartuko da kontuko zordunketaren bidez ordaintzea, Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren foru agindu bidez ezartzen diren baldintzetan. Hori Foru Administrazioaren egoitza elektronikoaren bitartez egiten denean, Foru Administrazioa zordunaren eta kontuaren titularraren nortasunaren erantzulea izango da.

20. artikulua. Banku-transferentziaren bidez ordaintzea

Onartuko dira banku-transferentziaren bidezko ordainketak, Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren foru agindu bidez ezartzen diren baldintzak eta betekizunak betetzen badira, eta aurrez baimena emanda. Baimen horretan beti agertuko dira sarrera egin behar den kontua eta erreferentzia.

Kasu horretan, ordainketa egintzat joko da transferentziarako adierazitako kontuan zenbatekoa sartzen den egunean, eta ordaintzera behartuta dagoen pertsona, une horretatik aurrera, sartutako diru kopurua ordaindu beharretik aske geratuko da Ogasun publikoaren aurrean.

Ordaintzeko modu hori bitarteko elektronikoaren bidez erabiltzeko baldintzak ezarriko ditu Administrazioak, kasua bada.

Zerga Administrazioak aurretik baimenik eman gabe egiten diren transferentziek ez dituzte ordaindu beharretik askatuko ordaintzera behartuta dauden pertsonak.

21. artikulua. Gauzen bidez ordaintzea

1. Salbuespenezko kasuetan, edozein ondasun edo eskubide onartu ahal izango da zerga-zorrak eta zuzenbide publikoko gainerakoak ordaintzeko.
2. Borondatez ordaintzeko epean nahiz ordainarazpen-aldian, zorrak ondasun edo eskubideen bidez ordaindu nahi dituen zergapekoak Zerga-bilketako zuzendariordezari idatziz egingo dio eskabidea; eskabidearekin batera, gainera, eskaintzen dituen ondasun edo eskubideen deskribapen zehatza eta balorazioa aurkeztuko ditu.

Baldin eta, borondatezko epean, zorrak ondasun edo eskubideen bidez ordaintzeko eskaera aurkezten bada aurreko paragrafoan aipatutako agiriarekin batera, ez da ordainarazpen-aldirik hasiko.

Zorraren ordainean ondasunak edo eskubideak emateko eskaera Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 60.3 artikuluan ezarritako epea amaitu baino lehen aurkeztu denean, ez da hasiko zordunaren ondarearen kontrako exekuziorik, eta errekaru exekutiboa eskatu ahal izango da.

Enbargatutako edo berme gisa eskainitako ondasunak besterentzeko erabakia hartzeko den administrazio-egintza ordaintzera behartuta dagoen pertsonari jakinarazten zaion unera arte aurkeztu ahal izango da ordainarazpen-aldiko eskabidea, eta ez du ondorio etengarririk izango; hala ere, Zerga- bilketako zuzendariordetzak erabaki dezake aipatutako ondasun edota eskubideak besterentzeko jarduketak prozedura amaitu arte etetea.

3. Foru arau bidez kontrakoa ezartzen ez bada, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak izango du zorra ordaintzeko eskaintzen diren ondasunak edo eskubideak onartzeko edo ez onartzeko zuzentzailearen eskumena; horretarako, bada, bidezkoztat jotzen diren txostenak eskatu ahal izango ditu eta ondasunak beharrezkoa den denborarako emateko eskatu, haiek balora daitezen edo eskaera ebatzi arte zain daitezen.
4. Ogasun eta Finantzen foru diputatuak gehienez sei hilabeteko epea izango du eskabidea ebazteko. Epe horretan ebazpenik eman ezean, eskaera ezetsizat joko da. Eskabidea onartzeko edo ezesteko erabakiaren egunera arteko berandutze-korrituak eskatuko dira.
5. Eskabidea onartzen bada, ondasunak edo eskubideak hilabeteko epea igaro baino lehen eman edo eskura jarri beharko zaizkio Zerga Administrazioari, eskabidea onartzeko erabakia jakinarazten denetik zenbatuta. Epe hori arrazoituta luzatu ahal izango da, epearen erdia, gehienez. Kasu horretan, berandutza-interesak sortuko dira luzatutako epean.

Eskabidea onartzea erabakitzen bada, estalitako zorrak ordaindutat joko dira ondasun edo eskubideak ematen edo eskura jartzen diren unetik aurrera. Erabaki horretan bertan, ordainean emandako ondasuna berandutze-korrituak kitzeari lotu ahal izango zaio, ondasun edo eskubide horren balioa nahikoa izanez gero.

Ondasun edo eskubideak aipatu epealdian ematen edo eskura jartzen ez badira, erabakia bertan behera geldituko da eta berehala ekingo zaio ordainarazpen-aldiari (eskabidea borondatez ordaintzeko epealdian aurkeztu bazen).

6. Zerga Administrazioa ez badago ordaintzera behartutako pertsonak eman duen balorazioarekin ados, gauzen bidez ordaintzeko onartzen den balioa zein den jakinaraziko dio behartuari, eta hamar eguneko epea ezarriko dio ados dagoen azaltzeko. Epe horretan balorazioa onartu ezean, gauzen bidez ordaintzeari uko egin diola ulertuko da, eta ezespene-ebazpena emango.
7. Ezespene-ebazpena ematen bada, edo zorraren balioa baino balio txikiagoa onartzen bada, ondasun edota eskubideen bitartez kitatu gabe geratu den zenbatekoa Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 60. artikuluan ezarritako epeetan ordaindu beharko da. Eskabidea ordainarazpen-aldian aurkeztu bada, ordura arte etenda egon diren enbargatutako ondasunak besterentzeko jarduketei berriz ekingo zaie.
8. Ordaintzeko konpromisodun akta batetik datorren zenbatekoa gauzen bidez ordaindu nahi bada, akta hori sinatu aurretik aurkeztu beharko da horretarako eskaera; horrela, eten egingo da eraturako gordailuaren aplikazioa, urtarrilaren 24ko 5/2012 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga Ikuskapenaren Araudiaren 45.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, harik eta aurkeztutako eskaera ebatzen den arte.

Gauzen bidez ordaintzeko eskaera onartzen ez bada, eraturako gordailua zor den zenbatekoa kitzatzeko erabiliko da, gauzen bidez ordaintzeko eskaerarik aurkeztu izan ez balitz hura aplikatuko zatekeen egunetik aurrerako ondorioekin; eta eskaera onartzen bada, ondasuna edota eskubidea ematen denean itzuli egingo da eraturako gordailua, eta ez da berandutze-korriturik sortuko zergapekoarentzat.

9. Aurretik ezetsi diren beste eskaera batzuk errepikatuz, berriro aurkezten bada gauzen bidez ordaintzeko eskaera, hura ez da onartuko, ez bazaio funtsezko aldaketarkegin aurretik ezetsitako eskaeraren aldean, eta, batez ere, errepikatze horren xedea zerga-bilketaren kudeaketa luzatu, zaildu edo eragoztea bada.

Eskaeraren xedea zerga-bilketaren kudeaketa luzatu, zaildu edo eragoztea dela pentsatuko da lehengo eskaeretan jada eskaini diren edo lehengo zor berei dagozkien ondasun edo eskubideak berriro eskaintzen direnean.

Eskaera ez onartzeak berekin ekarriko du eskaera aurkeztu gabekotzat jotzea ondorio guztietarako. Ez onartzeko erabakiaren aurka administrazioarekiko diru-errekurtsoa edo -errekamazioa jarri ahal izango da.

22. artikulua. Efektu tinbredunen bidez ordaintzea

1. 1. Efektu tinbredunak dira:
 - a) Paper tinbredun arrunta.
 - b) Agiri tinbredun bereziak.
 - c) Ogasun eta Finantzen foru diputatuak zehazten dituen gainerakoak.
2. Efektu tinbredunak ordaintzeko erabili ahalko dira, soil-soilik, hala zehazten den kasuetan, eta, betiere, zorrak borondatez ordaintzeko aldian.
3. Efektu tinbredunen erabilera, forma, estanzioa, ikus-onespena, baliogabetzea, truke baldintzak eta gainerako ezaugarriak ordainbide hori onartzen duten tributuei eta zuzenbide publikoko gainerako baliabideei buruzko xedapenen bidez eta araudi honetako xedapenen bidez arautuko dira.
4. Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren foru agindu bidez sortu eta aldatuko dira efektu tinbredunak, eta zenbaki korrelatiboak izango dituzte, diputatuak finkatzen duen zifra baino txikiagoak direnean izan ezik.
5. Tributuei eta zuzenbide publikoko gainerako baliabideei buruzko arauen aldaketaren ondorioz efektu tinbredunak ezegokiak gertatzen direnean, zirkulaziotik kenduko dira, halako moduan non bermatu egingo baita haiek suntsitzea.
6. Zirkulaziotik kendutako efektu tinbredunen jabe diren pertsonak horien truke indarrean dauden beste batzuk lortu ahal izango dituzte, baldin eta erabili direlako aztarnarik ez badute.

Paper tinbredun arruntak eta agiri tinbredun bereziak ere trukatu ahal izango dira testuan akatsak izateagatik edo erabilezin bihurtzen dituen beste edozein arazoirengatik, betiere sinadurarik, errubrikarik edo ondorioak sortu izanaren bestelako zantzurik ez badute.

23. artikulua. Ordaindu izanaren frogagiriak eta ziurtagiriak

1. Araudi honetan xedatutakoaren arabera zor bat ordaintzen duen pertsonak egindako ordaintzaren frogagiria eman dakion eskubidea edukiko du.
2. Eskudirutako ordaintzaren frogagiriak honako hauek izango dira, kasuan kasukoa:
 - a) Organo eskudunek onetsi edo emandako agiriak, ordaintzeta jasotzeko baimenduta dauden erakunde, organo edo pertsonak balidatutakoak.
 - b) Egindako sarreraren ziurtagiriak.

- c) Erakunde kolaboratzaileek sortutako erreferentzia-zenbaki osoak (EZO), hala ezartzen den kasuetan.
- Baliozkoak izango dira, halaber, beste administrazio publiko batzuen laguntzaileak diren erakundeen erreferentzia-zenbaki osoak, administrazio horiekin bitarteko elektronikoen bidezko ordainketa hitzartu bada.
- d) Beste edozein agiri, ordainketaren frogagiria dela adierazten bada, berariaz, Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren foru agindu bidez; eta, bereziki, bitarteko elektronikoen bidezko sarrerei buruzko araudian ezarritakoak.
3. Eskudirutako ordainketen frogagiri guztietan inguruabar hauek azaldu beharko dira, gutxienez:
- a) Ordaintzera behartuaren izen-abizenak, sozietate-izena edo deitura, eta identifikazio fiskaleko zenbakia.
- b) Zorra identifikatzeko erreferentzia, Administrazioak alde aurretik esleitutakoa, zor hori jada Zerga Administrazioan jasota badago. Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren foru agindu bidez onetsitako eredu batean aurkezten diren autolikidazioen kasuan, ekitaldia eta zergaldia adierazi beharko dira.
- c) Zenbatekoa.
- d) Kobrantsa-data.
- e) Frogagiria luzatzen duen organoa, pertsona edo erakundea.
- Ordaintzera behartuta dagoena ez den pertsona batek ordaintzen badu zorra, ondasun edo eskubideren bat enbargatu delako edo arautegian jasotako beste arrazoiren bat tarteko, frogagirian sarrera egiten duen pertsona nor den ere adieraziko da, berak hala eskatzen badu.
4. Efektu tinbredunak erabiltzen direnean, efektuak eurak, behar bezala baliogabetuta, ordainketaren frogagiri bihurtuko dira.
5. Gauzen bidez ordaintzen denean, organo eskudunak ondasun edo eskubideak onartzeko hartutako erabakia ordainketaren frogagirizat joko da, baldin eta horrekin batera aurkezten bada ondasun edo eskubideak eman direla edo eskura jarri direla erakusten duen akta, eskritura publikoa edo hartu-agiria.

24. artikulua. Zainpean uztea

Ordaintzera behartuta dauden pertsonak zorraren eta kostuen zenbateko osoa edo zati bat zainpean utzi ahal izango dute eskudirutan Foru Administrazioan, zerga-bilketako organo eskudunak edo ordainketa jasotzeko baimendutako erakunde edo pertsonak ez badie hura onartzen, edo ezinbesteko arrazoiengatik ezin badie onartu. Zainpean utzitako zenbatekoa ordaindu beharretik aske egongo dira zainpean uzten duten egunetik aurrera.

2. ATALA GERORATZEA EDO ZATIKATZEA

25. artikulua. Geroratzea edo zatikatzea

1. Zerga bakoitzari eta zuzenbide publikoko gainerako diru-sarrerei buruzko arautegian xedatutakoa gorabehera, zorren ordainketa pertsona behartuek eskatuta geroratu edo zatikatu ahal izango da, hala borondatezko epealdian nola ordainarazpen-aldian, haien egoera ekonomiko-finantzarioak iragankorki haren ordainketa gauzatzea eragozten dienean.

2. Ordainketaren zatikatzea, geroratzearen modalitatea denez gero, horri aplika dakizkiokeen arauak eraenduko dute, berariaz arauturik ez dauden alderdietan.
3. Ordainketa geroratzeko eskabidea izapidetzeko, ezinbestekoa izango da ondasunak besterentzeko erabakia zordunari jakinarazi aurretik aurkeztea eskabide hori.
4. Oraindik sortu gabeko zorren ordainketa geroratzeko, aurreko baimena eskatu ahal izango da, epemugara heltzen direnean egoera ekonomiko-finantzarioak haiek ordaintzea behin-behinean eragotziko duela aurreikusten bada.

Horrelakoetan, aurreko baimen-eskabidean zehaztu behar da zein zorretan aurreikusten den ordainketa geroratzea, gehienez zein zenbatekoak izan daitezkeen zor horiek, eta zein epetan sortuko diren; eta araudi honen 35. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako betekizunak beteko dituen bermea eskaini beharko da, baita garaia denean hura jarri ere, zor horiek guztiak bermatzeko.

Behin zenbaki honetan aipatutako baimena onartutakoan, eta bermea jarri ondoren, zordunek zor guztien geroratzea eskatu beharko dute banan-banan, zorrak sortu ahala, eta araudi honetako hurrengo artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorritik ezarritako epeetan. Lehenengo zorrari dagokion epean formalizatu beharko dute bermea; erreferentzia egin beharko diote emandako baimenari, eta ez dituzte berriro bete beharko zenbaki honetan aipatutako eskabidea aurkeztu zutenean bete zituzten izapideak.

Zenbaki honetan xedatutakoa ez da aplikatuko araudi honen 38. artikuluko 1., 2., 3. eta 4. zenbakietan azaltzen diren kasuetan.

26. artikulua. Eskumena

Organo hauek izango dute zorren ordainketa geroratzeko edo zatikatze eskaerak ebazteko eskumena:

- a) Geroratu beharreko zenbatekoa zergapeko bakoitzeko 50.000 eurotik gorakoa ez denean eta epea 5 urtetik gorakoa ez denean, Gerorapenen Ataleko burutzak izango du eskumena.
- b) Eskaera aurreko kasuan ez badago eta geroratu beharreko zenbatekoa zergapeko bakoitzeko 100.000 eurotik gorakoa ez bada eta epea 8 urtetik gorakoa ez bada, Zerga-bilketako Prozedura Berezien Zerbitzuko buruak izango du eskumena.
- c) Eskaera aurreko kasuetan ez badago eta geroratu beharreko zenbatekoa zergapeko bakoitzeko 500.000 eurotik gorakoa ez bada eta epea 10 urtetik gorakoa ez bada, Zerga-bilketako zuzendariordeak izango du eskumena.
- d) Eskaera aurreko kasuetan ez badago eta geroratu beharreko zenbatekoa zergapeko bakoitzeko 1.000.000 eurotik gorakoa ez bada eta epea 10 urtetik gorakoa ez bada, Ogasuneko zuzendaritza nagusiak izango du eskumena.
- e) Gainerako kasuetan Ogasun eta Finantzen foru diputatuak izango du eskumena.

Artikulu honetan aipatzen diren zenbatekoak zehazteko orduan kontuan hartuko da geroratutako edo/eta konkurtso-zain dagoen zorra, gehi geroratze-eskabideari dagokiona.

27. artikulua. Eskaera

1. Geroratzeko edo zatikatze eskaera Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan egin beharko da, eta bertan datu hauek jarri beharko dira nahitaez:
 - a) Eskatzailearen eta, kasua bada, hura ordezkatzeko duenaren izen-abizenak, sozietate-izena edo deitura, eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

- b) Aurkeztu den eta ordainketa geroratzeko eskatzen den likidazioaren edo autolikidazioaren identifikazioa. Haren zenbatekoa, eredia, ekitaldia eta zergaldia adieraziko dira.
 - c) Bideragarritasun-plana, Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren foru-agindu bidez zehaztutako edukia izango duena. Pertsona juridikoek, gainera, urteko kontuak aurkeztu beharko dituzte, eta haietan, betiere, eskudiru-fluxuen egoera-orriak aurkeztu beharko dituzte, nahiz eta zergadunak beharrik ez izan orriok merkataritza-ondorioetarako formulatzeko. Urteko kontu horiek geroratzeko eskaera egiten denean itxita dauden bi ekitaldietakoak izan behar dute, salbu eta erregelamendu honen 38. artikuluko 1., 2., 3. eta 4. zenbakietan xedatutakoaren babesean eskatutako geroratzearako edo kreditu-erakunde batek edo elkarrekiko berme-sozietate batek emandako abal solidarioa edo kauzio-aseguruaren ziurtagiria berme gisa eskaintzen duten geroratzearako.
 - d) Proposatzen den ordainketa plana. Bertan amortizaziorako kuotak eta baldintzak adieraziko dira, araudi honen 38. artikuluko 1., 2. eta 3. zenbakietan ezarritakoari jarraituz, kasua bada.
 - e) Epeak kobratzeko banku-helbideratzearen agindua; zordunketa egin behar duen zerga-bilketako erakunde laguntzailean zabalduetako kontuaren IBAN kodea adierazi behar da. Helbideratze-kontua bakarra izango da geroratuta edota zatikatuta dauden zor guztietarako. Kontu hori aldatzeko, eskabidea aurkeztu beharko da epea amaitu baino hamabost egun lehenago, gutxienez.
 - f) Lekua, eguna eta sinadura.
 - g) Behar denean, Zerga Administrazioak ordezkari frogatzeko eskatzen dituen agiriak.
2. Geroratzeko eskabideari honako informazio edo agiri hauek ere erantsi beharko zaizkio nahitaez:
- a) Zorren ordainketari aurre egin ezina iragankorra delako justifikazioa. Diruzaintzako zailtasunak sortu dituzten inguruabarren deskribapena eta justifikazioa gehituko dira.
 - b) Eskaintzen den bermea, araudi honen 35. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera.
 - c) Zorduna titularra den ondasun higigarri eta higiezinaren eta eduki ekonomikoko gainerako ondare-eskubideen zerrenda xehakatu.
 - d) Zerga Administrazioak aurreko letran aipatutako zerrenda eskatu ahal izango du, halaber, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 42. artikuluan xedatutakoaren arabera zordunarekin lotura duten pertsona edo erakunde guztiei dagokienez. Zerrenda horretan eskurapen balioa eta data adieraziko dira.
 - e) Geroratze edo zatikatzearen indarraldian zehar zordunaren alde aitor litezkeen kredituekin zorra konpentsatzeko eskaera, behar denean.

Paragrafo honetako b), c) eta d) idatz-zatietan xedatutakoa ez da aplikatuko geroratze-eskaera Erregelamendu honetako 38. artikuluko 1., 2. eta 3. idatz-zatietan xedatutakoaren arabera aurkezten denean. Geroratze- edo zatikatze-eskaera erregelamendu honetako 38. artikuluko 4. atalean xedatutakoaren arabera aurkezten denean, ez da aplikatuko atal honetako b), c), d) eta e) letretan adierazitakoa. Azkenik, kreditu-erakunde edo elkarren bermerako sozietate baten abal solidario gisa edo kauzio-aseguruaren ziurtagiri gisa eskaintzen diren geroratzetan ez da beharrezkoa izango atal honetako c) eta d) letretan aipatutako dokumentazioa aurkeztea.

- 3. Kreditu-erakunde edo elkar bermatzeko sozietate baten abal solidarioa edo kauzio-aseguruaren ziurtagiria eskaintzen denean berme gisa, erakunde horiek berriaz hartutako

konpromiso ezeztaz hain aurkeztu beharko da eskabidearekin batera: geroratzea onartzen bada behar den abala formalizatzeko konpromisoa.

4. Aurreko zenbakian aipatutakoak ez diren bermeak eskaintzen direnean, honako agiri eta informazio hauek ere aurkeztu beharko dira.
 - a) Ondasun edo eskubidearen identifikazioa, beharrezkoak diren erreferentzien azalpenarekin, eta jabetza frogatzen duen titularen, eskrituraren, fakturaren edo egiaztagiriaren kopia.
 - b) Berme gisa eskaintako ondasunen balorazioa, enpresa edo profesional espezializatu eta independenteek eginga. Ondasun mota jakinen baten balorazioan espezializatutako enpresen edo profesionalen erregistroa egonez gero, erregistro horretan inskribatutako enpresa edo profesional batek egingo du balorazioa, lehentasunez.

Landa- edo hiri-ondasun higiezinak esleitu behar zaien gutxieneko balioaren arabera edo katastroko balioaren arabera baloratu ahal izango dira bermearen ondorioetarako, horrelako baliorik edukiz gero.

Gainerako kasuetan, higiezinaren balioa 200.000 eurotik gorakoa bada, geroratzeo eskaerarekin batera aurkezten den balorazioa enpresa homologatuek eginga izan beharko da, Higiezin Kredituko Kontratuak arautzen dituen martxoaren 15eko 5/2019 Legearen 13. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Eskatutako geroratzearen indarraldia amaitzen den egunean besterentze batean lor litekeen zenbatekoaren arabera egin beharko da balorazioa, besterentze hori egiteko eta ondasunak erosleek eskura jartzeko beharrezkoak izango liratekeen kostu zenbatetsiak eta kargak kenduta.

- c) Kargen ziurtagiria, erregistro egokian emana, eta inskribatutako kargen egungo zenbateko galdagarrien ziurtagiriak, pertsona hartzekodunek emanak.
5. Eskaerarekin batera berme gisa eskaintzen diren ondasun edo eskubideak ezingo dira beste batzuekin ordeztu, behar bezala arrazoitutako salbuespenezko kasuetan izan ezik.
6. Bermearen lekape osoa edo partziala eskatzen bada, agiri hauek ere aurkeztu beharko ditu eskatzaileak:
 - a) Ordaintzera behartuta dagoen pertsonaren adierazpena. Bertan azalduko du ez berak ez Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 42. artikuluan xedatutakoaren arabera berarekin lotuta dauden pertsona edo entitateetarako batek ere ez dutela beste ondasun edo eskubiderik berme gisa eskaintutakoak baino.
 - b) Behar denean, aurreko a) letran aipatutako pertsonen azken hiru ekitaldietako urteko kontuak eta auditoretza-txostena, halakorik egonez gero.
 - c) Pertsona eskatzaileak bere eskaeraren alde egiteko egokitzat jotzen dituen gainerako dokumentu edo frogagiriak.
7. Ordaintzera behartuta dauden pertsonak, administrazio-bideko berrikuspenaren arloan aplikatu behar den araudian xedatutakoaren babesean, zerga-zorraren ordainketa geroratzeo edo zatikatzeko eskaera eta zerga-zorraren sarrera eteteko eskaera aurkezten baditu, geroratzeo edo zatikatzeko eskaera arxibatu egingo da eta eteteko eskaera izapidetu egingo da beti, nahiz eta bata bestearen subsidiarioak izan.
8. Artikulu honetako 1. zenbakian xedatutakoa ez zaie aplikatuko araudi honetako 25. artikuluko 4. zenbakian xedatutakoaren arabera aurkezten diren eskaerei, baina aplikatu ahal izango da, behin zorrak sortutakoan, horiek geroratzeo eskatzen den bakoitzean.

28. artikulua. Geroratzeko edo zatikatzeko eskaerak ez onartzea

1. Zerga-bilketako organo eskudunak, Zerga-bilketako Prozedura Berezien Zerbitzuko Burutzak, ez ditu geroratzeko eskaerak onartuko honako kasu hauetan:
 - a) Gerorapen-eskabidearen xede den zorra lehenago ere geroratu denean eta eraginkortasuna galdu duenean, gerorapen-erabakian ezarritako baldintzetakoren bat bi aldiz baino gehiagotan ez betetzeagatik. Apartatu honetan ezarritakoa ez da aplikatuko baldin eta, Zerga-bilketarako Zuzendariordeztaren iritziz, zergapeko zordunek lehenago eratu edo eskainitako bermeak baino hobekak edo berme berriak eskaintzen badituzte.
 - b) Gerorapen-eskabidearen xede den zorra 300 eurotik beherakoa denean (jarduera ekonomikorik egiten ez duten pertsona fisikoen zorrak izan ezik).
 - c) Ordainarazpen-aldian badirenean beste zor batzuk geroratu, eten edo gerorapena eskatu gabe daudenak.
 - d) Konkurtsoei buruzko legeriaren arabera masaren kontrako kreditutzat jotzen diren zorrak geroratzeko eskabideak direnean.
 - e) Aurretik ezetsi diren beste eskaera batzuk errepikatuz, berriro aurkezten denean eskaera, aurretik ezetsitako eskaeraren aldean funtsezko aldaketarik egin gabe, eta, batez ere, errepikatze horren xedea zerga-bilketaren kudeaketa luzatu, zaildu edo eragozteak denean
2. Ez dira onartuko, ezta, araudi honen 27. artikuluan eskatutako baldintzak betetzen ez dituzten eskabideak, interesdunari errekerimendua egin ondoren, aginduzkoak diren dokumentuak zuzentzeko edo aurkezteko. Horretarako hamar eguneko epea emango zaio interesdunari.
3. Ez onartzeak berekin ekarriko du geroratzeko eskaera ez aurkeztutzat jotzea ondore guztietarako, eta, behin premiamendu-probidentzia jakinarazten denean, pertsona zordunaren ondarea berehala exekutatzeko. Ezingo da aplikatu Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 60.3 artikuluko lehenengo zenbakian aipatzen den hilabeteko epe berezia.
4. Ez onartzeko erabakiaren aurka administrazioarekiko diru-errekurtsoa edo -erreklamazioa jarri ahal izango da.

29. artikulua. Geroratzeko edo zatikatzeko eskaeraren ondorioak

1. Geroratzeko eskabidea borondatez ordaintzeko epealdian aurkezten bada eta epealdi horretan eskabidea ebatzen ez bada, ez da hasiko betearazpen-aldirik; nolana ere, bidezkotzat jotzen diren kautelazko neurriak hartu ahal izango dira.
2. Geroratzeko eskabidea ordainarazpen-aldian aurkezten bada, zerga-bilketako prozedura ez da etengo. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 60.3 artikuluan ezarritako epea amaitu baino lehen aurkezten bada eskabidea, ez zaio ekingo zordunaren ondarearen kontrako exekuzioari, eta errekaratu exekutiboa eskatu ahal izango da.

30. artikulua. Geroratzeko edo zatikatzeko eskaera ebatzea

1. Geroratzeko eskaerak bi hilabeteko epean ebatziko dira gehienez ere. Interesdunari agiri edo informazio gehiago aurkezteko eskatzen bazaio, ebatzeko epea izapide horrek irauten duen beste luzatuko da. Gehieneko epea igarotakoan ebatzpenik eman ez bada, eskaerari ezetza eman zaiola ulertu ahal izango da.

Geroratzea automatikoki onartuko da ezin bada bermerik jartzeko eskatu, araudi honen 38. artikuluko 1., 2. eta 3. apartatuetan ezarritakoaren arabera eta eskaera Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan egin beharko da.

2. Geroratzeak onartzeko ebazpenetan adieraziko da kasu bakoitzean zer baldintza bete beharko diren ebazpenak eraginkortasuna izan dezan. Geroratzea onartzean ezartzen diren epeak eskaeran adierazitakoak eurak badira eta zenbatekoak eskaeran adierazitakoak baino handiagoak ez badira, erabakia jakinarazi baino lehen epeak kobratzeari ekin ahalko zaio, helbideratze-kontuan zordunketa eginez.
3. Ebazpena ukapenezkoa bada eta geroratzea borondatez ordaintzeko epealdian eskatu bada, zorra Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei Buruzko Foru Arau Orokorraren 60.1.b) artikuluan ezarritako epean ordaindu beharko da.

Gerorapena Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 60.3 artikuluan aipatzen den epearen barruan eskatu bada, bost eguneko epea emango da zorra eta errekaru exekutiboa ordaintzeko. Epe horretan ezin izango da premiamendu-errekargurik eskatu.

4. Espedientea izapidetzen ari den bitartean zorra ordaintzen bada, geroratzeako egindako eskaerari uko egin zaiola pentsatuko da, ordaindutako zatiari dagokionez, eta bidezko diren berandutze-korrituak eskatuko dira.
5. Bermearen balorazioa zehaztu eta egiaztatzeak luze joko duela uste denean, baldintzapeko geroratzea onartu ahal izango da, baldintza gisa ezarriz berme nahikoa jarri beharko dela garaia denean.
6. Zor beraren ondorioz hainbat pertsonak ordaintzeko betebeharrak dutenean, haietako bati emandako gerorapenak inguruabar horrek eragindako pertsonarentzat baino ez ditu izango ondorioak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 34.5 artikuluan aipatzen diren betebeharrekoak direnean izan ezik.

Hala ere, bere zor geroratua behar adina bermatuta daukan pertsonak hala eskatuz gero, zerga-bilketako organo eskudunak zerga-bilketako prozedura etetea erabaki ahal izango du betebeharrak duten pertsona horietako besteren bati dagokionez edo guztiak dagokienez.

7. Behin ordainketaren gerorapena onartzea erabakitakoan ezingo dira aldatu geroratzearen baldintzak eta zenbatekoak, ustekabeaz azaldutako arrazoiengatik ez bada, eta zordunak behar bezala justifikatu beharko ditu arrazoi horiek. Geroratzeak berriro aztertzeak eskaerak ebazteko eskumena araudi honen 26. artikuluan ezarritako arauetan ezarritakoarekin bat zehaztuko da.

31. artikulua. Ordainketa geroratzea onartzeko baldintzak

1. Ordaintzera behartuta dagoen pertsonaren egitatezko edo zuzenbideko egoeraren edozein aldatetarako geroratutako ordainketari eragiten badiu, jakitun jarri beharko da Zerga Administrazioa, eta hark aldatu ahal egingo ditu ordaintzeko baldintzak eta zenbatekoak, pertsona zordunaren diruzaintzako zailtasun iragankorrak arindu badira, edo geroratzea ondorerik gabe utziko du, diruzaintzako zailtasun iragankor horiek desagertu badira, edo egiturazkoak bihurtu badira eta ordaintzera behartuta dagoen pertsonak ezin badie aurre egin proposatutako ordainketei. Espedientean jasorik utziko da inguruabar horiek gertatu direla eta agiri bidez frogatu direla.
2. Ematen diren ordainketa-gerorapen guztiak —kreditu-erakunde baten nahiz elkar bermatzeko sozietate baten abal solidarioaz edo kauzio-asegurua ziurtagiriak bermatutakoak eta araudi honen 38. artikuluko 1., 2., 3. eta 4. zenbakietan azaldutako kasuetakoak izan ezik— honako baldintza honen pean egongo dira harik eta zorrak osorik kitatu arte: urte naturaleko lehenengo hiruhilekoan txostena eman beharko da geroratzeako

eskaerarekin batera aurkeztutako bideragarritasun planaren betetzeari buruz, Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren foru agindu bidez zehazten diren baldintzetan.

3. Ematen diren ordainketa-gerorapenak beste baldintza honen pean ere egongo dira: zordunak ezingo du dibidendurik banatu, salbu eta ordainketa geroratzea onartu zuen organoak berariaz baimena ematen badu, zordunak justifikatu beharko dituen arrazoiengatik, edo dibidenduak banatzen badira uztailearen 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Kapital Sozietateei buruzko Legearen testu bateginaren 348 bis artikuluan xedatutakoa betetzeko.

32. artikulua. Gerorapenaren edo zatikapenaren ezerezte aurreratua

Onetsitako ordainketa-gerorapena edo -zatikapena erabat edo partzialki ezereztuko da modu aurreratuan:

- a) Zordunak eskatuta; horrelakoetan, geratzen zaion zorrari dagokionez, amortizazio-epealdia laburtzea edo epeetan ordaindu beharreko kopurua txikitzea hauta dezake, zerga-bilketako organo eskudunari jakinarazi ondoren. Aurretik jakinarazi ezean, amortizazio-epea laburtuko da, kopurua bere hartan utzita.
- b) Ofiziozko konpentsazioaren bidez, ordaintzera behartuta dagoen pertsonaren alde Zerga Administrazioak aitortutako edozein krediturengatik, diru-sarreraren itzulketarengatik edo beste arrazoiaren batengatik. Horrelakoetan geroratzearen amortizazio-epea laburtuko da.

Geroratzea onartzeko eskumena duen organoak letra honetan xedatutakoaren aplikaziotik salbuetsi ahal izango ditu zenbait kasu, zeinetan konpentsazioak pertsona zordunaren egoera finantzarioa okerragotzea ekar dezakeen. Horretarako, betiere, eskaerarekin batera aurkeztutako bideragarritasun plana bete beharko da».

- c) Alderdiak eskatutako konpentsazioagatik, zorra behar bezala bermatuta eta inskribatuta dagoenean izan ezik. Hala ere, konpentsazioa aplikatu ahal izango da Zerga-bilketako Zuzendariordetzak jasota duenean aurkeztutako bermeek balioa galdu dutela funtsean, zordunak jakinarazi duenean hartzekodunekin negoziazioak hasi direla, maiatzaren 5eko 1/2020 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Konkurtso Legearen testu bateginaren 583. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera, edo haren hartzekodunen konkurtso-eskaera jasota dagoenean.

Bermeak behar bezala formalizatuta ez dauden bitartean, bermeak formalizatu arte atxikiko da adostutako edozein itzulketa, eta konpentsazioa alderdi batek eskatuta aplikatuko da, baldin eta horiek amaitzean formalizatzen ez badira.

33. artikulua. Korrituak kalkulatzea

1. Gerorapena ematen bada, berandutze-korrituak kalkulatu eta exijituko dira, ordaintzeko borondatezko epealdiaren mugaegunetik, edo eginiko azken kalkularen datatik ondorengoa bada azken hori, emandako epearen mugaegunaren arte igarotako denboragatik, artikuluan honetako 4. atalean xedatu denari kalterik egin gabe.
2. Zatikatzea ematen bada, honela kalkulatu dira berandutze-korrituak:
 - a) Lehenengo epean, aurreko atalean xedaturikoa bete beharko da.
 - b) Ondorengo epe bakoitzean, ordaintzeke dagoen zorraren gainean kalkulatu dira korrituak, aurreko epearen mugaegunetik dagokion epera arte igarotako denboragatik.
3. Baldin eta zorrak geroratzeko edo zatikatze eskabidea ukatzen bada eta borondatezko epealdian eskatu bada, edo ordainarazpen-aldian Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 60.3 artikuluan ezarritako epearen barruan, epealdi honengatik kalkulatu dira berandutze-korrituak: borondatezko epealdiaren mugaegunetik,

edo eginiko azken kalkuluaren datatik ondorengo bada azken hori, ukatzeko ebazpena ematen den egunera arte.

4. Geroratzeko eskabidearen ebazpena baino lehen ordaintzen badira zorrak, zorraren ordainketa atzeratu deneko epealdiagatik kalkulatu dira berandutze-korrituak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 26.34 artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe.
5. Gerorapenaren korrituei dagokien zenbatekoa urte bakoitzeko abenduan exijituko dira gutxienez, sortzapenaren irizpidea aplikatuta.

34. artikulua. Gerorapenen emakidek eraginkortasuna galtzea

1. Geroratzeta edo zatikatzea emateko baldintzetako bat ez betetzeak berekin ekarriko du eraginkortasuna galtzea.

Baldin eta geroratzeta edo zatikatzea eraginkortasuna galtzen badu, lehenbizi bermea betearazteko aukera baliatu ahal izango da, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 172. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

2. Geroratzeta direnean, baldin eta epea mugaeguneratzen bada eta ordainketa osorik egiten ez bada, bilketarako prozedurak jarraituko du, eta hala denean, ordainarazpen-aldia hasi eta premiamendu-probidentzia emango da ordaindu gabeko zorragatik. Horrez gain, berehala betearaziko da, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 60.3 artikuluan xedatu dena aplikatuta.
3. Zatikatzetan, mugaeguneratzen direnean epe bat baino gehiago badago ordaintzeko, mugaeguneratutzat joko dira ordaintzeke dauden zatikatzea, eta aurreko atalean ezarritako moduan jokatu da.

Ez da beharrezkoa izango epe bi baino gehiago ez betetzea zatikatzea ondorioz gabe uzteko, baldin eta, epeetako bat bete ez denean, zergen administrazioak ordainketa egiteko errekerimendua eginda badu eta ordainketa hori Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 60.1 artikuluko b) atalean ezarritako epean egiten ez bada, ezta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren araudian zerga horren kuotaren zatikatzea ordaintzeko ezarritako epeetan ordaintzen ez denean ere.

4. Beste zor batzuk ordainarazpen-aldian geroratzeko edo zatikatze edo eteteko eskabiderik izan barik egoteak berekin ekarriko du geroratzeko edo zatikatze emandako erabaki guztiek eraginkortasuna galtzea eta geroratzeko zorrak berehala exijitzeko modua, salbu eta ordainarazpen-aldiko zor horiek Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 60.3 artikulukoan aipaturiko hilabeteko epean sartzen badira.
5. Betebeharpekoaren konkurtso-adierazpenak berekin ekarriko du geroratzeko emandako erabaki guztiek eraginkortasuna galtzea eta izapidetzen ari den edozein geroratzeko prozedura bukatzea.

II. KAPITULUA ZORREN BERMEA

35. artikulua. Bermeak

1. Interesa duen pertsonak bermea eskainiko du kreditu erakundearen edo elkarrekiko berme sozietatearen abal solidario gisa, edo kauzio aseguruaren ziurtagiriaren bidez.
2. Abal edo ziurtagiri hori lortzerik ez dagoenean, honako berme hauetako bat onartu ahal izango da:

— Alde bateko Ondasun higiezinaren hipoteka.

- Alde bateko Ondasun higigarrien hipoteka.
- Bahia, alde bateko eskualdaketarekin zein halakorik gabe.
- Nahikotzat jotako beste edozein.

3. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Araua garatzeko Araudiak (abenduarien 27ko 228/2015 Foru Dekretuaren bidez onetsia) administrazio-bideko berrikuspenaren arloan ezarritakoak arautuko ditu berrikuspen errekurtsoen etenaldietan edo erreklamazioetan exijitu beharreko bermeak.

36. artikulua. Bermearen zenbatekoa ordainketaren gerorapenetan

1. Kuotaren edo ordaintzeke dagoen zehapenaren zenbatekoa estali beharko du bermeak, gehi horren ehuneko 20, salbu eta premiamendu-errekargua sortu bada eta ordaintzeke dagoen zenbatekoa handiagoa bada. Hala denean, hori gehi kostuen ehuneko 5 exijituko da, baita eskatzekoak diren berandutze-korritu guztiak ere, emandako gerorapenari dagozkionak barne, aurreko bi ataletan xedatu dena izan ezik.
2. Bermea kreditu- rakundeen abal solidarioa, elkarrekiko berme sozietateen abal solidarioa edo kauzio aseguruaren ziurtagiria bada eta zorra ordainketarako borondatezko epearen barruan badago, bermatu beharreko zenbatekoa ordaintzeko dagoen kuota edo isuna gehi horren ehuneko 5 izango da ordainarazpen-errekargu kontzeptuan, dagozkion berandutze-korrituak (ematen den geroratzeari dagozkionak) gehituta. Epea bi urtekoa izango da.
3. Beste berme batzuk direnean eta gerorapena bost urtetik gorakoa denean, bost urteko epealdira mugatu da bermatu beharrerako gerorapeneko berandutze-korrituen zenbatekoa.
4. Zatikatzeak direnez, epeetako bakoitzerako berme partzialak jarri ahalko dira. Hala eginez gero, berme bakoitzak zati bakoitzari dagozkion zenbatekoak estaliko ditu, aurreko atalaren arabera.
5. Bermearen zenbatekoa zehazteko, eta ez beste ezertarako, berandutze-korrituen tasa gerorapena ematen denean indarrean dagoena izango da.

37. artikulua. Bermea ordainketaren gerorapenetan formalizatzea

1. Bermea hilabeteko epean formalizatu beharko da ordainketaren gerorapena emateko erabakia jakinarazten denetik hasita, eta gerorapena ematearen menpe egongo da eraginkortasuna. Epe hori gehienez hiru hilera luzatu ahal izango du bermeak onartzeko organo eskudunak, baina aurretik interesdunaren eskabide arrazoitua behar da, bermea aipaturiko epean formalizatzea galarazten duten zioak daudela justifikatuz gero. Eratzeko, erregistroko inskripzioa behar duten bermeak dagokien erregistroan inskribatzen direnean joko dira formalizatutzat.
2. Epe hori igarotakoan bermea formalizatu ezean, ondorioz gabe geldituko da bermea emateko erabakia, eta araudi honen 34. artikuluan ezarritako ondorioak izango dira.
3. Bermeak libratu egingo dira zorra guztiz ezeztaturik dagoela egiaztatu ondoren. Zatizko berme bakoitzak libratu ahal izango da horrek bermaturiko zorra ordaintzen denean.
4. Aholkularitza Juridikoko zerbitzuak erabakiko du bermeen nahikotasun juridikoa eta ekonomikoa.
5. Zerga-bilketako Zuzendariordetzaren eskumena izango da 35.2. artikuluan aipaturiko bermeak onartzea eta ukatzea, eta administrazioa-agiria egin ahal izango da.

38. artikulua. Berme eskakizunik gabe edo lekapenarekin eginiko gerorapenak

1. Zorrak geroratzeko ez da nahitaezkoa izango bermea jartzea baldin eta zergapeko bakoitzak ordaintzeke duen zenbateko osoa 50.000 eurotik beherakoa bada eta gehienez hileko berrogeita zortzi epetan ixten bada, ondorio horietarako gerorapenaren korrituak aintzat hartu gabe.
2. Era berean, ez da galdatzekoa izango zorrak geroratzeko bermea jartzea baldin eta zergapeko bakoitzak ordaintzeke duen zor osoak 100.000 euroko zenbatekoa gainditzen ez badu eta gehienez hileko hogeita hamasei epetan ixten bada, ondorio horietarako gerorapenaren korrituak aintzat hartu gabe.
3. Era berean, ez da galdatzekoa izango zorrak geroratzeko bermea jartzea baldin eta zergapeko bakoitzak ordaintzeke duen zor osoak 50.000 euroko zenbatekoa gainditzen ez badu eta gehienez hileko hogeita lau epetan ixten bada, ondorio horietarako gerorapenaren interesak aintzat hartu gabe.
4. Ez da bermerik exijituko lurraldeko herri administrazioek, erakunde autonomoek eta administrazio horietako zuzenbide pribatuko erakunde publikoek eskaturiko gerorapenetan, ezta erdi baino gehiago erakunde publikoak direneko partzuergoek eta mankomunitateek eskaturikoetan ere.
5. Bermerik ez galdatzeak ez dakar berekin bahiak edota gerorapena eman aurretik eginiko eragozpenak ezeztatzea.
6. Gerorapena eman ahal izateko zerga-bilketako organo eskudunak bermeak osorik edo zatiz jartzea lekatuko da baldin eta zergadunak eta horrekin lotuta dauden pertsona edo erakunde guztiek, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 42. artikuluan xedatu denarekin bat etorrira, bermeak jartzeko ondasunik ez dutela egiaztatzen badute, betiere ordaintzeko guztizko diru-kopuruak 500.000 eurotik gorakoak ez badira.

Kasu horretan, gehienez 5 urtean itxi ahal izango dira geroraturiko zorrak, eta ezin izango da baliatu gabealdirik zorrak ixtean.

Aurreko paragrafoan aipaturiko pertsonak edo erakundeek nahitaez jarri beharko dute bermea baldin eta gerorapena eman ondoren ondasunak edo eskubideak badituzte.

39. artikulua. Bermeak gerora nahikoak ez izatea

Baldin eta ordainketaren gerorapenean jarritako bermeek balioa galdu badute, halako moldez non nahikoak ez baitira bermaturiko zorretan ordaintzeke dagoen zenbatekoa bermatzeko, ondasun edo eskubide gehiago jartzeko eska dezake administrazioak bermatu gabeko zenbatekoa estaltzeko.

Nahikoa ondasun edo eskubide jartzen ez bada, ondoriorik gabe geldituko da emandako gerorapena.

40. artikulua. Bermea jarri deneko ondasunak besterentzea

Bermea jarri deneko ondasunak edo eskubideak premiamendu-prozeduran ezarritakoari jarraitu besterendu ahal izango dira. Ondasun eta eskubide horiek borondatezko epealdian betearazi ahal izango dira hala eskatzen badute ondasunen edo eskubideen titularrek, edo zorduna hartzekodunen konkurtsoan deklaratu bada.

III. KAPITULUA

KONPENTSAZIOA ETA ZERGEN KONTU KORRONTEA

41. artikulua. Konpentsatu daitezkeen zorrak

1. Kapitulu honetan ezarrita dauden kasuetan eta berorren betekizunekin, zerga-bilketaren fasean, hala borondatezkoan nola ordainarazpenekoan, dauden Foru Ogasunarentzako zorrak osorik edo partzialki iraungi ahal izango dira, Foru Ogasunak zordunarentzat aintzatesten dituen kredituekin konpentsatuz.
2. Halaber, aurreko zenbakian bildurik ez dauden zorrak konpentsatu ahal izango dira, zerga eta zuzenbide publikodun gainerako baliabideen arau erregulatzailerak aurreikusita dutenean.

42. artikulua. Eskumena

Zerga-bilketako organo egokiak izango du eskumena konpentsazioa ofizioz edo aurreko artikuluan aipaturiko zorren eta kredituen zordunak eskatuta erabakitzeke, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 75.1 artikuluko bigarren paragrafoan xedatu dena salbu. Hala denean, likidazio berria egin behar duen organoa izango da eskuduna.

43. artikulua. Ordaindu behar duenak eskatuta eginiko konpentsazioa

1. Konpentsazioa eskatzen duen zordunak diru-bilketako organo eskudunari honako betekizun hauek beteko dituen eskabidea igorri beharko dio:
 - a) Ordaindu behar duen pertsonaren izen-abizenak, sozietate egoitza edo izena eta identifikazio fiskaleko zenbakia eta, hala denean, haren ordezkariarenak.
 - b) Konpentsazioa eskatu deneko zorra identifikatzea, gutxienez zenbatekoa, kontzeptua, ekitaldia eta epealdia adierazita. Autolikidazio bati badagokio, konpentsatu nahi den zurraren eredu ofiziala ere erantsiko da, eskabidea telematikoki izapidetu ezean.
 - c) Konpentsatzeko eskaintzen den eskatzailearen aldeko kredituaren identifikazioa, gutxienez, haren zenbatekoa, kontzeptua eta organo kudeatzailea adieraziz.
 - d) Kreditua besterendua edo utzia ez izanaren berriazko aitortpena.
 - e) Lekua, eguna eta sinadura.
2. Eskabideak, borondatezko aldiaren, aurreko zenbakian zehaztutako eskakizunekin eta dokumentuekin, ordainarazpen-aldiaren hasiera etengo du bere izapidetzean konpentsatzea eskaintzen den kreditu-mugara arte. Hori gorabehera, bidezkotzat jotzen diren kautelazko neurriak hartu ahal izango dira.

Ordainketa geroratzeko eskabidea ordainarazpen-aldian aurkezten bada, zergabilketa-prozedura ez da etengo. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 60. artikuluko 3. zenbakian ezarri den epea amaitu baino lehen aurkezten bada, eskabidea izapidetzen dagoen artean ez zaio ekingo zordunaren ondarearen betearazpenari eta betearazpideko errekarua eskatuko da.

3. Zerga-bilketako organoak konpentsazioa erabakiko du zergen arloko arautegian eta arautegi zibilean, oro har, edo, hala badagokio, aplikagarria den legeria zehatzean ezarritako betekizunak biltzen direnean, baldin eta ordainarazpenean ofizioz konpentsatzeko zorrik ez badago.
4. Konpentsazioa ukatzeko erabaki arrazoituaren jakinarazpenean, ohartarazpen hau egingo zaio eskatzaileari: berehala ordaindu behar dela zorra, borondatezko epealdia amaitu den egunetik ebazpena eman arte sortutako korrituak barne. Hori guztia ez ordaintzeak berekin

ekarriko du berehala betearaztekoa izatea, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 60.3 artikuluko hirugarren paragrafoan xedatu dena aplikatuz.

5. Eskabidea aurkezten den egunetik zenbatzen hasi eta hilabeteko epean emango da ebazpena.

Eskatzaileari agiri edo informazio gehiago aurkezteko eskatzen bazaio, ebazteko epea tramite horrek irauten duen beste luzatuko da.

Gehieneko epea igarota ebazpenik eman ezean, ukatu dela ulertu ahal izango da.

6. Eta artikulua honetan xedatutakoa ez zaie ezarriko araudi honen 27.2.e) artikuluko konpentsazio-eskabideei.

44. artikulua. Konpentsazioaren ondorioak

1. Konpentsazioa erabakitakoan, iraungitzat joko dira zorrak eta kredituak diru-kopuru konkurrentean.
2. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 75.2 artikuluan aipaturiko erakunde publikoen zorrak konpentsatzen direnean, baldin eta zorra baino txikiagoa bada kreditua, ondoz ondoko konpentsazioak erabakiko dira ondoren diru-kopuru horien alde aitortuko diren kredituekin, betiere kreditua gainditzen deneko zorraren zatiagatik.
3. Gainerakoetan, kreditua zorra baino txikiagoa bada, bilketarako prozedura jarraituko da kreditua gainditzen duen zorraren zatiagatik.
4. Kreditua zorra baino handiagoa bada, konpentsazioa erabakitakoan, diferentzia ordainduko zaio interesa duen pertsonari.

45. artikulua. Zergen kontu korrontea

Zorrak konpentsazio bidez iraungi ahal izango dira, zergen kontu korrontearen sistema baten bidez, Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren foru aginduan ezarritako eskakizunekin eta baldintzekin.

IV. KAPITULUA

ZERGA BATERAEZINAK ETA DIRU-SARRERAK BESTE ADMINISTRAZIO BATEAN

46. artikulua. Egin beharreko jarduketak zerga bateraezinak eta diru-sarrerak beste administrazio batean direnean

1. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 165.7 artikuluan ezarritako kasuetan, organo eskudunak bidezkoa den zerga zehaztutakoan, ondoren agertzen den moduan jardungo da:
 - a) Lehenik eta behin zerga likidatzen bada, eginiko bigarren likidazioa baliogabetuko du organo eskudunak, eta hala denean, azken horri dagokionez sartutako diru-kopuruak itzuliko ditu.
 - b) Baldin eta zerga bigarrenik likidatzen bada, kasuen arabera jardungo da:
 - 1) Bigarrenik eginiko likidazioa irmoa denean epearen barruan errekurtsorik jarri ez delako, bidezkoa izango da zorra iraungitzea zati konkurrentean, eta bidegabeko likidazioa itzuliko da, itzulketari buruzko erabakia irmo bihurtutakoan. Hala denean, zorra iraungitzat joko da 2. zenbakian ezarritakoaren arabera, hauexetan izan ezik:
 - a) Eraginaren xedeko zerga bidegabetzat jo denean eta eragina jasan zuen eta ordaindu behar duen pertsonak eskubidea duenean bidegabe jasanarazitako zenbatekoaren kenkari oso egiteko.

- b) Eraginaren xedeko zerga bidegabetzat jo denean eta jasanarazitako subjektu pasiboak zuzendu dituen eragiketari dagozkion kuota jasanaraziak, zergari dagokion araudiarekin bat etorritik.
- 2) Bigarrenik eginiko likidazioa jasanarazi denean, ebazpen irmo bihurtu arte itxarongo da eta, ondoren, honelaxe jardungo da:
- a) Baldin eta ebazpen administratibo edo judizial irmoak bidegabetzat jotzen badu, bidezkotzat joko da hasierako zerga-ordainketa, eta eginiko diru-sarrerak itzuli beharko dira balioabeturiko likidazioari dagokionez.
 - b) Baldin eta ebazpen administratibo edo judizial irmoak bidezkotzat jotzen badu, bidezkoa izango da zorra iraungitzea, aurreko 1. atalean ezarritako eran eta baldintzetan.
2. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 165. artikuluko 8. zenbakian xedatutakoarekin bat etorritik, zerga-zorra beste administrazio bati ordaintzen zaionean zergapekoari egindako zerga-bilketa prozedura gehienez 12 hilabetez etengo da, osorik edo zati batean, inolako bermerik jarri gabe.

Zergadunak agiri bidez frogatu beharko du zerga-zorra beste administrazio batean sartu duela, eta sartutako kopuruaren intsuldaketaren eskabidea aurkeztu beharko du.

Baldin eta salbuespenezko inguruabarrak gertatzen badira, zergapekoarekin zerikusirik ez dutenak, eta zerga-zorra atal honetan ezarritako gehieneko epean ordaintzea galarazten badute, administrazioak luzatu ahal izango du.

3. Baldin eta zorra bidegabe ordaindu zeneko administrazioak zorra eskualdatzen badio zergen administrazioari, administrazio hartan eginiko ordainketa hartuko da zinez eginiko ordainketatzat.

V. KAPITULUA

KAUDIMENGABEEN AITORPENA ETA BEHIN-BEHINEKO BAJA

KAUDIMENGABEZIAGATIK

47. artikulua. Pertsona kaudimengabeen aitorpena

1. Kaudimengabetzat jotzen dira zorra ordaindu behar duten pertsonak baldin eta zorra ezin bada egin zerga-bilketako administrazio-prozeduretan edo konkurtso-prozeduretan pertsona horien kaudimengabeziagatik.
2. Zerga-bilketako organo eskudunak erabakiko du pertsona kaudimengabearen aitorpena hartzekodunen konkurtsoan deklaraturik dauden eta zorra ordaindu behar duten pertsonentzat, organo horretan dauden datuak eta eginiko jarduketak ikusita.
3. Pertsona kaudimengabearen aitorpenak erantzukizuna bideratzeko espedienteak hasteko posibilitatea emango du zorra ordaindu behar duten balizko beste pertsona batzuen kontrako erantzukizun subsidiarioagatik, baina ez du galaraziko Foru Ogasunak pertsona kaudimengabe zordunaren kontrako egintzak burutzea kobrantzarako administrazio-egintza iraungitzen ez den bitartean.

Erantzukizun subsidiarioaren aitorpena egiteko, kaudimengabetzat jo ahal izango da zorra ordaindu behar duen pertsona, horren gainean likidazio-aldia irekitzeko autoa eman bada.

4. Baldin eta zerga-bilketako organo eskudunak beste pertsona arduradunik ez dagoela erabakitzen badu pertsona kaudimengabeen adierazpena izapidetzean, kreditu kobraezinaren aitorpena ere proposatuko du, hurrengo artikuluan ezarritako ondorioak izanik.

5. Pertsona kaudimengabearen egoerak, kredituak kobraezintzat jo badira ere, ez du inola ere galaraziko horien ordainketan honako hauek aplikatu ahal izatea: traba diren diru-kopuruak, konpentsatu beharrekoak, detektatu diren edo detektatzen diren ondasunak eta/edo eskubideak besterentzearen ondorioz lortu direnak, edo beste edozein sarrera.
6. Merkataritza Erregistroan inskribaturiko sozietateei edo pertsona fisikoei dagokien kobraezinen aitortpena idatzi ahal izango da erregistro horretan, zerga-bilketako organo eskudunak emandako agindua dela bide. Hortik aurrera, Merkataritza Erregistroak organo horri jakinaraziko dio inskribatzeko aurkezturiko pertsona edo erakunde kaudimengabeei dagokien edozein ekintza.

48. artikulua. Kreditu kobraezinak

1. Zordun nagusia eta, hala denean, pertsona arduradun solidarioak eta subsidiarioak kaudimengabetzat jo ondoren, Zerga-bilketaren zuzendariordetzak kreditu kobraezinaren aitortpena egingo du zerga-bilketako organo eskudunak proposatuta.
2. Kreditu baten kobraezinaren aitortpenari esker, kontuetan baja eman ahal izango da, baina horrek ez ditu geldiaraziko bidezkoak diren zerga-bilketako jarduketak.
3. Ordaindu behar duen pertsona bat kaudimengabetzat jotzen bada, horren kontrako kredituak, aitortpenaren aurretik mugaeguneratu direnak, kobraezintzat joko dira ordaindu behar duen beste pertsonarik ez badago, premiamendu-probidentzia emateari eta jakinarazteari kalterik egin gabe.

III. TITULUA PREMIAMENDU-PROZEDURA

I. KAPITULUA PREMIAMENDU-PROZEDURA ABIARAZTEA

49. artikulua. Premiamendu-prozedura abiaraztea

Ordaindu behar duenari premiamendu-probidentzia jakinarazita abiaraziko da premiamendu-prozedura Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 60.1 artikuluan aipaturiko epealdia igarotakoan.

50. artikulua. Premiamendu-probidentzia

1. Hauexek bildu behar ditu premiamendu-probidentziak:
 - a) Izen-abizenak edo izendazioa edo sozietate egoitza osoa, identifikazio fiskaleko zenbakia eta ordaindu behar duenaren helbidea.
 - b) Zorrari dagozkion kontzeptua, zenbatekoa eta epealdia.
 - c) Berariaz adieraztea zorra ez dela ordaindu, dirua sartzeko aldia borondatezko epealdian bukatu dela eta berandutze-korrituak sortzen hasi direla.
 - d) Betearazpideko errekaruaren likidazioa eta, hala denean, korrituei dagokiena.
 - e) Berariazko errekerimendua, zorra eta dagokion errekarua ordaindu ditzan, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 60.3 artikuluan aipatzen den ezohiko epean, edo epeak mugaeguneratzean, ordainketa geroratzen edo zatikatzen bada.
 - f) Ohartarazpena: baldin ordaintzeke dagoen zorraren zenbateko osoa aipaturiko epean sartzan ez bada, ondasunak eta/edo eskubideak enbargatu edo zorra kobratzeko

dauden bermeak betearaziko dira, premiamendu-errekargua, berandutze-korrituak eta prozedurako kostuak exijituta.

- g) Premiamendu-probibentzia eman deneko data.
- 2. Zerga-billetako organo eskudunak emango ditu premiamendu-probidentziak.
- 3. Ez da emango premiamendu-probidentziarik zorreatik administrazioen zergaren alde, estatuaren, autonomia erkidegoen, erakunde autonomoen eta tokiko korporazioen zorreatik, ezta foru arau edo legez premiamenduaren xede ezin izan daitezkeen beste erakunde batzuenak ere. Halakoetan, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 75.2. artikuluan ezarritako ofiziozko konpentsazioaren araudian xedaturikoa bete beharko da.
- 4. Probidentzia bakarrean, premiamendu-prozedura abiarazteko eta zordunaren ondasunak eta/edo betearaztea erabaki ahal izango da hainbat likidazio edo autolikidazio biltzen duen zenbatekoan.

51. artikulua. Premiamendu-probidentzia jakinaraztea

Premiamendu-probidentzia zordunari jakinaraziko zaio eta gainera honako hauek bilduko dituen jakinarazpenaren bidez:

- a) Zorra ordaintzeko epea eta era.
- b) Geroratzea edo zatikatzea eskatzeko aukera.
- c) Etenaldia soilik indarreko araudian ezarritako kasuetan eta baldintzetan izango dela jasotzen duen informazioa.
- d) Zorraren kontra bidezkoak diren errekursoak, horiek aurkeztu daitezkeen organoak eta epea.

II. KAPITULUA GARAPENA

52. artikulua. Premiamendu-prozedura etetea

- 1. Baldin eta interesdunak frogatzen badu inguruabarren bat dagoela eta, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 169.2 artikulua araberan, prozedura eten beharra badago inguruabar horrengatik, jarduketak etenda gelditzen direla jakinaraziko zaio erabaki egokia eman artean.
- 2. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorra garatzen duen Araudi Orokorra eraenduko du, administrazio-bideko berrikuspenaren arloan, errekursoak edo erreklamazio ekonomiko administratiboak jartzearen ziozko etenaldia.
- 3. Delituarekin lotutako likidazioaren kobrantzarekin zerikusia duen premiamendu-prozeduraren etenaldia, zordun nagusiaren egoitzan nahiz pertsona arduradunaren egoitzan, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 253., 254. eta 256.3 artikuluetan araupeturiko erregimenarekin bat etorritik izapidetu eta ebatziko da.

53. artikulua. Bermeak betearaztea

- 1. Baldin eta zorra bermatuta badago premiamendu-prozedura abiarazteko beharrik izan gabe eta zergen administrazioak lehenik eta behin bermea betearaztea aukeratzen badu Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 172. artikuluan xedatu denarekin bat etorritik, erregela hauek aplikatuko dira:

- a) Bermea abala, fidantza, kauzio aseguruaren ziurtagiria edo berme pertsonala bada, zorra ordaintzeko eskatuko zaio bermea jarri duenari, exijitzekoak diren errekarquak eta korrituak barne, bermaturiko zenbatekoa bete arte gehienez. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 60.3 artikuluan ezarritako epean sartu beharko da diru-kopuru hori. Hala egin ezean, haren ondasunen eta/edo eskubideen kontra egingo da ordaindu behar duen pertsonaren gaineko betearazpideko titulu bera dela bide, beste jakinarazpen bat egin behar izan gabe.
 - b) Baldin eta bermea hipoteka, bahia edo ordainketa egin behar duenaren ondasunen edo eskubideen gainean jarritako beste edozein erreal bada, nahitaez besterendu daitezkeenak, Kapitulu honetako 4. atalean ezarritako prozeduraren bidez besterenduko dira.
 - c) Ordaindu behar duen ez beste pertsona baten ondasunen edo eskubideen gainean jartzen bada bermea, bermaturiko zorraren ordainketa jakinaraziko zaio, eta errekerimendua egingo zaio: ondasun edo eskubide horiek zerga-bilketako organo eskudunaren eskuetan jar ditzala, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 60.3 artikuluan xedaturiko epean, zorra ordaintzen duenean salbu. Epea igarota ordainketa egin ezean, aurreko b) letran azaldutako eran besterenduko dira.
 - d) Bermea esku-diruzko gordailua bada, ordainketa Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorreko 60.3. artikuluan ezarritako epean egin dezala eskatuko zaio gordailuzainari, eta errekerimendua bete ezik, beste izapiderik gabe, haien ondasunak eta eskubideak enbargatuko direla ohartarazten zaie. Gordailuzaina administrazioa bera bada, zorra ixteko erabiliko da gordailua.
2. Zerga-bilketako organo eskudunak betearaziko ditu hipoteken eta zergen administrazioaren kredituen berme gisa jarritako beste eskubide erreal batzuen betearazpena, premiamendu-prozeduraren bidez.

Administrazio-betearazpena abiarazten denean, zerga-bilketako organo eskudunak betearazpenaren agindua jakinaraziko dio Jabetzaren Erregistratzaileari, bi ale izango dituen aginduaren bidez, jabariaren eta kargen ziurtagiria eman dezan, Prozedura Zibilaren Legeko 688. artikuluan ezarritako edukia eta ondorioak bilduta.

Betearazpenaren berri emango die erregistratzaileak kargen ziurtagirian eta pertsona betearazlearen eskubidearen ondorengo izapideetan agertzen diren eskubideen titularrei, betiere helbidea erregistroan agerrarazita badago.

Zerga-bilketako organo eskudunak betearazteko prozeduraren hasiera jakinaraziko dio jabariaren azken inskribatzearen onura jaso duen pertsonari, lehenago ordainketa egiteko errekerimendua egin ez bazaio.

Hala denean, araudi honetako 78. artikuluan xedaturikoaren arabera ezarri ahal izango da enkanterako edo lehiaketarako tasa, hipoteka eratzean ondasuna tasatu deneko prezioa edozein delarik ere.

1. ATALA ENBARGOAK

54. artikulua. Enbargo-eginbideak

1. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 60.3 artikuluan ezarritako epea bukatzen bada eta eskaturiko sartzea egiten ez bada, bidezkoak diren ondasunak eta eskubideak enbargatuko dira, premiamendu-probidentzia dela bide.
2. Egin beharreko enbargo bakoitza enbargo-eginbidean dokumentatuko da. Ordaindu behar duen pertsona beraren hainbat zor metatu ahal izango dira, eta zerga-bilketako organo eskudunak aginduko ditu.

3. Enbargoaren ezaugarriak direla-eta hala egitea komeni denean, jarduketak egiten dituen zerga-bilketako organoetan atxikitako pertsonalak izango du eginbidea emateko eskumena, eta zerga-bilketako organo eskudunak berretsi beharko du eginbidea hamar eguneko epean. Enbargoa kendu dela ulertuko da berrespen hori eman ezean.

55. artikulua. Enbargoak egikaritzea

1. Nahiz eta enbargatu daitezkeen ondasunak ordainketa egin behar duen ez beste pertsona edo erakunde batzuen lokaletan egon, toki horretan egin ahal izango da enbargoa, eta ondasunak eman ditzala aginduko zaio gordailuzainari edo horren menpeko pertsonalari. Eginbidean zehaztuko dira ondasunok.

Baldin eta ondasunak segurtasun edo alokairuko kutxetan badaude, kutxak enbargatu eta zigilatuko dira, eta horren berri emango zaio titularrari edo baimendutako pertsonari irekitzeko baimena eman dezan 10 eguneko epean. Interesdunaren baimena lortu ezean, araudi honetako 4.4 artikuluan xedatu denarekin bat etorritik egingo da erabaki-manamendurako eskaera.

2. Kutxak berehala emateari uko eginez gero eta hori egiterik ez badago, kutxak zigilatu edo beharrezko neurriak hartuko dira, kutxak aldatzea edo altxatzea galarazteko, eta hori guztia eginbidean utziko da jasota.
3. Zerga-bilketako organoetan atxikitako langileek eurek edo agintarien laguntzaz eskuratu ahal izango dituzte ondasunak, baldin eta horiek identifikatzeko edo betearazteko beharrezkoa bada, araudi honetako 4. artikuluan xedatu denarekin bat.

56. artikulua. Enbargoen konkurrentzia

1. Baldin eta beste pertsona hartzekodun batzuen aldeko lehentasunezko eskubideak badaude Foru Ogasunak enbargaturiko ondasunen edo eskubideen gainean edo haren aldeko bermea jarri zaien gainean, eskubide horietan subrogatu ahal izango da Foru Ogasuna, bere kredituen zenbatekoa hartzekodunei ordainduta, Foru Ogasunak ondasunak besterenduta ustez eskura ditzakeen produktuak baino nabarmen txikiagoak badira kredituak.

Subrogazioa gauzatzeko, proposamena egingo du Zerga-bilketako organo eskudunak, baina Ogasun eta Finantzen foru diputatuak baimendu beharko du.

Kontzeptu horregatik ordaindutako diru-kopuruak prozedurako kostuak izango dira, eta lehentasunez aplikatuko dira ordainketa horretan Foru Ogasunak enbargaturiko ondasuna nahitaez besterentzetik eskuraturiko diru-kopuruak.

2. Enbargaturiko ondasunen edo eskubideen edo bermea jarri zaien gainean nahitaezko desjabetze-prozedura egiten bada, eraginpeko ondasunak edo eskubideak betearazteko jarduketak geldiaraziko dira, eta desjabeturiko pertsonari egin beharreko ordainketen enbargoa jakinaraziko zaio desjabetzea burutu duen administrazioari. Enbargoa desjabeturiko ondasunaren prezio irmoan egin dela ulertuko da. Irmoa ez bada, akordioa dagoen zatian eta, hori ezean, desjabetzea burutu duen administrazioak eskaintako prezioan.

57. artikulua. Enbargoak mantentzea eta kentzea

1. Edozein eratako kontratu-erlazioaren ondoriozko ondasunen edo eskubideen enbargoa egindakoan, enbargoak eraginkortasuna izango du eskuratu nahi den zorraren zenbatekoa estali arte edo zerga-bilketako organo eskudunak traba kendu arte, kontratua iraungi ez den bitartean.
2. Baldin eta enbargo guztiak edo baten bat ezeztatzeko inguruabarrak gertatzen badira, horiek kenduko dira, eta hala denean, ordaindu behar duen pertsonari emango zaizkio ondasunak, edo eskubidearen edo ondasunaren titularrari. Hartara, enbargoaren

idatzoharrak ezeztatzeko manamendua emango da, erregistro publikoan egin litezkeen idatzoharrak hain zuzen ere.

2. ATALA ENBARGO MOTAK

58. artikulua. Eskudiruzko enbargoa

1. Eskudiruzko enbargoa egiten denean, hala agerraraziko da bi kopia izango dituen eginbidean. Aleetako bat espedienteari gehituko zaio, eta bestea ematea burutu duen zordunaren esku geldituko da. Dirua berehala sartuko da Foru Administrazioan.
2. Martxan diren enpresen edo erakundeen kutzak, armairuak edo antzekoak badira, Zerga-bilketako organo eskudunak egin beharreko ordainketak erabaki ditzake, zerga-bilketa horren kargura egin beharrekoak, betiere haiek ez geldiarazteko beharrezkoak badira.

59. artikulua. Ondasunen edo eskubideen enbargoa kreditu edo gordailu erakundeetan

1. Kreditu erakunde bati edo beste pertsona edo erakunde gordailuzain edo kudeatzaile bati emandako edo utzitako fondoak, balioak, tituluak edo bete eskubide edo ondasun batzuk enbargatzen badira, pertsona horiek aurretik identifikatu behar izan gabe, toki hauetan aurkeztu ahal izango da enbargo-eginbidea:
 - a) Kreditu erakundearen edo pertsona edo erakunde gordailuzainaren egoitza fiskalean edo sozialean.
 - b) Pertsona edo erakunde horrek jarduteko darabilen edozein bulegotan, sukurtsaletan edo agentzian.
 - c) Baliozko edozein bitarteko elektronikoa erabiliz.
2. Enbargo-eginbidea jasota, berehala atxikiko dira ondasunak eta eskubideak ordainketa egin behar duen pertsonari enbargaturiko zenbatekoan. Zorra estaltzen ez bada ekitaldian egin daitezkeen gordailuen edo ondasunen eta eskubideen kontuetako saldoekin, beste bitarteko batzuen bidez ezarri beharreko balioa duten ondasunak eta eskubideak tratatu eta horien zerrenda jakinaraziko zaio zerga-bilketako organo eskudunari, behin betiko enbargatuta gelditu behar direnak erabaki eta gainerakoetan traba ken dezan.
3. Enbargoaren erakunde edo pertsona hartzaileak eskudiruari edo berehala egin ditzakeen ondasunei edo eskubideei dagozkien atxikitako diru-kopuruen zenbatekoa horretarako ezarritako kontuan sartuko da, enbargo-eginbidea jasotzen denetik hamar egun baliodun igarotakoan, betiere zerga-bilketako organo eskudunak kontrakoa adierazteko jakinarazpenik jaso ez bada.

Eperako gordailuak edo beste finantza-produktu batzuk badira, epea mugaeguneratu ez bada eta edukitzeko aurretiazko ahalmenik ez badago, mugaeguneratzen den datan sartuko da enbargaturiko zenbatekoa. Gordailua aurretiaz edukitzeko ahalmena badago, zehapena deskontatuko da enbargaturiko zenbatekotik, eta sarrera garbia aurreko paragrafoan ezarritako epean gauzatuko da.

60. artikulua. Soldaten, ordainsarien eta pentsioen enbargoa

1. Prozedura Zibilaren Legean xedaturikoa kontuan hartuta egingo da soldaten, ordainsarien eta pentsioen enbargoa.

Enbargoa dagokion eginbidean dokumentatuko da, eta zordunari eta ordaintzaileari jakinaraziko zaie. Ordaintzailea behartuta egongo da ondoz ondo ordaindutako zenbatekoen gainean kasuan kasuko kopuruak atxikitzen, eta murriztutako zenbatekoa Foru Diruzaintzan sartzen, enbargatutako kopurua osatzeraino.

2. Zorduna halako ordainketa bat baino gehiagoren onuraduna bada, pilatuko zaizkio enbargatzerik ez dagoen zatia behin baino ez ateratzeko. Enbargatutako kopurua zerga-bilketako organo eskudunak finkatzen duen ordainsaritik (batetik ala gehiagotatik) kendu ahalko da. Zordunak beren beregi beste bat proposatzen badu onartu egingo zaio, baldin eta hortik kobratzeko oztoporik sortzen ez bada.

61. artikulua. Ondasun higiezinaren eta horien gaineko eskubideen enbargoa

1. Diligentziaren bidez egingo da enbargoa, eta inguruabar hauek zehaztuko dira, horrelakorik balego:
 - a) Titularraren izen-abizenak, sozietate egoitza edo titularraren izena eta, hala denean, enbargaturiko finkaren jabearena, identifikazio fiskaleko zenbakia eta hura identifikatzeko balio dezaketen datuak.
 - b) Landa finkak badira, finkaren izaera eta izena, hura kokatuta dagoen udal-mugartea eta kokapena herrian izendaturiko arabera, mugak, azalera, edukiera eta erregistroko identifikazioa edo, hori ezean, katastrokoa.
 - c) Hiri finkak badira, herria, kalea eta zenbakia, lokalak eta pisuak eta azalera, eta erregistroko identifikazioa edo, hori ezean, katastrokoa.
 - d) Zordunak enbargaturiko higiezinaren gainean dituen eskubideak.
 - e) Zorraren zenbateko osoa, dagokion kontzeptua edo kontzeptuak eta printzipalagatik, errekaragatik, korrituengatik eta kostuengatik higiezinari dagokion erantzukizunaren zenbatekoa.
 - f) Ohartarazpena: enbargoaren prebentziozko idatzoharra egingo da Jabetzaren Erregistroan foru administrazioren alde edo, hala denean, betearazpena dakarren kredituaren erakunde titularraren alde.
2. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 174. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik jakinaraziko da ondasun higiezinaren eta horien gaineko eskubide errealen enbargoa.
3. Mugaketa egin beharra badago, zerga-bilketako zuzendariordetzak Ogasun eta Finantza Saileko teknikari bat izendatuko du, edo enpresa espezializatuen zerbitzuak kontratatuko ditu. Kasu bietan, hamabost eguneko epean egingo da agindutako kudeaketa.
4. Enbargoaren ondorioetarako, merkataritzako ontziak ondasun higiezintzat joko dira, eta araudi honen artikuluko honetako eta hurrengoetako arauak betez egingo da enbargoa aplikagarria den alderdietan.

Nolanahi ere, merkataritzako ontzi baten edo beste ontzi baten enbargoa erabakitzen bada, prebentziozko idatzoharra egingo da Ondasun Higigarrien Erregistroko Ontzien

62. artikulua. Enbargoaren prebentziozko idatzoharra Jabetzaren Erregistroan

1. Zergen administrazioak ondasun higiezinaren eta horien gaineko eskubideen enbargoaren prebentziozko idatzoharra dagokion Jabetzaren Erregistroan egiteko eskatuko du.
2. Horretarako, zerga-bilketako organo eskudunak erregistroari zuzendutako manamendua emango du, hipotekei buruzko legerian xedatu dena eta hurrengo artikuluetan ezarritakoa betez.

Araudian exijituriko jakinarazpen guztiak burutu direla egiaztatuko da, eta hala ez bada, egikaritu egingo dira. Kautelazko enbargoak badira, hala egingo dira enbargoak behin betikoak direnean. Nolanahi ere, enbargoaren idatzohararen aurreko eta ondorengo kargen titularrei jakinaraziko zaie enbargoa.

3. Premiamendua duten zorrak zergeri badagozkie eta horiek aurretiaz ordaindu ezean ezin bada inskribatu erregistroan zorrak eragin dituen egintza edo kontratua, prozedura enbargo aldira iristean, honelaxe jokatuko da:
 - a) Zerga-billetako organo eskudunak zorren ordainketa geroratzea erabakiko edo geroratzeko eskaera organo eskudunari egitea erabakiko du, soili-soilik ondasunak inskribatzeko eta enbargoaren prebentziozko idatzoharra egiteko foru administrazioaren alde. Zergaren likidazioa ezarri duten dokumentuetan agerraraziko da geroratzeko erabakia; izan ere, dokumentu horiek direla bide egin beharko da erregistroko inskribatzea.
 - b) Dokumentu horiek eta enbargoa egiteko manamendua Jabetzaren Erregistroan aurkeztuko dira, eta Jabetza Erregistroak, zordunaren eskubidea inskribatu ondoren, betiere zorraren ordainketa geroratu dela aipatuta, berehala idatziko du enbargoa.
 - c) Baldin eta zergaren likidazioa dokumentuen gainean egin bada eta dokumentu horiek ezin inskriba badaitezke originalen edo nagusien benetako kopiak direlako, benetako kopia eman dezala eskatuko zaio agiriak baimendu zituen notariari —edo funtzionarioei— non geroratzeko erabakia ezarriko baita.
 - d) Enbargaturiko ondasunak eta/edo eskubideak besterentzen direnean, likidazioen ordainketari eta bidezkoak diren gainerako erantzukizunei aplikatuko zaie lorturiko prezioa. Aplikazio horren ziurtagiria Erregistroan aurkeztuko da, eta enbargoa eta gerorapen-oharrak ezeztatuko dira. Esleipen-aktaren ziurtagirian, hala denean, salmenta-eskrituran, hori guztia agerraraziko da. Ondasunak foru administratioari edo erakunde hartzekodunari esleitzea erabakitzen bada, ondorio berak izango ditu egiaztagiriak.

63. artikulua. Enbargoaren prebentziozko idatzoharrerako manamenduen gaineko beharkizunak

1. Ondasun higiezinaren eta horien gaineko eskubide errealeen enbargoaren prebentziozko idatzoharra egiteko, bitarteko elektronikoak erabil daitezke erregistroen titularrek eta zerga-billetako organo eskudunak hala erabakitzen dutenean.

Premiamendu-prozedurako jarduketek hala exijitzen dutenean, enbargoaren prebentziozko idatzoharraren luzapena eskatuko da, hipotekei buruzko legerian xedatu denarekin bat etorrita.
2. Zerga-billetako organo eskudunak higiezinaren enbargoaren prebentziozko idatzoharrerako emandako manamenduetan, honako beharkizun hauek bildu beharko dira:
 - a) Kasuan kasuko higiezinaren edo higiezinaren premiamendu-probidentziaren eta enbargoaren eginbidearen kopia, enbargoa nortzuei eta zein izateagatik jakinarazi zitzaizkien adierazita.
 - b) Zordunak enbargaturiko ondasunen gainean duen eskubidearen deskribapena.
 - c) Manamendua jaso duten finken jabearen izen-abizenak, hala denean.
 - d) Zorraren zenbateko osoa, dagokion kontzeptua edo kontzeptuak, eta printzipalagatik, errekaragatik, korrituengatik eta kostuengatik higiezinari dagokion erantzukizunaren zenbatekoa.
 - e) Idatzoharra foru administratioaren edo erakunde publiko hartzekodunaren alde egin behar dela aipatzea.
 - f) Administrazioak, manamendua ematean, ezin izango du honako honetan enbargaturiko eskubideen eta/edo eskubideen gainean agertzen direnak baino datu gehiagorik eman, eta halaxe agerraraziko da.

64. artikulua. Enbargoaren prebentziozko idatzoharrerako manamendua aurkeztea

1. Manamenduak Jabetzaren Erregistroetan aurkeztuta, manamenduaren aurkezpenaren idazpenari buruzko oharra emango dute, baita idatzoharra eman izanari edo egin ezin izanari buruzko egiaztapen-oharra ere. Horretarako, zehazki azalduko dira ikusitako akatsak eta horiek konpontzeko era eta baliabideak.
2. Finka inskribatuta ez badago edo idatzoharra ezin eman badaiteke zuzendu daitezkeen akatsaren zioz, enbargoa utziko da jasota emango da eta hala agerraraziko da manamenduari emandako erantzunean.

65. artikulua. Enbargoaren prebentziozko idatzoharretan dagoen eragina

1. Baldin eta Jabetza Erregistroek manamendua itzultzen badute eta zuzendu daitezkeen akatsaren zioz idatzoharra eten izana adierazten badute, berehala zuzenduko da eta, ahal bada, ondoren.
2. Hipotekei buruzko legerian ezarri den eta zuzendu daitezkeen akatsen zioz egin den idatzoharra iraungi ez dadin, zerga-bilketako organo eskudunak, beharrezkoa bada, legeriak baimendutako luzapena eska dezake.
3. Baldin eta ukatu egiten bada ondasunak beste pertsona baten izenean inskribatuta daudelako eta isilbidezko lege hipoteka bada, zorra errekarurik gabe ordaintzeko eskatuko zaio, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 60.1.a) artikuluan ezarritako epean eta, hala egingo ez balu, premiamendu-probidentzia emango da haren aurka, eta ondoren prozeduraren kontra.
4. Jabetza Erregistroaren erabakiekin ados egon ezean, bidezkoa bada, erregistroko kalifikazioaren kontrako errekurtsua jarriko da.

66. artikulua. Ondasun higiezinak baliatzeko debekua akzioen eta partaidetzen enbargoaren zioz

1. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 174.7 artikuluan aipaturiko ondasunak baliatzeko debekuak aplikatzeko, ondasun higigarriak eta higiezinak eta horien gaineko eskubideak baliatzeko debekuaren prebentziozko idatzoharra erregistroetan egiteko eska dezake Foru Administrazioak, betiere titulua oinarri hartuta, baina horren zioa den enbargoak berak zehaztuko duen indarraldia izango du.
2. Horretarako, zerga-bilketako organo eskudunak erregistroari zuzendutako manamendua emango du, 174. artikuluan, hipotekei buruzko legerian eta araudi honetako 62. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoari jarraiki aplikatu beharreko alderdietan.

67. artikulua. Korritu, produktu, errenta eta era guztietako fruituen enbargoa

1. Ordaindu behar duenaren korrituak, produktuak, errentak eta fruituak enbargatzen badira eta eskudirutan eginiko ordainketetan gauzatzen badira, pertsona horri eta pertsona edo erakunde ordaintzaileari jakinaraziko zaio, eta pertsona horrek atxiki eta foru administrazioan sartu behar ditu zor den diru-kopurua bete arte.
2. Enbargatu beharreko fruituak edo produktuak direnean eta Jabetza Intelektualaren Legeak babesturiko obra bat ustiatzeko eskubideei dagozkienean, ordainsaritzat joko dira, Lege horretan ezarritakoaren arabera, eta araudi honetan xedatu denarekin bat etorri egingo da enbargoa.
3. Merkataritzako, industriako eta nekazaritzako jarduerak edo enpresek lorturiko produktuak edo errentak badira, funtzionario edo profesional bat izendatu ahal izango da, administrazio lanak egiteko edo negozioaren kudeaketan esku har dezan. Izendatu baino lehen, enpresaren administrazio organoari edo establezimenduari edo negozioaren titularrari entzunaldia eman behar zaio, Ogasuneko zuzendaritza nagusiaren ebazpenaren bidez.

Hartara, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 174.6 artikuluan ezarritako kausak badirela uste izateko zioak emango dira ebazpenean, eta kudeaketa edo administrazio egintzak zehaztuko dira, egikaritu baino lehen fiskalizatuko direnak.

Dagoeneko esku-hartze edo administrazio judiziala bada, zorduna konkurtso-egoeran dagoela-eta, edo beste edozein arrazoi tarteko, esku-hartzaile edo administratzaile judiziala bera izendatu daiteke administratzaile, betiere kargua onartzen badu eta eginkizun horretarako beste pertsona bat izendatzeko arrazoirik ez badago.

4. Fruituak aseguratuta badaude, ezbeharra denean bidezkoak diren kalte-ordainen edo prestazioen enbargoa jakinarazi ahal izango zaio aseguru-erakundeari. Foru Administrazioan sartu beharko dira kalte-ordainak, ezbeharra gertatu ondoren.

68. artikulua. Merkataritzako eta industriako establezimenduen enbargoa

1. Enbargoa egiten denean, eginbidea emango da, non enbargaturiko establezimenduan dauden ondasun eta eskubide guztiak inbentarioan jasota daudela agerraraziko den. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 174. artikuluan xedatu denaren arabera jakinaraziko da eginbide hori, baita errentatzaileari ere errentan emandako ondasun higiezinak bada.
2. Enbargoak honako ondasun eta eskubide hauek izango ditu barne, horrelakorik balego:
 - a) Negozioaren lokalaren —errentan ematen bada— errentamendu-kontratua eta instalazioak lagatzeko eskubidea.
 - b) Jabetza intelektualaren eta industrialaren eskubideak.
 - c) Tresnak, makinak, altzariak, lanabesak eta ekoizpenerako eta lanerako gainerako tresnak.
 - d) Merkatu-gaiak eta lehengaiak.
 - e) Balizko kalte-ordainak.
 - f) Enbargatu daitezkeen beste edozein ondasun eta eskubide.
3. Enbargoaren prebentziozko idatzoharra egingo da erregistro egokietan, eta horretarako, manamendua emango da.
4. Kasuaren inguruabarren arabera, neurri hauetako bat hartzea erabakiko daiteke:
 - a) Lokala zigilatzea enbargaturiko ondasuna besterendu arte.
 - b) Funtzionarioa edo profesionala izendatzea, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 174.6 artikuluan eta araudi honetako 67.3 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.
5. Kapitulu honetako 4. atalean ezarritako prozeduraren bidez besterenduko dira merkataritzako eta industriako establezimenduak.

69. artikulua. Gainerako ondasun higigarrien eta azienden enbargoa

1. Baldin eta enbargoa egiteko titularraren baimena behar duen edozein tokitan sartu beharra badago eta pertsona horrek baimenik ematen ez badu, araudi honetako 4. artikuluan xedatu denarekin bat etorritik jardungo da.
2. Enbargoaren jarduketaren gaineko diligenzia emango da. Ordaindu behar duen pertsona ez badago enbargoa emateko ekitaldian, jakinarazpena igorriko zaio. Ondasunak berehala

gordailutu ezean, ondasunak zigilatu egingo da edo ondasunak bermatzeko bidezkoak diren bestelako neurriak hartuko dira.

3. 3. Enbargoak Ondasun Higigarrien Erregistroan inskriba daitezkeen ondasunei eta/edo eskubideei eragiten badie, enbargarako manamendua eman dezake jarraian prozedura garatzen duen zerga-bilketako organoak, herriko erregistroan prebentziozko idatzoharra egiteko. Bere araudian ezarritako eran emango dira manamenduak.
4. Autoak, kamioiak, motozikletak, aireontziak edo beste ibilgailu batzuk direnean, ordainketa egin behar duen pertsonari jakinaraziko zaio enbargoa, eta errekerimendu hau egingo zaio: bost eguneko epean, zerga-bilketako organo eskudunaren eskuetan jar ditzala, dokumentazioa eta giltzak barne. Hala egin ezean, zirkulazioaren zaintza eta bidezkoak diren gainerakoak haren kargura izan daitezela agindu dakieke agintariei, ondasunak hartu, gordailutu eta zigilatzeke ondasunak dauden tokian bertan eta eskualdaketa edo Foru Ogasunaren eskubideetarako kaltegarria den beste edozein jarduketara galarazteko.
5. Eperako salmenta sistemaren bidez eskuraturiko ondasunen enbargoa denean, bere araudian ezarritako xedapenak izango dira kontuan.

70. artikulua. Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundean, Pentsio Planean, Gizarte Aurreikuspeneko Mutualitateetan, Aseguraturiko Aurreikuspen Planean edo aurreikuspeneko beste sistema batzuetan finkaturiko eskubideen enbargoa

1. Araudian ahalbidetzen den moduan, enbargatu egin daiteke Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundean, Pentsio Planean, Gizarte Aurreikuspeneko Mutualitateetan, Aseguraturiko Aurreikuspen Planean edo aurreikuspeneko beste sistema batzuetan parte hartzen duen pertsonaren prestazioetarako eskubidea, baina enbargoa edo traba ez da betearaziko prestaziorako eskubidea sortu edo erreskaterako aurreikusitako inguruabarrak gertatu arte.
2. Erakunde kudeatzaileek edo gordailuzainek enbargoa idatziko dute, eta horren berri emango diote zerga-bilketako organo jarduleari hamar eguneko epean. Horretarako, planaren edo kontrataturiko fondoaren ezaugarriari, finkaturiko eskubideei, erreskatea aurreratua egiteko posibilitateari eta datari eta gauzatua izateko ekonomiaren aldetik garrantzizkoa den beste edozein daturi buruzko informazioa emango du. Aurretiazko trabaren bat balego, horren berri emango diote zerga-bilketako organoari jakinarazpen horretan, betiere trabaren ezaugarriak adierazita.
3. Enbargoa jakinarazten den unetik zergen administrazioak enbargoa kendu arte, ordaindu behar duen pertsonaren alde sor litezkeen diru-kopuruak atxiki behar dituzte nahitaez erakunde kudeatzaileek edo gordailuzainek, diru-kopuruok jaso beharra dakarten arrazoiak direla medio. Erreskaterako inguruabarrak gertatzen badira eta ordainketa egin behar duen pertsonak bere eskubidea erabiltzen ez badu, zergen administrazioak pertsona hori ordezkatu dezake aukera egiteko eskubidea erabiltzeko.
4. Finkaturiko eskubideak beste plan batera mugitzen badira, horren berri eman beharko dio erakunde kudeatzaileak zergen administrazioari, eta haren aurrean egiaztatu beharko du enbargoa xedeko planaren erakunde gordailuzainei edo kudeatzaileei jakinarazi izana, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 41.4 artikuluan xedatu denaren ondorioetarako.

71. artikulua. Beste kreditu, efektu eta eskubide batzuen enbargoa

Aurreko artikuluetan ezarritakoak ez beste kredituak, efektuak eta eskubideak direnean, honelaxe jardungo da:

- a) Bermerik gabeko kredituak eta eskubideak badira, zordunari eta ordaindu behar duenari edo horren erakunde zordunari jakinaraziko zaie enbargoa, hauxe ohartarazita: jakinarazpena egiten denetik, ordaindu behar duenari eginiko ordainketak ez duela kitatzeko ondorioz izango. Enbargaturiko kreditua edo eskubidea mugaeguneratzen

denean, Foru Administrazioan sartu beharko da zenbatekoa, zorra estaltzeko beste. Bestela, kreditua zor horri lotuta geratuko da mugaeguneratzen den arte, lehenago ordaintzen ez bada. Kreditua edo eskubidea elkarren segidako ordainketak badira, ordaintzaileak foru administrazioan sartu beharko du behar besteko kopururaino.

- b) Kreditu bermatuak badira, pertsona bermatzaileari ere jakinaraziko zaio edo, hala denean, berme gisa eskainitako ondasuna edo eskubidea duen pertsonari; kreditua mugaeguneratu arte gordailutu ahal izango da. Kreditua mugaeguneratutakoan, zorra ordaindu ezean, bermea betearaztea sustatuko da.
- c) Partaidetzak enbargatzen badira sozietate zibiletan, kolektiboetan, sozietate komanditarioetan, erantzukizun mugatuko sozietateetan edo bigarren mailako merkatu ofizialetan kotizatzen ez duten sozietateko akzioetan, Bazkideen Erregistro Liburuan idatziko dira eta, hala denean, akzioak edo partaidetzak askatasunez eskualdatzea mugatzeko itunak daudela jakinarazi beharko diote zerga-bilketako organo eskudunari. Bazkideek eroslehetasuna badute, gainera, erakundeko gainerako bazkideei jakinaraziko zaie.

3. ATALA **ENBARGATURIKO ONDASUNEN GORDAILUA**

72. artikulua. Enbargaturiko ondasunen gordailua

1. Zerga-bilketako organo eskudunak, hala denean, erabakiko du non gordailutu behar diren enbargaturiko ondasunak, artikulua honetan ezarritako irizpideei jarraituz betiere.
2. Kreditu erakundeetan dauden ondasunak enbargatzen direnean, edo zerga-bilketako organoaren iritziz segurtasun eta gaudimenaren aldetik bermeak eskaintzen dituzten beste erakunde batzuetan, horietan mantenduko dira organo horren eskuragarri.
3. Zerga-bilketako organoaren iritziz ondasun hori gordailutzeko baldintza egokiak dituzten lokaletan gordailutuko dira gainerako ondasunak. Ordaindu behar duen pertsonaren lokaletan egin ahal izango da gordailua garraiatzeko edo mugitzeko zailak diren ondasunak badira. Hala denean, zigilatu edo beharrezko neurriak hartuko dira ondasunen segurtasuna eta osotasuna bermatzeko, eta ordainketa egin behar duen pertsonak nahitaez bete behar ditu gordailuzainaren eginkizunak, betebeharrak eta erantzukizunak, araudi honetako 73. eta 74. artikuluetan aipatuak.
4. Baldin eta gordailuak egiten diharduten enpresen edo ordainketa egin behar duen ez beste pertsona fisiko edo juridiko batzuen lokaletako gordailuak badira, herri administrazioen kontratuei buruzko legeriak eraenduko ditu administrazioaren eta gordailuzainaren arteko harremanak Atal honetan ezarrita ez dagoenari dagokionez.
5. Baldin eta enbargaturiko ondasunak gordailutzeko hasieran aukeraturiko tokiak dagoeneko beharrezko baldintzak betetzen ez baditu edo gordailuzainak ez baditu betetzen dagozkion eginkizunak, zerga-bilketako organoak toki edo gordailuzain berri egokia izendatzeko erabakia hartuko du.

73. artikulua. Gordailuzainaren eginkizunak

1. Gordailuzainak nahitaez zaindu eta artatu behar ditu enbargaturiko ondasunak eta horiek itzuli horretarako eskaera egiten denean. Arreta egokiarekin jardun beharko da eginkizun hori betetzean.

Gordailuzainaren eginkizunek berekin badakartzate enbargaturiko ondasunak zaintze, artatze eta itzultze hutsetik harago doazen ekintzak, zerga-bilketako organo eskudunaren baimena beharko dute.

2. Baldin eta merkataritzako eta industriako establezimenduetako enbargoa bada eta gordailuzaina edo administratzailea izendatzen bada, aipaturikoez gain, ondasunak eta

negozioak kudeatzeko ohikoak diren eginkizunak izango ditu, eta emaitzako diru-kopuruak sartu beharko ditu foru administrazioan.

Gordailuzaina izendatzean, zerga-bilketako organo eskudunaren baimena behar duen eragiketa mota eta zenbatekoa ezarriko dira.

74. artikulua. Gordailuzainaren eskubideak, betebeharrak eta erantzukizuna

1. Gordailuzainak, gordailuzaina eta ordaindu behar duen pertsona bera denean izan ezik, eskubidea du bere zerbitzuak emateagatik hitzarturiko ordainsaria jasotzeko eta gordailuaren zioz jakinarazi zaizkion gastuak itzultzeko, ordainsari horren barne ez daudenean.
2. Gordailuzain gisa eta, hala denean, administratzailea modura, dituen eginkizunei datzekien betebeharrak gain, zerga-bilketako organoak agindutako kontuak eman eta organo horrek ondasunak hobeto administratzeko eta zaintzeko erabakitako neurriak bete beharko ditu nahitaez.
3. Gordailuzainari erantzukizun zibila edo penala eska dakioket halakoa den aldetik dagozkion betebeharrak ez betetzeagatik. Halaber, zorraren erantzule solidarioa izango da enbargaturiko ondasunak kentzea baimentzen edo horretan laguntzen badu, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 41.5 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

4. ATALA ONDASUNAK ETA/EDO ESKUBIDEAK BESTERENTZEA

75. artikulua.—Enbargaturiko balioak edo berma eratu deneko balioak besterentzea

1. Enbargaturiko balioak edo bermea jarri zaien balioak, baldin eta negoziatorako onartuta badaude merkatuetan eta gordailu-erakundeetan edo beste erakunde batzuetan gordailututa badaude, honelaxe egingo dira:
 - a) Zerga-bilketako organo eskudunak balioak besterentzeko agindua emango du balio horiek nahikoak badira ordaintzeke dagoen zorraren zenbateko osoa estaltzeko, berandutze-korrituak, errekarguak eta kostuak barne, merkatu ofizialaren bidez ahalik eta baldintzarik hoberenetan. Erakunde gordailuzainak edo kudeatzaileak bidezkoak diren gastuak eta komisioak kendu ahal izango ditu lorturiko zenbatekotik. Agindua erakunde gordailuzainaren edo kudeatzailearen bidez izapidetzen ez bada, zerga-bilketako organo eskudunak erakunde araupetzaileari helaraziko dio, betearaz dezan.
 - b) Emaitzako zenbatekoa berehala ordainduko da administrazioak horretarako ezarritako kontuan eta, soberakina balego, jabeen esku jarriko da. Baldin eta emaitzako diru-kopurua nahikoa ez bada enbargatu beharreko zenbatekoa osorik estali ahal izateko, gainerako balioak besterentzen jarraituko da, zorra itxi artean. Zor osoa estalitakoan, gainerako balioen gaineko traba kenduko da.
2. Baldin eta balioak ez badaude onartuta negoziatorako bigarren mailako merkatuan, saltzeko erabakia hartuko da Atal honetako hurrengo artikuluetan xedatu denarekin bat.
3. Zorra ixteko egokiagoa denean, zerga-bilketako organo eskudunak, balioak besterendu beharrean, dibidenduak, korrituak eta era guztietako errendimenduak enbargatzeko erabakia har dezake eta, hala denean, itzulketak, mugaeguneratu arte itxaron barik.

76. artikulua. Loteak eratzea

1. Enbargaturiko ondasun eta/edo ondasunak edo bermea jarri direneko eskubideak lotetan banatu ahal izango dira izaera berekoak diren horietako bakoitzean, haien ezaugarriak eta eman dezaketen aprobetxamenduak edo zerbitzuak erreparatuta.

2. Era berean, lotetan banatu ahal izango dira, lizitaziorako konkurrentziarako erraztasun handiagoak lortzeko komenigarritzat jotzen denean.
3. Lote bakarra eratu ahal izango da enbargaturiko ondasun eta/edo ondasunen edo bermea zaienen gainean baldin eta hipoteka edo bestelako edozein karga edo zama errealarekin zergapetuta badaude edo eskubideak ondasun beraren gainean besterendu nahi direnean, zeinaren titulartasuna hainbat zorduni dagokien.

77. artikulua. Ondasunen balorazioa

1. Zerga-bilketako organo eskudunak enbargaturiko ondasunak eta/edo eskubideen balorazioa eskatuko du, edo bermea jarri zaienen gainean, merkatuko prezioak erreferentziatzen hartuta. Zerbitzuaren iritziz ezagupen bereziak behar badira, ondasunak Bizkaiko Foru Aldundiaren beste zerbitzu batzuek edo kanpoko agente espezializatuek baloratuko dituzte.
2. Inskriba daitezkeen ondasun eta eskubideak direnean, Erregistroak jabariaren eta zamen gainean luzatutako ziurtagiria ikusita, zerga-bilketako organoak lehendik inskribatuta zeuden zamek irauten duten ala inskribatu osteko ordainketen ondorioz aldatu diren ikertuko du. Horretarako, zerga-bilketako organoak lehentasuna daukaten aurreko kredituen titularrengana jo ahalko du bermatutako kreditu horrek oraindik dirauen eta egun zenbatekoa den berri eman diezaioten.

Informazio hori eskatzen zaien hartzekodunek ahalik eta zehatzen argitu beharko dute, araudi honetako 3.5 artikuluan ezarritako epean, kredituak dirauen edo edozergatik iraungi den; eta irautekotan, ordaintzeko zenbat geratzen den, mugaeguna zein den eta ordainketa zer epe eta baldintzatan egin behar den zehaztu beharko dute. Kreditua mugaeguneratuta eta ordaindu gabe badago, mugaegunera heldu diren berandutze-korrituak eta atzerapen egun bakoitzeko zenbatekoak diren ere zehaztuko da.

Hobespena aurreko enbargo idatzoharretik sortutakoa bada, informazioa gertatutako egunean mugaeguneratutako ordainketa nagusiagatik eta korrituengatik ordaintzeko dagoen zenbatekoa adieraziko da, baita igaro den egun bakoitzeko berandutze-korrituen zenbatekoa ere, hartzekodunari ordainketarik egin gabe, ezta kostuen aurreikuspenik ere.

78. artikulua. Besterentzeko tasa ezartzea

1. Hara zein izango den besterentzeko oinarria:
 - a) Enbargaturiko ondasun eta/edo ondasunen edo bermea jarri zaienen gainean kargarik edo zamarik ez badago, balorazioaren zenbatekoa.
 - b) Enbargaturiko ondasun eta/edo ondasunen edo bermea jarri zaienen gainean karga edo zama errealik ez badago, hauexek izango dira besterentzeko tasak:
 - Karga edo zamak ondasunaren balorazioa baino handiagoak ez badira: ondasunen balioaren eta Foru Administrazioaren alde idatziz jasotako eskubidearen aurreko zama edo kargen balio eguneratuaren arteko diferentzia.
 - Karga edo zamak ondasunaren balorazioa baino handiagoak badira, ez da oinarririk finkatuko enkanterako.

Aurreko karga edo zama horiek hor iraungo dute, beren iraungipenari erremateko preziorik aplikatu gabe.

2. Lehentasunezko zama guztiak edo baten bat simulatuak diren zantzurik badago, eta zenbatekoak zorraren eraginkortasuna eragotzi edo zail balezake, jarduketak Lege Aholkularitzako Zerbitzura bidaliko dira har daitezkeen neurriei (erantzukizun zibil edo zigor erantzukizuna barne) buruzko txostena eman dezan. Hori guztia ebatzen den bitartean, prozedurak aurrera segituko du ondasun horietan edo enbarga daitezkeen gainerakoetan.

79. artikulua. Besterentzeko erak

1. Enbargaturiko ondasun eta/edo ondasunen edo bermea arri zaienen gainean kargarik edo zamarik ez badago, enkante publiko, lehiaketa publiko edo zuzeneko esleipenaren bidez egingo da besterentzea.
2. Enbargaturiko ondasun eta/edo ondasunen edo bermea jarri zaienen gaineko ohiko prozedura jendaurreko enkantea izango da, eta bidezkoa izango da, besterentzako beste erarik berariaz aplikatu beharrik ez badago.
3. Besterentzeko era edozein delarik ere, foru administrazioak esleipenerako lehentasunezko aukera izango du, gainerako eskaintzen berri izan ondoren, eskaintzarik handiena berdintzea edo gaintitza erabakitzen badu. Aukera hori baliatu ahal du hamar egun baliaduneko epea, eskaintzak Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren foru aginduaren bidez irekitzen direnetik.
4. Ogasun eta Finantzen foru diputatuari baimena ematen zaio besterentze-prozedurak izapide elektronikoen bidez egiteko.
5. Pertsona edo erakunde espezializatuen bitartez baimendu ahal izango da besterentzea.

80. artikulua. Enkante bidezko besterentzea

1. Besterentzeari buruzko erabakia Zerga-bilketako organo eskudunak erabakia emango du enbargaturiko ondasunen eta/edo eskubideen enkante publikoaren bidezko salmenta ezarrita, edo bermea jarri zaienen gainean. Hauxe ezarriko da erabakian:
 - a) Ondasunen eta/edo eskubideen edo loteen deskribapena eta besterentzeko ordena.
 - b) Indarrean gelditu behar diren eta ondasunei eragiten dieten ondasunen eta/edo eskubideen eta titularren kargak, zamak eta egoera juridikoak adieraztea.
 - c) Lizitazio tasa.
 - d) Lizitazioa egiteko jarri beharreko bermearen gordailua, gehienez lizitazio tasaren ehuneko bostekoa izango dena.
 - e) Eskaintzak aurkezteko epea, tokia eta era.
 - f) Foru administrazioak lehentasunez erosteko aukera.
 - g) Esleipendunak jarritako gordailuaren eta esleipenaren prezioaren arteko diferentzia emateko ezarritako epea. Gehienez hilabeteko epea izango da, esleipendunari esleipen-akta jakinarazten zaionetik zenbatzen hasita, araudi honetan foru administrazioak eroslehentasuna izateko aukera baliatzeko 79.3 artikuluan aipaturiko epea igarotakoan. Horrez gain, hauxe ezarriko da: ordainketa egin ezean, galdu egingo da jarritako diru-kopurua, eta inolaz ere ezin izango du laga ondasuna beste pertsona bati esleitzeko eskubidea.
 - h) Eskaintzak irekitzeko jendaurreko ekitaldia egiteko tokia, eguna, ordua eta lokala.
 - i) Ohartarazpena: esleipendunaren kontura izango dira betearazitako ondasunari dagozkion ezeztapenen eta idatzoharren ziozko gastuak eta erregistroko kostuak.
 - j) Berariaz adieraziko da esleipen tasan ez direla sartzen ondasun eta/edo eskubide horiek eskualdatzea zergapetzen zuten zeharkako zergak.
 - k) Agerrarazi egin beharko da esleipen-akta sinatu aurreko edozein unetan, enbargaturiko ondasunak edo eskubideak libratu ahal izango dira, zorra eta prozedura kostuak ordainduta.

- l) Besterentzean kontuan hartu beharreko beste edozein inguruabar, klausula edo baldintza.

2. Besterentzeari buruzko erabakiaren jakinarazpena

Ordaindu behar duen pertsonari, ezkontideari edo izatezko bikoteari jakinaraziko zaio besterentzeari buruzko erabakia, maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatu denarekin bat, irabazpidezko ondasunak badira, edo ohiko etxebizitza bada, gordailuzainari, eta administratziotik kanpoko bada eta, horrelakorik badago, enkantean jarri beharreko ondasunen jabeakideei eta beste jabe batzuei eta interes legitimoa duen edozeini.

Negozioko lokalen errentamendu-kontratua lagatzeko eskubideen enkanteak badira, finkaren administratzaileari edo errentatzaileari ere jakinaraziko zaio, Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legean ezarritako ondorioekin eta beharkizunekin.

3. Besterentzearen iragarkia

Enkantea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Bizkaiko Foru Aldundiaren web orrian iragarriko da. Zerga-bilketako organo eskudunaren iritziz komenigarria denean eta ondasunekiko eta/edo eskubideekiko proportzionala denean, beste hedabide batzuetan edo horretarako beste edozein tokitan ere iragarriko da.

4. Eskaintzak enkanterako aurkeztea

- a) Gutun-azal itxian eta idatziz eginiko eskaintzak baizik ez dira onartuko, betiere besterentzeko ezarritako tasaren ehuneko 50a estaltzen badu gutxienez.
- b) Besterentzearen iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren eta eskaintzak irekitzeko ezarritako aurreko azken egun baliodunaren arteko epea izango da aurkezpena egiteko, bi egun horiek barne direla. Besterentzearen iragarkia argitaratzen denetik eskaintzak irekitzeko jendaurreko ekitaldia egiten denera arte egutegiko hamabost egun igaro behar dira gutxienez.
- c) Besterentzeari buruzko erabakian aipaturiko tokian eta eran egingo da, soil-soilik, eskaintzen aurkezpena. Gutun-azal itxia eman izanari buruzko ziurtagiria emango zaio eskaintza aurkeztu duen pertsonari, non ematearen egun eta ordu zehatzak azalduko diren, baita eskaintza egiten deneko ondasunaren identifikazioa ere. Horretarako, eskaintza horietarako berariazko erregistroa sortuko da.
- d) Honako agiri hauek bildu beharko dituzte aurkezturiko eskaintzek onartu ahal izateko:
 - 1) Lizitatzailereen nortasun juridikoaren egiaztapena eta, hala denean, ordezkaritza.
 - 2) Gordailua itzuliko den bankuko kontuaren identifikazioa esleipendun gertatu ezean.
 - 3) Gordailuaren ordainketaren frogagiria ordainketaren gutunaren bidez.
 - 4) Lizitazioa egin nahi deneko ondasunaren edo eskubidearen edo lotearen identifikazioa.
 - 5) Eskaintza ekonomikoa.
- e) Isilpekoak izango dira lizitatzaileren eskaintzak, eta halakoak direla bermatzeko baliabideak ezarriko dira eskaintzak ireki arte.
- f) Eskaintzak aurkezteko eta kentzeko murrizketak:
 - 1) Eskaintza bakarra onartuko da pertsona fisiko edo juridiko bakoitzeko, batera edo banaka aurkeztuta, eta hainbat eskaintza badira, handiena hartuko da.

- 2) Eskaintzak aurkeztu ahal izango dituzte lege murrizketarik edo eragozpenik ez duten pertsona guztiek, eurek edo ordezkartzaren bitartez, betiere foru administrazioarekiko zerga betebeharrak egunean badituzte eskaintzak aurkezten diren unean, salbu eta prozeduran zuzenean edo zeharka parte hartzen duten funtzionarioak, peritu tasatzaileak, espedientean parte hartzen duten gordailuzainak eta horien guztien enplegatuak eta kolaboratzaileak, eurak edo ezarritako pertsonaren bitartez.
 - 3) Aurkezturiko eskaintzak kentzea onartuko da, idatziz aurkezten badira eta kendu beharreko eskaintza argi eta garbi identifikatzen bada. Hala denean, jarritako gordailua itzuliko da.
5. Enkanteen Mahaia eratzea Presidenteak eta funtzionarioen artean izendaturiko pertsonak osatuko dute Mahaia, Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren foru aginduan ezarritako eran. Mahaiaren eraketa baliozkotzat joko da gutxienez bi kide agertuz gero. Mahaikide guztiak berariazko eskuordetzaren bidez ordeztu ahal izango dira, eta espedientean agerraraziko da eskuordetza.
6. Eskaintzak irekitzea eta esleitzea
- a) Enkanteen Mahaiko buruak irekiko ditu eskaintzak jendaurreko ekitaldian.
 - b) Elkarren segidan ireki eta irakurriko dira ondasun eta/edo eskubideetarako edo loteetarako aurkezturiko eskaintzak, betiere besterentzearen iragarkian ezarritako ordenari eutsita eta, batentzako eskaintzarik ez badago, hurrengora igaroko da. Ekitaldia bukatutzat emango da zordunari eskatu beharreko zor guztiak estaltzearekin batera, esleituriko ondasunen zenbatekoa erabiliz.
 - c) Eskaintza ekonomikorik handienari esleitu zaio lote bakoitza edo ondasun eta/ edo eskubide bakoitza eta, hainbat eskaintza berdinak badira, lehenik aurkeztu denari esleitu zaio.
 - d) Aurreko atalen arabera esleipenduna izendatuta eta, legeria aplikagarriaren arabera, eroslehetasun-eskubidea edo lehentasunezko eskuraketa izateko eskubidea duten pertsona titularrak diren pertsonak badaude eta horregatik esleipenaren baldintzak aurretik jakinarazi behar badira, interesdun horiei jakinaraziko zaie esleipena. Mahaia erabakitako esleipena etenda geldituko da epe batez, zeinetan, legeria aplikagarriaren arabera, interesdunek erosteko eskubidea baliatu dezaketen.
7. Esleipen-akta

Enkantea egin ondoren, Enkanteen Mahaiko kideek esleipen-akta sinatuko dute, eta bertan bildu beharko dira alderdi garrantzitsuak, aurkezturiko eskaintzak, esleipenaren prezioa, esleipenduna edo gorabeherak. Akta horren kopia emango zaie hala eskatzen duten lizitatzaleei.

81. artikulua. Zuzeneko esleipenaren bidezko besterentzea

1. Bidezkoa izango da zuzeneko esleipena Zerga-bilketako organo eskudunaren erabakiaren bidez, honako kasu hauetan:
 - a) Baldin eta, enkantea edo konkurtsoa egin ondoren, ondasunak edo eskubideak esleitu gabe gelditzen badira, ez da gutxieneko preziorik izango eskaintzetarako.
 - b) Produktu galkorrak direnean edo premiazko arrazoiak direnean, espedientean justifikatuak.
 - c) Beste kasu batzuetan ezin denean edo lehia sustatzea komeni ez denean, espedientean arrazoituriko zioengatik.

2. Ondasun galkorrak direnean, zuzeneko esleipenaren mugak eta baldintzak ezarri ahal izango dira besterentzearen gaineko erabakian.
3. Honako irizpide hauen arabera egingo da zuzeneko esleipena:
 - a) Esleipenari buruzko erabakia, araudi honen 80.1 artikuluan bildutako zehaztapenak jasoko dituena, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Bizkaiko Foru Aldundiko web orrian iragarriko da.
 - b) Deialdian, eskaintzak onartzeko azken eguna ezarriko da.
4. Esleipenaren mahaia presidenteak eta funtzionarioen artean izendaturiko pertsonak osatuko dute Mahaia, Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren foru aginduan ezarritako eran.

Mahaiaren eraketa baliozkotzat joko da gutxienez bi kide agertuz gero. Mahaikide guztiak berariazko eskuordetzaren bidez ordeztu daitezke, eta espedientean agerraraziko da eskuordetza.

5. Aurkezturiko eskaintzen arabera, eskaintza ekonomikorik merkeena egin duenaren aldeko esleipena erabakiko du Mahaia. Esleipen-aktan utziko da jasota esleipena, non aurkezturiko eskaintza guztiak eta agertutako gorabehera eta aktaren ondorengo egiaztapena bilduko diren.
6. Aurkezturiko eskaintzarik onena ondasunaren besterentzeko tasaren ehuneko 50etik beherakoa denean, Mahaia, interes publikoa aintzat hartuta eta, esleipenerako gutxienezko preziorik izan gabe, eskaintza nahikoa den ala ez erabakiko du, eta ondasunaren edo lotearen esleipena erabakiko da, edo esleipena hutsik joko da.
7. Ondasunak edo eskubideak zuzeneko adjudikazioaren bidez ere besterendu ezin badira, baliorik gabekotzat joko dira, ordaindu behar duenaren hutsegitea aitortzeari dagokionez, eta egin nahi den besterentzea ondo gauzatu ahal dela pentsatzeko arrazoiak daudenean baino ez da hasiko besterentzeko beste prozedura bat.
8. Berariaz ezarrita ez dagoenari dagokionez, enkante bidezko besterentzerako ezarritakoa bete beharko da aplikagarria den heinean.

82. artikulua. Pertsona edo erakunde espezializatuen bidezko besterentzea

1. Zerga-billetako organo eskudunak enpresa edo profesional espezializatuei agindu ahalko die enkanteak materialki gauzatzeko, eta enpresa edo profesional horiek publikotasun- eta lehia-printzipioak errespetatu beharko dituzte nolana ere.
2. Besterentze-erabakia araudi honen 80.1 artikuluan xedatutakoa izango da, berezitasun hauekin:
 - a) Lizitazioan parte hartzeko ez da beharrezko izango aurretik gordailua jartzea.
 - b) Lizitazioa egintza mota horietan ohikoak diren jardunbideen arabera garatuko da.
 - c) Adjudikazio-mahaia 80.5 artikuluan xedatutakoaren arabera eratuko da eta lizitazio-egintzan hura osatzen duten pertsonetako batek ordezkatu du, zeinak haren garapenean sor litezkeen gorabeherari buruz erabakiko baitu.
 - d) Adjudikaziodunek egunean egon beharko dute Foru Administrazioarekiko zerga-betebeharren ordainketan.
 - e) Nolanahi ere Foru Administrazioaren lehentasuneko eskuraketa eskubideari eusten zaio.

- f) Araudi honen 77 eta 78. artikuluen arabera zehaztutako enkante-oinarria espezializatutako enpresak finkatuko du merkatu-prezioan, zerga-bilketako eskudun organoaren oniritziarekin.
 - g) Aurkeztutako eskaintzarik onena ondasunaren enkante-tasaren ehuneko 50 baino txikiagoa bada, mahaiak, interes publikoa kontuan hartuz eta gutxieneko adjudikazio-preziorik egon gabe, eskaintza nahikoa den erabakiko du, eta ondasuna edo lotea adjudikatzea edo enkantea hutsik uztea erabakiko du.
 - h) Berariaz aurreikusita ez dauden gaietan, enkante bidezko besterentzerako ezarritakoa beteko da, aplikagarri den heinean.
3. Mahaiaren ordezkariak eginbidea luzatuko du, zeinean enkantearen funtsezko elementuak jasoko baitira, eta likidazioa egingo du. Likidazio horretan eskuratutako produktua, zerbitzuaren ordainsaria eta pertsona edo erakunde espezializatuak sartu behar duen likidoa bilduko dira. Horretarako, ordainsaria prozeduraren kostutzat hartuko da.

Zenbateko likidoa bost egun balioudun pasatu baino lehen sartu behar du pertsona edo erakunde espezializatuak Foru Administrazioan.

83. artikulua. Konkurtso bidezko besterentzea

- 1. Enbargatutako ondasunak eta/edo eskubideak besterentzeko, edo bermea eratauta dutenak besterentzeko, behar bezala arrazoitutako interes publikoa dagoenean baino ezin izango da erabili konkurtsoa.
- 2. Konkurtsoa eskudun den organo biltzaileak baimendu beharko du, eta haren deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Deialdi horretan besterendu nahi diren ondasunak, lehiatzeko epea eta baldintzak, ordaintzeko modua eta egin beharreko gordailua adieraziko dira. Halaber, egonez gero, konkurtsoaren baldintza bereziak adieraziko dira, bai lehiakideen baldintzei, bai besterendutako ondasunak eraman eta erabiltzeari dagozkionak.

Berariaz aurreikusita ez dauden gaietan, enkante bidezko besterentzerako ezarritakoa beteko da, aplikagarria den heinean.

- 3. Eskaintzak onartzeko epea amaituta, organo eskudunak bost eguneko epean konkurtsoa adjudikatu edo hutsik uztea erabakiko du.

Eskaintzarik onenari adjudikatuko zaio, alderdi ekonomikoa ez ezik, deialdian sartutako baldintza guztiak betetzea ere kontuan hartuz.

Konkurtsoa hutsik uzten bada, zuzeneko adjudikazioa egin ahalko da geroago.

5. ATALA ADJUDIKAZIOAREN ONDORENGO JARDUKETAK

84. artikulua. Adjudikazioa jakinaraztea

Besterentze-prozesua amaituta, adjudikazio-akta jakinaraziko zaie adjudikaziodunei, eskuraketak dakartzan zerga-betebeharrak betetzeko, hala badagokio, Foru Administrazioaren lehentasuneko adjudikazio aukera jasoz.

85. artikulua. Gordailuak itzultzea

Adjudikazioduneren gordailuak Foru Administrazioaren esku geratuko dira adjudikazioaren prezioaren konturako emate gisa; gainerakoak itzuli egingo dira.

86. artikulua. Adjudikaziodunek prezioa ordaintzea

Adjudikaziodunak ezin izango du inola ere laga adjudikazio-eskubidea, eta erregelamendu honen 80.1.g) artikuluan ezarritako epean ordaindu beharko du prezioaren gainerako zatia. Ordainketa egin ondoren, ondasun edo eskubideak entregatuko zaizkio, eta haien adjudikazio-aktaren ziurtagiria edo, hala denean, salmenta-eskitura publikoa emango da. Adjudikatutako ondasun higiezin salmenta-eskitura eman aurretik, Lege Aholkularitzarako Zerbitzuari bidaliko zaio espedientea, Hipoteka Erregelamenduaren 26. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

87. artikulua. Adjudikazio-aktaren ziurtagiria

1. Aktaren ziurtagiria eskudun den organo biltzaileak sinatuko du eta, bertan, adjudikazio-aktak adjudikatutako ondasun edo eskubideari eta adjudikaziodunari buruz dioena transkribatzeaz gain, honako izapide hauek ere bete direlako frogagiriak jasoko dira:
 - a) Errematea ordaintzearena.
 - b) Lege Aholkularitzako Zerbitzuaren aldetik premiamenduzko prozeduran legezko formaltasunak bete direla adierazten duen txostena ateratzearena, zerga-bilketako organoak eskatu duenean eta, nolana ere, adjudikazioa Jabetza Erregistroan inskribagarriak diren ondasun eta/edo eskubideen gainekoa denean.
2. Ziurtagiri hori salmentako dokumentu publikoa da ondore guztietarako, eta ziurtagirian agerraraziko da erregistro publikoan Foru Administrazioaren izenean egindako prebentziozko idatzoharra baliogabetuta geratu dela. Halaber, ondorengo kargak ezerezteko agindua emango da, Hipoteka Araudiaren 175. artikuluko 2. arauan xedatutakoaren arabera.

88. artikulua. Adjudikaziodunak ez ordaintzea edo uko egitea

1. Baldin eta adjudikaziodunak ez badu ordaintzen errematearen prezioa araudi honetako 80.1.g) artikuluan ezartzen den epean, ondasuna eta/edo eskubidea automatikoki bigarren eskaintza onenari adjudikatuko zaio, eta halaxe hurrenez hurren.

Halakoetan, eskudun den organo biltzaileak adjudikaziodun berriari eskatuko dio gehienez hiru egunen buruan besterentzearen iragarkian eskatutako berme gordailua eratzeko; ohartaraziko dio, gainera, errematearen prezioa esandako epe horretan osatzen ez badu eraturako gordailuaren zenbatekoa ere galduko duela, Foru Administrazioak ukoaren egunetik hasi eta hamar egunen buruan edo errematea ordaintzeko azkeneko egunean adjudikazio berriaren zenbatekoan adjudikazioa bere egiteko duen lehentasuna baliatu ezean.

Galdutako gordailuen zenbatekoa Foru Administrazioan sartuko da, adjudikatzeko atzerapenaren kalte-ordainetarako gastu gisa.

2. Baldin eta adjudikaziodunek errematearen prezioa ordaindu ez eta ondorioz zorraren zenbatekoa osoa estaltzen ez bada eta ondasun eta/edo eskubide batzuk adjudikatu gabe geratzen badira, beste deialdi bat egingo da ondasun edo erlo horiek besterentzeko aurreko enkantearen baldintza eurretan.

89. artikulua. Zorrak kitatzea adjudikazioaren ondoren

1. Lortutako diru kopurua zorrak kitatzeko aplikatutakoan, besterentzearen prezioaren soberakina, egonez gero, besterendu diren ondasunen edo eskubideen titular ziren pertsonen esku jarriko da Foru Ogasunean. Ezin eskatu izango du korriturik. Besterentze-erabakia eragin zutenen ondorengo eskubideen titularrik balego, dagokion araudia aplikatuko da.

2. Zorra, korrituak eta prozeduraren kostuak estali ondoren, besterendu gabeko ondasun eta/edo eskubideen enbargoa altxatzeko edo kargak ezerezteko agindua emango da eta titularrei, hala badagokie, ondasuna eta/edo eskubidea ematea erabakiko da.

90. artikulua. Ondasunak eta/edo eskubideak Foru Administrazioari adjudikatzea

1. Besterentzeko prozedurak amaituta, enbargatu diren edo euren gainean berme bat eratuta duten ondasun eta/edo eskubideetakoren bat adjudikatu ez balitz eta estali gabeko zorrak geratuko balira, Ogasun Saileko titularrak, dagokion foru aginduaren bitartez, Zerga-billetako Zuzendariordeak proposatuta, Foru Administrazioari interesatzen zaizkion ondasunak eta/edo eskubideak adjudikatzea erabaki ahalko du.
2. Adjudikazioaren prezioa zorraren zenbatekoa izango da; inolaz ere ezin da gainditu eskaintzetarako ezarritako gutxieneko zenbatekoa eta zordunak edo ondasun eta/edo eskubidearen titularrak ez du izango konpentsazio ekonomikoa jasotzeko eskubiderik.
3. Adjudikatuko diren ondasun eta/edo eskubideen gaineko zamen edo kargen zenbatekoa Foru Administrazioaren adjudikazio-prezioa baino gehiago bada, aldeztatik txostena egin beharko du Ondare Zerbitzuak.

6. ATALA PREMIAMENDU-PROZEDURAREN KOSTUAK

91. artikulua. Prozeduraren kostuak

1. Premiamendu-prozeduraren kostutzat hartzen dira derrigorrezko betearazpeneko prozesuaren garapenean sortzen diren gastuak. Kostu horiek zordunari eskatuko zaizkio.
2. Prozeduraren kostuen kontzeptuan gastu hauek sartzen dira:
 - a) Enbargatu diren edo euren gainean berme bat eratuta duten ondasun eta/edo eskubideen balorazioetan, mugaketetan eta besterentzean esku hartzen duten Administrazioaz kanpoko pertsona fisiko edo juridikoen lansariak.
 - b) Erregistro publikoetako jarduketengatik ordaindu beharreko lansariak eta gainerako gastuak.
 - c) Enbargatu diren edo euren gainean berme bat eratuta duten ondasun eta/edo eskubideen gordailuagatik eta administrazioagatik ordaindu behar direnak.
 - d) Ondasunak eta/edo eskubideak kudeatzeko behar diren administrazio-zereginak egiteagatik sortzen direnak, araudi honen 67.3 artikuluko eta 68.4 artikuluko kasuetan.
 - e) Lehentasunezko hartzekodunei egindako ordainketak, araudi honen 56.1 artikuluan xedatzen den bezala.
 - f) Betearazpenak berak eskatzen dituen gainerako gastuak.
3. Administrazioaren organoen gastu arruntak ezin dira kostu modura sartu.

92. artikulua. Administrazio eta gordailuko lansari eta gastuak

1. Pertsona fisiko edo juridikoek sortutako lansariak, ofizialki jarrita dauzkaten tarifen araberakoak edo Administrazioarekin sinatutako kontratuan zehaztu diren bestekoak izango dira.

Zerbitzu horiek bete eta gero ordainduko dira, eskudun den organo biltzaileak adostasuna eman ondoren.

2. Erregistro publikoen jarduketengatik sortzen diren gastuak indarreko araudian finkatutakoak dira. Organo biltzaileei informazioa ematean dautzan jarduketak doakoak izango dira.

Erregistroek bidezkoak diren gastuen faktura egingo dute, eta ondasun enbargagarriekin lotuta aurkezten zaizkien edo egiten dituzten agindu edo gainerako dokumentuetan zainpetuko dituzte.

Lansari horiek Foru Administrazioak ordainduko ditu, horretarako gaitutako funtsen kargura, premiatutako pertsonaren konturako kostuak izateari utzi gabe.

3. Honako hauek enbargatu diren edo euren gainean bermea eratuta duten ondasun eta/edo eskubideen gordailuek sortutako gastuak izango dira:
 - a) Gordailuzaintzako lansaria, izatekotan.
 - b) Garraio, paketatze edo egokitze, biltegitratze, mantentze, kontserbazio, zaintza eta erakusketa lanen ondoriozkoak, aurreko letran aipatutako lansarian sartuta ez badaude.
 - c) Ondasunak eta/edo eskubideak kudeatzeko behar diren administrazio-zereginak egiteagatik sortzen direnak, araudi honen 91.2.d) artikuluan xedatutako kasuetan.

Letra honek aipatzen dituen zerbitzuak emandakoan ordainduko dira, gastu eta ordainketa publikoen prozedurei buruzko arauen arabera.

93. artikulua. Kostuen likidazioa

1. Premiamendu-espeditente bakoitzaren behin betiko likidazioan hari dagozkion kostuak zenbatuko dira.
2. Zergapeko bati baino gehiagori dagozkien eta banan-banan egotzi ezin zaizkien kostuek denen artean banatuko dira, bakoitzari bere zergaren proportzioan.
3. Zergapekoari ezin izango zaio inongo kostu partidarik eskatu, baldin eta espeditentean partida frogatzen duten lansarien ordainagiri, faktura edo minutak ageri ez badira.
4. Zergapekoari ordainketaren frogagiria ematen zaionean, frogagirian bertan edo bereizita, haren konturako kostuak agerraraziko dira, zein kontzepturi dagozkion zehaztuta.
5. Ordaindutako kostuak itzuli beharko dira likidazioa edo kostu horiek eragin dituen premiamendu-prozedura deuseztatzeko kasuetan.

III. KAPITULUA PREMIAMENDU-PROZEDURAREN AMAIERA

94. artikulua. Espedientearen amaiera

1. Titulu honetan araututako prozeduran jazarritako zorrak eta kostuak estaltzen direnean, hala agerraraziko da premiamendu-espeditentean, eta ondorioz espeditentea amaituta geratuko da.
2. Jasotako zenbatekoa nahikoa ez balitz, ase gabeko zatiarengatik, araudi honen II. tituluko V. kapituluan zordunentzat xedatutakoaren haritik joko da.
3. Zordunari erabat ordaindu diren zorren ordainketaren frogagiriak emango zaizkio.

Zati batean ordaindu diren zorrenengatik, zati horri buruzko ordainketaren frogagiria emango zaio.
4. Zerga-zorren ordainketari zergapeko batek baino gehiagok solidarioki aurre egin dioten kasuetan, prozedura ez da amaitutzat joko ordaindu duen zergapekoak bere

erantzukizunaren oinarriaren kontrako errekurtsorik edo erreklamaziorik jarri duenean, errekurtsio edo erreklamazioaren gai izan den egintza irmoa ez den bitartean. Kasu horretan ordainketak bilketa-prozedura une horretara arte etetea ekarriko du.

IV. TITULUA

HIRUGARRENGOTZAK ERREKLAMATZEA

95. artikulua. Izaera eta eskumena

1. Administrazioaren bidetik doan erreklamazioa, auzitegi eta epaitegi zibilen aurreko hirugarrenen ekintza bideratu aurreko baldintza modura, premiamendu-prozedura izapidetzen denean zein badaezpadako neurriak hartzen direnean jarri ahalko da, eta titulu honetan jasotako arauen ildotik izapidetu eta ebatziko da.
2. Hirugarrengotza zordunari enbargatutako ondasun eta/edo eskubideen jabarian edo hirugarrengotza aurkeztu duen alderdiak premiamendu-espedientearen xede denaren aurrean bere kreditua itzulia izateko duen lehentasunaren eskubidean soilik oinarritu ahalko da, badaezpadako neurriak hartzen direnean izan ezik, horietan jabarian baino ez baita oinarrituko.
3. Zergapekoak jarritakoa ez da hirugarrenen baten erreklamazio modura hartzerik izango.

96. artikulua. Hirugarrengotza-erreklamazioa aurkeztea

1. Hirugarrengotza-erreklamazioa idatziz egingo da, hirugarrengotza aurkeztu duen alderdiaren nahiaren oinarriaren froga-hastapen bat aurkeztuz, eta organo biltzaileen eskura geratuko dira haren nahiaren oinarri diren jatorrizko agiriak. Idazkia premiamendu-prozedura izapidetzen ari den organoari igorriko zaio, eta izapidetzeko eskumena duen organoari igorriko dio berak.

Erreklamazio-idazkiak eskabideei eskatu beharreko baldintzak betetzen ez baditu edo hirugarrengotza aurkeztu duen alderdiak erreklamazio-idazkiarekin batera bere eskubidearen oinarri izan daitezkeen agiriak aurkezten ez baditu, izapidetzeko eskudun den organoak haien falta zuzentzeko eskatuko dio. Horretarako errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik hamar eguneko epea izango du, berariaz ohartaraziz, hala egiten ez badu, erreklamazioa artxibatuko dela.

2. Ez da onartuko jabariaren hirugarrengotza adjudikazio-aktaren frogagiria eman ondoren edo, kasuan kasu, eskritura eman ondoren, eragindako ondasun eta/edo eskubideen salmenta gauzatu edo Foru Administrazioari ordaintzeko haiek adjudikatu ondoren. Ez da eskubide hobeko hirugarrengotzarik onartuko salmentaren prezioa jaso eta gero, edo ondasunak edo eskubideak adjudikazio-emaileari adjudikatzekotan, hark, legeria zibilean xedatutakoaren arabera, titularitatea beretu eta gero.
3. Idazkia jasotzen denean, premiamendu espedienteari batuko zaio, eta hirugarrengotza jabari edo eskubiderik oneneko modura kalifikatuko da.

97. artikulua. Hirugarrengotza-erreklamazioa aurkeztearen ondorioak

1. Hirugarrengotza jabarizkoa balitz, honako ondore hauek izango lirateke:
 - a) Ondasunak eta/edo eskubideak zelakoak diren, ziurtatzeko neurri bat ala beste hartuko da, hala nola, enbargoen idatzoharrak erregistroetan, ondasunen gordailuak edo egoki den bestelakorik.
 - b) Behin neurri horiek hartuta, arazotsuak diren ondasun edo eskubideen gaineko prozedura etengo da.

- c) Ondasunak dirua badira, eskudirua zein kontuetan dagoena, Foru Administrazioan zainpetuko dira, edo zerga-bilketako organoaren eskueran dauden kontuetan atxikitzeko agindua emango da, zerga-bilketako organoak erabakitzen duenaren arabera.
 - d) Ondasun edo eskubideak, berandutzekotan, hondatu gabe edo balio galera nabarmenik jasan gabe kontserbatzerik ez dagoenean, Zerga-bilketako zuzendariordetzak besterentzea erabaki ahal du, eskudun den organo biltzaileak proposatuta, eta halakorik eginez gero, hirugarrenotzaren erreklamazioaren ebazpenaren ondorioz ateratako zenbatekoa zainpetuko da.
 - e) Prozedurak hirugarrenotzak xede izan ez dituen zordunaren gainerako ondasun eta eskubideekin segituko du, zorra osorik ordaindu arte. Zorra osorik ordaintzen denean, indarririk gabe geratuko da erreklamazioaren gai izandako ondasun eta/ edo eskubideen gaineko enbargoa, erreklamaziogilearen titularitatearen inolako aitorpenik ekarri gabe baina.
2. Eskubide hobeko hirugarrenotza denean, jardunbideak aurrera jarraituko du ondasun eta/edo eskubideekin zorra osatu arte, eta produktua gordailuan utziko da hirugarrenotzaren zain.

98. artikulua. Hirugarrenotza-erreklamazioa izapidetzea eta ebaztea

1. Hirugarrenotza aurkezteko idatzia, erantsitako dokumentazioarekin eta espedientearen kopiarekin batera, Lege Aholkularitzako Zerbitzura bideratuko da, txostena eta ebazpen proposamena helaraz diezaion eskudun den organoari; organo horrek gaia sustatu zen egunetik hasi eta gehienez sei hilabetez ebatzi beharko du auzia.

Epe hori ebazpena jakinarazi gabe igarotzen bada, erreklamazioa ezetsizat jo ahal du da dogakion demanda judiziala egiteko ondorioetarako.

2. Emandako ebazpenaren gaineko berriazko jakinarazpena dagoenetik, edo Administrazioaren isiltasunez erreklamazioa ezetsizat hartzen den egunetik hasi eta hilabetez epean eskudun den organo biltzaileari demanda judizialen bat jarri delako frogagirik aurkezten ez bazaio, erabakitako etena altxatu eta premiamendu-prozeduraren izapideekin aurrera joko da.
3. Epaitegi eta auzitegi zibiletan hirugarrenotza auzietan esku hartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiko zerbitzu juridikoak, auzi horietan ateratzen diren epai irmoen berri emango dio eskudun den organo biltzaileari.

99. artikulua. Hirugarrenotza-erreklamazioa baiestearen ondorioak

1. Hirugarrenotza jabarizkoa balitz, erreklamazioa baiesteak hirugarrenotzaren erreklamazioak jomuga zituen ondasun edo eskubideen gainean egindako enbargoa kenaraziko luke, salbu eta aurretiaz, berandutzekotan, hondatu gabe edo balio galera nabarmenik jasan gabe kontserbatzerik ez zegoenez, besterentzea erabaki balitz. Halakorik gertatzen, erreklamaziogileari eragiketa horretan ateratako produktua emango litzaioke, berandutze-korrituak ere bere alde likidatuz.
2. Hirugarrenotza eskubide hobekoa balitz, erreklamazioa baiesteak gauzapenean lortutako produktua erreklamaziogileari emanaraziko luke, behin premiamenduko administrazio-prozeduran gauzatzeko beharrezko kostuak kenduta.

100. artikulua. Foru Administrazioaren aldeko hirugarrenotzak

Ondasunak eta/edo eskubideak enbargatzean ikusten bada horiek beste prozedura betearazle, judizial edo administratibo batengatik jada enbargatu direla, organo eskudunari jakinaraziko zaio, behar bezain xeheki, hark Bizkaiko Foru Aldundiko zerbitzu juridikoari

jakinaraz diezaion. Zerbitzu juridikoak, bidezko baderitzo, Aldundiaren eskubide hobearen defentsarako egoki ikusten dituen ekintzak bideratuko ditu.

V. TITULUA

KONKURTSOKO PROZEDURAK

ETA BETEARAZTEKO BESTE PROZESU BATZUK

101. artikulua. Foru Administrazioa pertsonatzea

1. Zerga Administrazioak Foru Administrazioaren eskubideetan eragina izan dezaketen prozedura judizialei buruzko informazioa eska dezake. Organo judizialak behartuta daude, ofizioz zein egoitza judizialean pertsonatuz, organo horrek kreditu publikoen defentsarako eskatzen duen informazio garrantzitsu guztia ematera; Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren 93.3 artikuluan eta 168.3 artikuluan ezartzen da betebeharrak hori.
2. Organo biltzaileek Lege Aholkularitzako Zerbitzuari bidaliko dizkiote Foru Administrazioaren eskubideak defendatzeko behar diren dokumentuak. Foru Administrazioaren kredituak organo eskudunak emandako frogagiriaren bidez justifikatuko dira.
3. Aurreko zenbakietan xedatutakoa, kasuan kasuko berezitasun egokiek, Foru Administrazioaren eskubideak ukitzen dituzten ondasunak eta/edo eskubideak atzemateko edozein prozedura ez-judizialki aplikatuko zaio.
4. Zerga Administrazioak konkurtso prozeduretan egiten diren itun edo hitzarmenak sinatu ahaliko ditu, konkurtso prozeduran dituen ordezkarien bidez, aurretiaz Ogasun eta Finantzen foru diputatuak baimenduta, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 168.4 artikuluan jarritako mugekin. Kasu horretan, masa pasibokoak diren zorren tratamendua konkurtsoei buruzko araudiaren aplikazioak dakarrenaren mende geratuko da.
5. Zerga-bilketa hitzarmen baten arabera kudeatzen ari diren beste administrazio publiko batzuen kredituak daudenean, administrazio horiei jakinaraziko zaie konkurtso prozesua dagoela; espedienteak dagokion administrazioa itzuliko dira, prozeduran espedienteen defentsarako pertsona dadin, biek bestelakorik hitzartu ez badute.
6. Foru Administrazioak konkurtso administrazioan parte hartzen badu, konkurtso legerian dioenaren haritik, administrazioa arituko den funtzionarioa Ogasun eta Finantzen foru diputatuak izendatuko du.
7. Zerga-bilketako organo eskudunak proposatuta, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak baimena eman dezake ondasunak eta/edo eskubideak besterentzeko prozeduretan eskaintzak aurkezteko, Foru Administrazioaren zorreatatik bermea edo enbargoa erata duten hartzekodunen konkurtsoetan, kreditu publikoaren defentsarako komenigarritzat jotzen denean, aurrekontu-kreditua xedatu ondoren, beharrezkoa denean.

102 artikulua. Ogasunaren Publikoaren aurkako delituaren ziozko erantzukizun zibilaren ordainarazpena

1. Foru Administrazioarekin zorpetutako inork Ogasun Publikoaren kontrako delituen batengatik erantzukizun zibilik eta isunik balu, erantzukizun zibil horren ondoriozko zorra, izatekotan, eskatuko litzaioke ondasunen eta/edo eskubideen enbargo, traba eta besterentzeen eginbideak egiteko ondoretarako, zordunaren kontra bideratzen ari den premiamenduzko administrazio prozeduraren bidez. Erantzukizun zibilak eragindako zenbatekoa ezingo da handitu ordainarazpen-aldiko errekaruetan.

Foru Administrazioak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren seigarren xedapen gehigarriko 1. zenbakiak hizpide dituen isunarekin eta erantzukizun zibilarekin batera, erantzukizun horren zenbatekoaren gainean, ebazpen judiziala irmoa den egunetik Foru Administrazioan sarrera egiten den egunera arte sortutako korrituak eta

premiamendu-prozeduraren kostuak ere eskatuko ditu, organo judizialak besterik erabaki ez badu.

2. Foru Administrazioiko zerga-bilketako organoek Ogasun Publikoaren kontrako erantzukizun zibila eta isuna ordainarazteko emandako premiamenduzko administrazio-prozeduraren egintzen kontra, berraztertze errekurtsoa edo administrazioarekiko diru-erreklamazioa jarri ahalko da, salbu eta argudiatutako inpugnazio zioak inpugnatutako ordainarazpen egintza horiek premiamendu-prozeduraren bidez ordainaraztea lortu nahi den Ogasun Publikoaren kontrako delituarengatik erantzukizun zibila zehaztu duen epaiarekin ondo egokitzen direla edo bat datozela diotenean. Halakoetan, auzia erabakiak hartzeko eskudun den organo judizialean planteatuko da.
3. Organo judizialak Zigor Kodearen 125. artikulua haritik erantzukizun zibila edo isuna zatika ordaintzearen gainean hartutako erabakia urratzen bada, ordaindu gabe dagoen zenbateko osoa premiamendu-prozeduraren bidez ordaintzeko eskatuko da. Kasu horretan, ez dira aplikatuko ordainarazpen-aldiko errekaruak baina dagozkion korrituak eskatuko dira.
4. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorren seigarren xedapen gehigarriko 4. zenbakian xedatutakoa betetzeko, ogasun publikoaren kontrako delituagatik erantzukizun zibila eta isuna ordainarazteko eskudun den organoak organo judizialari jakinaraziko dio agindutako betearazpenean gerta daitekeen gorabehera oro eta, nolana ere, jarduketa eta erabaki hauek:
 - a) Premiamendu-prozeduran egiten diren sarrerak.
 - b) Erantzukizun zibilak eragindako zor osoa sartu dela.
 - c) Erantzule zibilen huts eginaren administrazio-adierazpena eta kreditua kobraezina delako administrazio-adierazpena.
5. Epai bertan erantzukizun zibilaren beste erantzule solidario edo subsidiariorik dagoela adierazten bada, ez da erantzukizunaren administrazio-adierazpenik beharko zorra eskatzeko; aitzitik, eskatzeko baldintzak direnean eskatuko zaie ordaintzeko.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Xedapen Gehigarri Bakarra. Prebentziozko idatzoharra

61. artikuluko 1. zenbakiko f) letran eta 4. zenbakiko azken paragrafoan, 62. artikuluko 1. zenbakian eta 68. artikuluko 3. zenbakian jasotako kasuetan Foru Administrazioak haietan ezarritako prebentziozko idatzoharra egiteko betebeharretik salbuetsi ahalko du.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengo Xedapen Iragankorra. Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa

Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 5eko 62/2015 Foru Dekretuak, Administrazio Elektronikoari buruzkoak, lehen xedapen iragankorrean xedatutakoaren arabera, araudi honetan Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaz egiten diren aipamenak Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 21eko 112/2009 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergen Kudeaketari buruzko Araudiaren 42. artikulua eta hurrengoek aipatzen duten Bizkaia Bai zerbitzuari eginda ulertu beharko dira, Ogasun eta Finantza Sailaren zerbitzu telematikoak egoitza horretan sartzen diren unera arte.

Bigarren Xedapen Iragankorra. Eskudirutan ordaintzeko bideak

Zorrek eskudirutan ordaintzeko araudi honen 13.1 artikuluko d) eta e) letrek aipatzen dituzten bideak erabili ahalko dira, Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren foru agindu baten bidez baimentzen denean.

Hirugarren Xedapen Iragankorra. Geroratze edo Zatikatzeko eskabidea

27.1 artikuluan xedatutakoa gorabehera, jarduera ekonomikorik egiten ez duten pertsona fisikoek ordainketa geroratzeko eskaera 2021eko abuztuaren 1etik aurrera egin beharko dute, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez.

Laugarren Xedapen Iragankorra. Izapidetzen ari diren prozedurak

Erregelamendu honen III. Tituluko II. Kapituluko 4. eta 5. ataletan eta 26., 28., 29., 30., 31., 32., 34., 37., 38., 39. eta 40. artikuluetan ezarrikoa aplikatuko da 2020ko urtarrilaren 1ean izapidetze-fasean dauden prozeduretan.